

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-06-22  
EGUBAKOITZA  
514. ZENBAKIA  
12. URTEA  
DOANEKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

"Kooperatibetan  
geuk hartzen  
ditugu  
erabakiak"

Javier Goienetxea |  
Konfekoopereko presidentea | 8

Bete-bete datoz  
San Juan jaiak  
Arrasatera


ORRIALDE  
BEREZIAK  
BARRUAN | 35



GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN  
Ospitale berriaren gaineko 6 orrialde | 19



Txorbela otxotea Suediaria  
doa, elkartrukean | 33



Bihar kolorez jantziko dute  
Bergarako erdigunea | 16

## Martin Garitano ahaldun nagusiak GOIENA Taldea bisitatu du

Jokatzen duen paper  
garrantzitsua  
azpimarratu du | 5



Martin Garitano. | XABIER URTZELAI

## Bergarako futbol jokalaria Euskal Selekzioan

Vanesa Gimbert  
jokalaria bihar  
izango du debuta | 30

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6  
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28  
KULTURA 33 | ZURE IRAGARKIAK 59  
TELEBISTA-IRRATIA 60 | ESKELAK 60  
EZKONTZAK 61 | NON-ZER 62



Naiara Agreda  
eta haren ama,  
Almudena Vieco,  
GOIENren egoitza  
nagusiaren  
kanpoko aldean.

## BIZITZA ERRAZAGO EGITEKO TAPOI BILKETA KANPAINA

Naiara Agreda 8 urteko haur arrasatearrak  
garun-paralisia dauka eta etxean egokitzen  
behar ditu eguneroko bizimodua errazteko.  
Hala, tapoi bilketa kanpaina hasi dute senideek.  
Luze joko dutela badakite, baina denon  
laguntzarekin behar diren tapoi tona guztiak  
lortzea espero dute. | 12

JOKIN BEREZIARTUA

# Autokarabanako abentura bai, baina ondo antolatuta

Geroago eta jende gehiagok aukeratzen du bidaiatzeko mota hori; hala ere,  
askok uste dutenaren kontra, ahalmen ertain-handiko turismoa da | 2

Passat Alltrack  
berria



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.

SINADURAK

JUAN MARTIN  
ELEXPURU | 6

MAIDER  
ARREGI | 6

YON  
SUINAGA | 17

IDOIA  
ETXEBERRIA | 64

# Abenturaren bila irten daiteke, baina bidea aurrez erabakita

- ▶ Autokarabanen ibiltzen da gero eta jende gehiago
- ▶ Herrialde bakoitzeko arauak ez dira arazo izaten
- ▶ Non gelditu aurrez begiratzea gomendatzen dute



Autokarabana Herbehereetatik bidaiatzen; barrenean, haize-errota. | SORBELTZ

## LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Uztailaren 1a ezker mugaz beste aldera gidatzen dutenek alkoholometroa eroan beharko dute aldean. Halaxe agindu du Frantziako Gobernuak: han ibiltzen diren gidari guztiek halako neur-gailua beharko dute. Ibilgailu mota guztietako gidariak exijituko diete, 50 zentimetro kuboko motozikleten gidariak salbu.

Iparraldeko eta Frantziako farmazia eta supermerkatuetan salduko dituzte behin erabili eta botatzeko alkoholometroak, euro 1 edo 2ko prezioan. Azarora arte, ohitzeko aukera izango da, eta orduan hasiko dira isunak ipintzen: 11 euro.

Regis Laverne Gendarmeria-ko komandantearen esanetan, helburua da istripu larri gutxiago gertatzea, izan ere, "norbait hiltzen den istripuen %30ean alkohol-kontsumoa egon da".

Oraingoan, mugaren alde bateko zein besteko gidariak informazio gehiago batzen dabilta. Izaga irundarra da, Senperen bizi da, eta, berak alkoholometroa erosi duen arren, Irunen oraindik salgai ez daudela eta, orokorrean, jendea lasai dagoela esaten du.

## DATUA

# 350

BAZKIDE

EAEko autokarabanisten elkarteak, Sorbeltzen, 350 bazkide daude; estimazioa da Euskal Herrian 3.000 autokarabanista badirela.

Izagaren ustez, "seguru asko, azaroan, isunak ipintzen hasten direnean, erreakzionatuko du jendeak".

## Urak agintzen du

Iparraldean eta Frantziako mugaren alde honetaz bestelako arau batzuk dituzte, eta gauza bera gertatzen da Europako beste herrialde batzuekin. Errepidean sarri ibiltzen direnek, beraz, adi egon beharra dute. Horietako batzuk autokarabanen zaleak dira.

Alkoholometroa aldean eroateak ez duela agintarien helburua beteko uste du Euskadiko auto-

karabanen jabeen elkarte Sorbeltzeko idazkariak, Jabi Saizek: "Edateko ohitura duenak berdin edango du", esaten digu berak. Edozein modutan, oraingo udan mugaz bestaldera bidaiatzen duten autokarabanistek alkoholometroa eroan beharko dute... eta, segun eta ze herrialdetara joaten diren, txaleko erreflektantea, botikina, argiak 24 orduan isiotuta, ordaindutako autobideetako pegatina edo biñeta, ordezko bonbillak... Saizen esanetan, horiek ez diete buruko min handirik ekartzen: "Horrelako arauen bat sartzen dutenean, Interneteko foroetan -eta, segituan irteten da eta horrela jakiten dugu guk". Gaineratzen duenez, alde aurretik gehien begiratzen dena animalien gaineko arauak dira, txakurra edo beste konpainia-animaliaren bat eroaten duenarendako.

Sorbeltz elkarteko arduradunak dioenez, beste gauza bat da autokarabanistek gehien hartu beharrekoa kontuan: ur deposituak -ur grisak edo xaboiarekin erabilitakoak; komuneko hondakinak; edateko ura... - non hustu eta non bete. "Horrelako guneak non dauden, horren arabera anto-

## Ohiko zirkulazio arauk eragiten diete

### ▶ Ze gidabaimen behar dut?

Europa osorako balio duen legearen arabera, 3.500 kg eta zortzi jesarleku baino gutxiagoko edozein ibilgailu arin gidatzeko B1 gidabaimena behar da.

### ▶ Ze legek eragiten die?

Zirkulazio ohiko arauak bete behar dira. Akanpadaren gaineko legeek eragiten diete, berriz, Zirkulazio Legearen 2. artikulua hartzen dituen bide publikoetatik kanpo dagoenean eta kanpaleku gisa erabiltzen denean.

### ▶ Herriko alkateek mugatu edo debekatu dezakete autokarabana aparkatzea?

Bai; udal korporazioek herriko zirkulazioa arautu dezakete, zirkulazioa ez oztopatzeko eta aparkatzeko lekuak bidezko moduan banatzeko. Mugak ezar ditzakete, betiere, modu arrazoituan eta argumentu objektiboak erabilia.

### ▶ Zelakoak dira autokarabanendako lo egiteko guneak?

Funtsean, autokarabanek aparkatzeko lekuak dira. Erabilitako urak (grisak) husteko edo berriz hartzeko, komuneko hondakinak husteko... zerbitzuak izan ditzakete edo ez; eta doakoak edo ordaindutakoak izan daitezke.

### ▶ Derrigorrezkoa da kanpalekuan lo egitea?

Ez; baina noizbehinka hala egiten dute zaleek, batez ere bidaia luzeetan, eroso delako eta atseden luzeagoa hartzeko.

### ▶ Zenbat lagun joan daitezke?

Gutxienez, lau lagunek; modelo handiagokoz zazpi edo zortzi ondo hartzen dituzte.

### ▶ Inor joan daiteke barruan errepidean goazenean?

Bai; betiere, segurtasun gerrikoarekin.

Orain Arrasaten



Esan baietz betiko

## Rosa Sarabia doktoreak

kontsulta berria irekiko du:

# PronoKal<sup>®</sup> metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.



Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

## Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa



## TRIANGELUA, GUZTIETAN; ARGIAK, GUTXITAN

Hona hemen Euskal Herriko autokarabanistek gehien bisitatu dituzten herrialdeetako derrigorre batzuk. Komenigarria da bidaiari hasi aurretik informazio osoa bilatzea.



	TRIANGELUA	TXALEKOA	BOTIKINA	SU-ITZALGAILUA	ALKOHOLIMETROA	ARGIAK EGUNEZ	BONBILAK
Alemania	●		●			**	
Andorra	●						●
Austria	●	●	●				
Belgika	●	●	●	●			
Espainia	●*	●					
Frantzia	●	●			●		**
Herbehereak	●					●	
Italia	●	●				***	
Portugal	●	●					
Suitza	●					**	

\* Espainian bi eroan behar dira; gainerakoetan, bat.  
\*\* Ez da derrigorrezkoa, baina gomendatu egiten dute.  
\*\*\* Autobidean bakarrik.

ITURRIA: WWW.FURGOVW.ORG

## Bidaiatzerakoan, zelakoa zara?

### IMPULSUZKOA

Gizonezkoak –batez ere, 36 eta 45 urte artekoak– inpulsiiboagoak dira; emakumeek ondo pentsatzen dute bidaiari kontratatu aurretik.

### PLANIFIKATZEA

Emakumeak dira horren zaleagoak; batez ere, 18 eta 25 urte artekoak eta 46 eta 55 urte artekoak.

### ABENTURAZALEA

Hemen, emakumeak garaile, batez ere 26 eta 45 urte artekoak. Bidaiatzeko leku gogokoena Afrika dute.

### FAMILIA GIROAN

Familian bidaiatzea gura izaten dute, gehienbat, emakumeek, eta horien artean, 36 eta 45 urte artekoak. Europako hotel batera joaten dira.

latzen dugu normalean bidaiari, esaten du Saizek. Batez ere, kanpalekuan sartu gura ez dutenak begiratu behar dute hori alde aurretik.

Iñigo Madina oñatiarra leku askotik ibili da autokarabanarekin: Frantziatik, Suitzatik, Italiatik, Portugaldik eta Austriatik. Berak ez dauka herrialde bakoitzeko arauak alde aurretik kontsultatzeko ohitura, eta "inoiz arazorik ez" duela izan esaten digu. "Herrialde guztiak autokarabanendako oso ondo prestatuta daude; Portugal zertxobait gutxiago, baina hala ere esperientzia txar bat ere ez dut izan". Hala ere, dena zoriaren esku uztea ere ez da komeni, Madinaren iritziz: "Aldez aurretik erabakitzen dut ze lekutan geratu, batez ere gaua pasatzeko. Horretarako informazio asko dago Interneten. Izan ere,

inprobisatzea oso kaotikoa izan daiteke. Horrez gain, gaua pasatzeko orduan, beste autokarabanaren bat bilatzen dut haren ondoan ipintzeko, seguruagoa delako. Joera orokorra hori da".

Sorbeltz elkarteko idazkariak dioenez, autokarabanistek "aurrez, gutxi gorabehera erabakitzen dute ibilbidea. Normalean, goazen

lekuan ikustea merezi duten hiru edo lau leku aukeratzeko ditugu; gero, aparkalekuak, batez ere hiriguneetan".

### Turismo garestia

Autokarabanen bidaiatzea gero eta gehiagoren aukera da. Sorbeltz elkarteko Jabi Saizen esanetan, orain 350 bazkide dira, Hego Eus-

kal Herrikoak gehienak, eta kanpoko batzuk ere bai. Ez dago datu fidagarriarik, baina 2006. urtean 40.000 bat autokarabana zeuden Hego Euskal Herrian eta Espainian, eta orduz geroztik "autokarabanismoak sekulako goraldia izan du". Horren erakusle, Sorbeltzek bazkide kopurua bikoiztu egin du azken sei urteetan. Saizek

estimazio hau egiten du: "Elkarrean, normalean, multzo bateko %10 eta %15 inguruan daude. Nik esango nuke Euskal Herrian badaudela 3.000 eta 4.000 autokarabana inguru".

Dena dela, autokarabanismoa ez da, askok uste dutenaren kontrario, turismo merkea egiteko modua: "Kanpotik begiratuta, beharbada hori ematen du, baina ez da horrela. Badaude galdeketa batzuk eginda, eta ondorioa da erosketari-ahalmen ertain-altuko turismoa dela. Behin autokarabana duzunean, askatasun handia ematen du, bai; baina autokarabana berria erostea, gaur egun, 50.000 eta 100.000 euro artean kostatzen da; gero, mantenua egin behar zaio: aseguru, garajea, biñeta... Gastu finko batzuk ditu urtean, eta 1.500 euro edo gehiago izan daitezke urtean", esaten du Jabi Saizek.

## Mendira edo ondo jatera, eta iaz baino gehiago gastatuta

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, urtearen lehen erdian, 139,23 euro gastatu zuen biztanle bakoitzak, batez beste; eta, krisiak krisi, iaz baino %25 gehiago da hori. Salmenta kolektiboak egiten dituen LetsBonus enpresaren ikerketa baten emaitzak dira horiek.

Enpresa horren esanetan, euskaldunek "gero eta gehiago" jotzen dute talde-erosketara bidaiari

erosterakoan. LetsBonusek iazko lehen seihilekoan baino %70 bidaiari gehiago saldu ditu aurtengo epe berean Euskadin.

Enpresa horren esanetan, EAEko bezeroek "batik bat mendia, abentura bidaiak edo gastronomia bidaiak" aukeratzeko dituzte, gehienbat Kantabriaren edo Asturiasen, eta gama altuko hoteletan.

## IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen: [lehiaketa@sagardogorenak.com](mailto:lehiaketa@sagardogorenak.com) #gorenak

SARIA: 8 laguntzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berria jakingo da irabazlea).

Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.



WWW.SAGARDOGORENAK.COM



GUZTIOK NORABIDE BEREAN EGITEN DUGU ARRAUN. SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ. LEHEN-LEHENAK IZATEKO. HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.





Inazio Arregi, Martin Garitano, Mireia Larrañaga, Zigor Etxeburua eta Iban Arantzabal Goienako platoan. | XABIER URTZELAI

## Martin Garitano: "Goienak jokatzeko duen papera oso garrantzitsua da"

Goiena taldearen instalakuntzak eta proiektua bera ezagutzen izan zen

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Martin Garitano diputatu nagusia Goiena Komunikazio Taldearen Arrasateko bulegoan izan zen atzo bisitan. Zigor Etxeburuekin –Aldundiko Euskara

zuzendaria– batera etorri zen, Goienaren instalazioak eta proiektua bera lehen eskutik ezagutzeko. Komunikazio talde horrek egiten duen lana eta jokatzeko duen papera azpimarratu zituen:

"Goienak oso paper garrantzitsua jokatzeko du Debagoiengan bizi direnendako ez ezik bailaratik kanpoan gabiltzan debagoiendarrontzako ere. Ni Donostian bizi naiz eta Debagoiengan zer gerta-

## Sortuk berehala hasiko du prozesu eratzaileria

Sententziak "legez kanporatzeen hamarkadari bukaera emateko" balio dezakeela uste dute

I.G./M.B. | ARRASATE

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak arrazoiak eman dio ezker abertzaleko alderdiaren babes helegiteari, aldeko sei eta kontrako bost botorekin. Auzitegiak dio Sorturen sustatzaileei alderdi politikoa eratzeko eskubidea urratu egin ziela Gorenak. Eguaztenean zabaldu zen berria eta atzo, eguena, goizean, Sorturen bultzatzaileek, besteak beste Karmele Agirregabiria eskoria-

tzarrak, agerraldia egin zuten Bilbon.

Maidar Etxebarria Sortuko idazkari nagusiak agerraldian jakinarazi zuenez, "berehala" ekingo diote prozesu eratzailerari, legeztapena jaso ostean eta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak aurreratu ezean, azaroan amaituko dute –EAEko aurreko bozak 2009ko martxoaren 1ean izan ziren–. Bozen ondoren segituko lukete prozesuarekin, bukae-



Sorturen sustatzaileak, atzo, Bilboko agerraldian. | ARGAZKIPRES

ra emateko. Sortuk prozesu eratzailerian oinarri ideologikoak, ildo politikoa, antolaketa eredu eta komunikazio politika eztabaidatu ditu, Etxebarriak esan zuenez. "Ezkerrekoen eta abertzaleen etxea" izango da alderdia. Bestalde, sortzaile figura sortuko

tzen den jakiteko oso baliagarria zait. Horrelako hedabideak, gainera, oso gertu daude herri eta auzoetatik eta ezinbestekoak dira euskararen normalizaziorako nahiz tokian tokiko euskalkien garapenerako". Horri gehitu zion, krisi ekonomikoa tarteko, komunikabide gehienek garai "zailak" bizi dituzten arren, "horiei laguntzeko gure eskuetan dagoen dena" egingo dutela.

### "Blokeo egoera hautsi"

Sortu legezkatzearen harira galdetuta, "ezinbestekoa" zela esan zuen eta hala egin izana berri "ona" zela gaineratu. Ahaldu nagusiaren hitzetan, "euskal gizarteak ez zuen ulertzen ez onartzen ilegalizazioa, legez kanporatzeen garaia agortu da eta, epaitegiek ez ezik, Espainiako Gobernuak ere aurrerapausoak eman beharko ditu eta blokeo egoera hautsi".

Atzo bertan, jeltzaleek, sozialistek eta popularrek Juan Karlos Alduntzin Ingurumen diputatuaren kontra erregistratu zuten zentzuraz mozioren gainean, zera esan zuten: "Gipuzkoako Foru Aldundiak hondakinen kudeaketarako dokumentu bat aurkeztu du eta horren gainean eztabaidatu gura dugu, ez Alduntzin, Ugarte edo Franco-ri buruz. Dokumentu horretaz hitz egiteko bilerak deituko ditugu alderdiekin, hori eztabaidatzen ez badugu beste gutzia antzua delako. Nik espero dut eztabaida zintzo eta ausart baten ostean, adostasunak lortzea".

## Zabala: "Uda lehor eta gorabeheratsua izango dugu"

I.G./M.B. | ARRASATE

Uda estreinatu berri dugu. Atzo, eguena, goizaldean sartu ginen, 01:09an. Azken urteetako udarik luzeena izango da, 93 egunekin, baina, bereziki, eguraldiari erreparatzen diogu. Pello Zabalak esandakoaren arabera, eguraldi politarekin sartuko gara udan, eta aurreratu du "lehorra eta gorabeheratsua" izango dela, hilabete hasieran izandako tenporei erreparatuz gero: "Tenporetako lau egun eguzkitsua eta epelak izan ziren; 37 gradu ere izan genituen. Beste bi egun lainoak hartuta pasa genituen. Euririk apenas egin zuen, ordea. Beraz, beldurtzen naue-na da uda lehorra izatea; hau da, behar baino euri gutxiago egitea", esan du Zabalak. Eta gehitu du gorabehera handiak izango direla: "Bero egiten duenean termometroak oso gora joango dira eta euria ekaitz modura egingo du. Beroa lehorra izango da, hezetan txikikoa".

### Udaberri "koskatsua"

Amaitu berri den udaberriaren errebaso eginda, "beroa" izan dela esan du Zabalak: "Maiatzean 30 gradutik gorako hiru egun izan genituen eta ekaineko lehenengo egunean termometroak 37 gradu harrapatu zituen". Zehaztu du, baina, 17 eta 15 graduko egun asko ere izan direla. Hori horrela, "udaberri koskatsua" izan dela dio Zabalak.

Prezipitazioei dagokienez, apirilean, bi egunean izan ezik gainerako guztietan egin zuen euria.

Arantzazun metro karra-tuko 270 litro jaso ziren hilabete hartan. Maiatzean eta ekainean, berriz, "ez du euri askorik egin", Zabalaren esanetan. Arantzazun, guztira, 120 litro jaso ziren bi hilabeteotan. Horrekin guztiorrekin, eguraldi adituak zehaztu du ez dela udaberri euritsua izan.

# POLTSIKOAN

Goiena.net prest sakeleko telefonoan!

- ▶ Albistek
- ▶ Gaiak
- ▶ Iritziak
- ▶ Parte hartzeko atala
- ▶ Blogak
- ▶ Gida komertziala
- ▶ Irratia
- ▶ Tebista

## Deskargatu!

Behiko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



m.goiena.net



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

# Debagoieneko ospitale berria irekita dago zerbitzu guztiekin martxan

Debagoienara egokitutako ospitalea dela dio Antonio Arraiza gerenteak

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Astelehena ezkerro bete-betean dihardu Debagoieneko ospitale berriak. Asteburuan ekin zioten lekualdaketari, eta lehen egunak ondo joan direla esan du Antonio Arraiza gerenteak: "Zapatuan 08:00etan larrialdietako zerbitzua jarri genuen martxan ospitale berrian, eta goizean zehar, ospitaleratuta zeuden gaixoak pasagenuen ospitale berrira. Arratsaldean prest genituen operazio-gela eta erditze-gelak. Astelehenean martxan zegoen ospitalearen %100. Etxe berri batera sartzen zarenean moduan, beti egoten dira aurretik kontuan hartu ez diren zenbait gauza, baina arazo txikiak izan dira; gaixoak ez dira konturatu ere egin".

Erabiltzaileei dagokienez, gelak gustuko dituztela esan du: "Oheak, koltxoak... gustatu zaizkie. Lehen baino hobeto daude orain".

Ospitale berriak eskaintzen dituen zerbitzuen kasuan zaharrak eskaintzen zituen berak dira, baina areagotzen joango dira, Arraizaren esanetan: "Gure erreferentziako ospitalearekin, Arabako Ospitale Unibertsitarioarekin, elkarlan handiagoa bultzatu nahi dugu. Orain jarri ditugu, adibidez, hematologia, neurologia eta endokrinologia zerbitzuak, baina guztiak Gasteizko ospitalearekin elkarlanean jarri ditugu, hango espezialistak hona ekarrita. Irailan, adibidez, urologiako kirurgia zerbitzua jarriko dugu, hori ere Gasteizko espezialistekin elkarlanean. Datorren urterako onkologiako zerbitzuren bat jarri nahi ospitalean".

Jaioberrien gune berezia ere egongo da eraikin berrian, orain arte ez bezala. Urtean 600 jaiotza artatzen dituzte. Domekan jaio zen lehen umea eraikin berrian.

Eider Egües Bilbao du izena, eta, gurasoak bermeotarrak izan arren, umea Arrasaten izatea erabaki zuten, protokoloak erakarrita.

## Bailarara egokitutakoa

Ospitalea bailarara egokitu dutela azaldu du Arraizak: "66.000 biztanleetara. Baina ez 2012rako bakarrik; bailarako biztanleek datozen 20 urteetan izango dituzten beharretara egokitu dugu. Uste dugu 75 ohe nahikoa direla, baina izaten dira zenbait tontor garai zehatzetan, eta horregatik jarri ditugu 95. Dena den, 110 oheraino



Eider Egues da eraikin berrian jaio den lehen umea. | MAIALEN REGUEIRO

hazteko aukera dugu. Neurri hori dute, adibidez, Zumarragako ospitaleak 100.000 biztanlerekin eta Bidasoakoak 88.000rekin".

Eraikin zaharrari dagokionez, berri egingo dute 2013an: "Han jarriko ditugu espezialitateetako

kanpo-kontsultak, zerbitzu nagusiak eta errehabilitaziorako unitatea. Dena den, garrantzitsua izango da orain ambulatorioan dauden kontsulta batzuk hara pasatzea, ambulatorio oso beteta dagoelako".

## Egin diote transplantea Fernando Riviere Aretxabaletako txikitxoari

Hezur-muina transplantatu diote Bartzelonan

M.B. | ARRASATE

Aurreko egubakoitzean egin zioten hezur-muin transplantea Fernando Riviere 11 hilabeteko haurtxo aretxabaletarrari. Bartzelonako Val de Bron ospitalean egin diote. Oraingoan, ondo erantzun dio transplanteari, nahiz eta oso nekatuta dagoen eta lo asko egiten duen: "Hasierako egunetan amaren titia hartzen zuten. Ez zuten besterik nahi, baina Fernandoren aitak esan du dageneko hori ere ez duela nahi, eta sueroarekin dago", esan du Isabel Kirze ume-txoaren izebak. Dena den, hori

normala dela ere azaldu du, "prozesuaren parte da", gehitu du.

Arratsaldeko hirurak aldera ospitaleko gela utzi eta ebakuntza-gelara eroan zuten Fernando txikia, eta orubete inguru eman zuten han, hainbeste behar zuten hezur-muin transplantea egiten. Transplantea eginda, zelula ama berriak bueltaka ditu bere gorputz txikiaren barruan, eta orain horiek ondo egokitzea eta funtzionatzen hastea da garrantzitsua, gorputza zelula berriak sortzen hasteko. Hala, datozen asteak garrantzitsuak izango dira.

## TOYOTA | EuskoAuto

# AUKERA IBILGAILU BERRIAK 15 UNITATE ERABILGARRI

### TOYOTA AURIS

AURIS 90D Active [2012] DIESELA



DESKONTU BEREZIA %21

PSP: ~~18.950€~~  
DTUA: -3.951 €  
**14.999€**

### TOYOTA AURIS

AURIS 130 1.6 Active [2012] GASOLINA



DESKONTU BEREZIA %26

PSP: ~~18.950€~~  
DTUA: -4.951 €  
**13.999€**



Euskoauto Prever Plana barne. Matrikulazio gastuak ez daude barne.

KONTSULTA ITZAZU EUSKOAUTOREN PREVER PLANAREN BALDINTZAK

TOYOTA EUSKOAUTOREKIN AUTOA FINANTZATUZ GERO, 5 URTEKO GARANTIA DOAN

# EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

BERGARA  
Olabarrena, z/g  
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR  
Olaso industrialdea  
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO  
San Markos errepidea 32  
Tel: 902 345 245

OLABERRIA  
Karobi industrialdea  
Tel: 943 805 926

P

LUZARO ELGOIBAR



- 7.000 m2-ko gunea
- Zerbitzuz hornitua: Ur zikinak hustu, ur depositua bete...
- Urteko 365 egunetan gainbegirata

Autokarabanak eta karabanak gordetzeko parkinga

Kontaktua: 650 76 27 62 • luzaroelgoibar@gmail.com

## ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU  
http://goiena.net/iritzia/



## San Juan eguneko gau magikua

**G**auza jakina da errito eta sinismen paganuak bereganatu zittuala kristautasunak. Udako solstiziua (egun luzeena, gau motzena) San Juan egun bihurtu zeban. Bezperan ipini izan da arbolia San Juan ermiten aurrian. Harrapautakua izan bihar Aretxabaletan, hola kontatzen dau *Ahotsak*-eko lekuko batek: "San Juan bizperie be izeten zan oso inportantia, oso inportantia. Eta oin ekarten daue egunez-eta txopua-ta, ezta. Baiña han zan merittua basarri baten hartzia txopua eurak enterau barik, eta kalera ekarri basarrittarrak jakin barik". Elorrixon Donienatxa esaten jako, "Donibane aretxa"-tik etorriko da. Berba horretan gorde da fosilizatuta Donibane berbia ('Domine Ivan') gure inguruan.

23ko gabian Sanjuan-suak. Sutara, traste zaharrez gain, gauza jakinak botatzen die zenbait lekutan, aurreko urteko lore-sortai, "lora-santuak": errudia, apixua... Eta ezin falta kantak. Aldaera asko izaten dittue, baina hemen doiaz batzuk:

"Artuak eta garixak gorde/ subiak eta zapuak erre/ biba San Juan berde!!" (Deba Ibarrian). Zenbaitetan, "lapurak eta sorgiñak erre". /// "San Juen, San Juen!/ Arrautza bi kolkuen,/ beste bi altzuen./ Subiak eta zapuak eta txar guztiak Erre! Erre!/ Artuak eta garixak eta gauza on guztiak Gorde! Gorde!/ Biba San Juen!" (Elorrixo aldian). /// "Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zan eta/ aurten ere Sain Juan Bautista/ Jesukristoren lehengusua zan Sain Juan Sain Juan Bautista/ Hau da egia dana guztia, konso-latuzeko Euskal Herria!" (Aretxabaleta).

Etxia babesteko, elorri zurixa josten zan atian. Edo lizar adarra. Goizeko ihintzetan moztutako garua botatzen zan etxe aurrian. Eta 24ko egunsentixan ihintzetan ibilaldi bat egin ezkerre, osasuna urte osuan. Eta lora-sortia ezin ahaztu. Aurten Bergarako San Juanen leihaketia antolatu dabe, zeñek lora-sorta polittaua eruan. Politta eta... tokatzen dien lora eta landarekin. Ez dogu pistarik emongo.

## USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | iarregi@goiena.com

## Aurrera '.eus' domeinua

**A**lbiste pozgarria, zalantzarik gabe, euskal hiztunendako eta herritarrendako. 2013tik aurrera, seguruenez, gure helbide elektronikoetan eta gure webguneetan ere .eus sinatu ahal izango dugu. Izan bagarelako, eta baita zibe-respazioan ere. Gure *community*-ak aurrera egin ez ezik indarra eta presentzia du sarean. Baina, euskal *community*-ak ez ezik, bretoiek (.bzh), korsikarrek (.corsica), galegoek (.gal) eta eskoziarrek (.scot) ere aurrera egin dute.

*Puntu Eus* domeinuaren bultzatzaileak urtarriletik egon dira erabaki honen zain; orain, abendura arte itxaron beharko dute behin-behineko erabakia jasotzeko.

"Etxia babesteko,  
elorri zurixa josten  
zan atian; edo  
lizar adarra"

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Manowar

Asier Azpilikueta  
http://berria.info/blog/azpilikueta/

Aitor dut.

Heavy metala gustatzen zait.

Izugarri.  
Eta heavy metalak bere baitan dituen genero ia guztiak ditut gustuko.

Baita autoparodiatik hurbilena dagoena ere.  
Erran nahi baita Manowar eta gisako taldeek egiten duten musika atsegin dut.

Arras.  
Altzairuaren erresuman bizi ez zarenok jakin behar duzue Manowar taldeak biltzen dituela heavy metal klasikoak izan ditzakeen topiko eta gehiegikeria guztiak.

Manowar duela 30 urte baino gehiago sortu zen arren, bere taldekideek, oraindik, gihar handi samarrak eta txima luzeak erakusten dituzte, eta larru beltzeko arropekin janzten dira.

Agertokira Harley Davidson motoen gainean azaldu ohi dira.

Gure belarriek jasan dezaketen mugatik haratago igo ohi dute haien ikuskizunen bolumena -Guinness errekorra lortu zuten behin horregatik-.

Eta kontzertuen erdian Manowarreko kideek baino 30 urte gutxiago dituzten neska lirainak agertu ohi dira, musikariei laztan eta musu bustiak emateko. Rock & Rollaren zirkua.

Eta zer erran Manowarren kanten hitzei buruz.

Edo zer ez erran.  
Balada metereologikoak egiten ez dituztenean, heavy metalaren ustezko epika eta Erdi Aroaren ustezko loria neurrigabeko bortizkeria batekin nahasten dituzte, eta kanta ia guztietan antzeko hitzak erabiltzen dituzte: *Metal erregeak, Altzairuzko bihotza, Koroa eta eraztuna (Erregeen ahuena), Agurtu eta hil, Erregeen odola, Mundua borrokatzen, Haize beltza, sua eta altzairua, Gerra santua, Ezpata haren boterea, Indarrez hil, Mailuaren zeinua, Altzairuaren garaipena...*

Txorakeriak bertzerik ez dituzte erraten. Benetan. Eta hala ere gustuko ditut. Haien musika gozatzen dut. Ez baititut serio hartzen. "Borrokatu koroaren alde. / Borrokatu eraztunaren alde. / Mundua borrokatzen ari gara. / Erregearen alde borrokatzen gara".

Dutxan halakoak kantatzeko gai naiz.

Eta, hala ere, ez ditut nire sentimendu errepublikanoak kolokan jartzen, konparazio batera.

Eta hau guztia azken hilabeteetako gaiaren karietara: Nafarroaren ditzosozko konkista. Badakit ez naizela hau erraten lehen, baina, ez ote zaigu eskutik joaten ari?

Ados.  
Garaileen historiografia ofizialari aurre egin behar zaio.

Espainiako printzeak eta haren bufoiek botatzen dituzten ergelkeriei argudio sendoeikin erantzun behar zaie.

Oso dibertigarria izan zen Urtezahar gauean eta inauteritan zaldunez mozorrotzea.

Nafarroa Bizirik egiten ari den kultur lana alimalekoa izaten ari da.

Eta bihar Iruñeko karririk ez jendez beteko ditugu, behinola, Nafarroa estatua izan zela gogoratzeko.

Ados. Baina serioegi hartu gabe, ez?

Hau da, ahantzi gabe Erdi Aroaren bukaerako kontu baten inguruan ari garela; ahantzi gabe Erdi Aroak gauza txiki txar batzuk izan zituela.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo

**Publizitatea** Mireia Larrañaga,

Amala Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,

Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**

**ARRASATE 20500:**

Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**

**ARETXABALETA 20550:**

E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** NA-3329/2000


**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 20.100 ale

**Difusioa:** 19.951 ale



**Eusko Jaurjaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Olarte, horrela jarraitu!

**Juan Luis Arexolaleiba, Atarratz Etxebarria, Nagore Iraola, Mireia Muruamendiaraz eta Saioa Ojanguren**

(Arizmendi Ikastolako Olarte guneko 5 urteko neska-mutikoen gurasoen izenean)  
Arrasate

Gaur bukatu dute gure neska-mutikoen haur-hezkuntza zikloa. Eta Arizmendi Ikastolako Olarte gunean aritu diren 36 neska-mutikoen gurasoak pozik gaude. Pozik gaude gure umeentzat horren garrantzitsuak diren urteetan bertan jaso eta bizi izan dugunagatik.

Egia da azkenaldian, besteak beste horma ugari botaz, aldaketa sakonak ekarriko dituen hezkuntza proiektu berri bati eman zaiola hasiera, eta eskertzeoak dira halako ekimenak.

Dena den, garbi dugu gure asebetetasun eta pozaren arrazoi nagusia bertan lan egiten duten pertsonak direla. Eremu guztietan pertsonak badira garrantzitsuena, zer esanik ez gure umeen heziketaz ari garenean. Publikoki eskertu nahi dugu hainbat urtez egunerokotasunean gure neska-mutikoen eta guk jaso duguna: gure herriarekiko maitasuna, euskaraz natural bizitzea, hurbiltasuna eta alaitasuna harremanetan...

Erlojuak ez du etenik, bizitza aurrera doa eta erronka berriak ditugu aurrean. Nahiko genuke aurrerantzean biziko ditugunak zuekin bizi izandakoaren antz handia izatea. Horregatik eta beste gauza askorengatik eskerrik asko, Maider, Nerea eta Olarteko langile guztioi!

## Urdirozko Udalekuan ibilitakoen topaketa

**Olatz Olaso, Larraitz Madinabeitia, Ana Carpintero, Amaia Madinabeitia eta Estepan Plazaola**  
Bergara

Urdirozko Udalekua 1982tik 2006ra izan zen martxan eta 2006an itxi zen. Hori dela eta, azkeneko urteetan udalekuan jardun zuen taldeak komenigarritzat jo du udalekuaren historia eta bertan ibilitakoen bizipenak liburutxo batean eta DVD batean jasotzea.

Hori dela eta, Urdiritzen begirale, sukaldari, laguntzaile... ibilitako jendea bildu nahi genuke datorren uztailearen 7an.

Lanaren barruan ahalik eta jende gehienaren ekarpenak jaso nahi genituzke eta helburu horrekin hiru bat tokitan (Bergaran, Hernanin eta Zarautzen) eskualdeko *urdiroztarren* topaketak egitea

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

pentsatu dugu. Lehenengoa Bergaran egingo dugu eta bertan elkartu nahi ditugu Debarroko eta inguruko lagunak, talde dinamika batzuen bitartez Urdirozko oroitzapenak, anekdotak, bizipenak...

jasotzeko. Aldi berean, bilkura aprobeztatuko dugu jasota dauzkagun argazki eta material batzuk erakusteko eta jendeak izan ditzakeen material eta argazki berriak jasotzeko ere.

Interesatuei aurrerago bidaliko diegu informazio zehatzagoa, baina 09:30ean elkartzea planteatzen dugu, eta 3-4 orduko topaketa izatea.

Saioak egoki antolatu ahal izateko komeni zaigu zenbat parte-hartzaile izango garen jakitea, eta horregatik datu-base txiki bat osatu dugu izena emateko. Horretarako helbide honetan sartu behar da: <http://www.udalekuak.eu/topaketa>.

Egun horretan topaketara etortzerik izan ez baina aurrera begira informazioa jasotzen jarraitu nahi dutenei ere formularioa betetzeko eskatzen diegu.

Animo, bada, urdiroztarrok, eta uztailearen 7ra arte. Zabaldu mezua.

## Atez atekoa, errausketa, estetika, dirua, alderdiak...

**Josu Zugasti Juaristi**

Arrasate

Atez ateko zabor bilketaren inguruko gutunez bat baino gehiago gogait eginda egongo dela jakin arren, hemen botako ditut hausnarketa batzuk, irakurri nahi dituenarentzat.

Bat: Bereziki aztoratzen nau garestia dela eta, EAJ zein PSOEkoek (besteak beste) jartzen dituzten eragozpenak. Hauen programa politikoa ondo puztuta zeukaten Pasaiaiko kanpoko portua edo AHT. Izan ere, bata bestetik 100 km-ra dauden hiru hiriburu lotzeko hain ingurune menditsuan eraikitako *Euskal Y*-aren aurrekontua (aurreikuspen hutsa, betiko desfaseak gerora gehituko zaizkio, jakina) 6.000.000.000 eurokoa da, kontuan hartu barik eguneroko mantenua eta Iruñearekin ipini nahi dioten lotura zentzubakoa, Aralarko mendilerroko natur babesgunean zehar. Bestalde,

Pasaiaiko kanpoko portuaren kostu aurreikuspena 750.000.000 eurokoa zen (gehi mantenua), Bilboko portua 100 km. eskasera egonik, gainera. Hauei erantsi beharko litzaizkioke diruaren inguruko batere ardura barik planteatu diren proiektuak: Urdaibaiko bigarren Guggenheima eta AP-1 autobidearen Eibar-Gasteiz adarra. Horrez gain, errauskailuak 400.000.000 euroko kostua du eta, birziklatutako materiala ez bezala, bertako errauts toxikoak ezin dira merkaturatu. Eta errauskailuan gastatutakoa epe oso luzera errentagarri bihurtzeko, birziklapena igotzea saihestu behar da.

Bi: Estetikaren argudioak ez du oinarri etikorik. %70etik gora birziklatzea dakarren proiektu baten aurkako jarrera irizpide estetikoetan oinarritzea nazkagarria da. Ekologistak garela esango dugu gero, eta oso gaizki iruditzen zaigula Brasilgo oihanen bat moztea papera egiteko; baina geuk sortzen dugun kutsadura (geure ondare naturalaren etengabeko suntsiketa eta gure zaborraren masifikazioa, adibidez) denean murriztu beharrekoa, bururatzen zaigun argudioa "edukiontzia politikoa" direla (!) da. Benetan, hau da EAJ, PSOE eta PPren maila politikoa?

Hiru-lau gauza dauzkate kontra, baina: Bruselak argi esan duela ez direla errauskailu gehiago eraiki behar, atez atekoa jarri den herrietan jendearen erantzuna gero eta hobia dela eta martxan hasi zenean baino gehiagok babesten duela. Lau urte barru, Gipuzkoa askoz garbiagoa denean (*garbi* hitzaren benetako esanahiarekin, garbi egoteak ez du esan nahi-eta zikinkeria alfonbra azpian gordetzea), gogoratuko ditugu alderdi batzuen argudio dekadenteak eta jarrera negargarria. Pazientzia.

## Aintzane Oiarbideri erantzuna

**Ander Lizarralde Lizarralde**

Oñati

Herriari galdetu behar zaiola diozu, Aintzane. Bilduk orain daukala horretarako aukera. Eta zer galdetu behar du? Atez atekoa bai edo ez? Ala errauskailua bai edo ez? Ala errauskailua Bergaran bai edo

ez? Pentsatzen dut, Aintzane, Bergaran Gipuzkoa osorako errauskailu bat jartzeko arazorik ez zenukeela izango, dirudienez errauskailuek inolako toxikotasunik ez baitute zuzetat. Aurreko asteko gutunean jartzen zenuen Bilduko Alduntzinek berak ere aitortzen duela errauskailuak ez direla toxikoak. Nik ez dakit nondik atera dituzun Alduntzinen hitz horiek. Zuk ondo dakizu Bilduk behin eta berriz esan duela errauskailuek ingurumena kutsatzen dutela eta gure osasunean gaixotasun larriak (minbizi mota ezberdinak, arnas arazoak...) sortzen dituztela. Errauskailuetan dena nahastuta erretzen da (letxuga hondarrak, medizina, ogia, pilak, boligrafoak...) eta hondakinon errekontzaren ondorioz oso toxikotzat hartuta dauden substantzia kimikoak sortzen eta eraldatzen dira: dioxinak, furanoak, merkurioa, artsenikoa, nanopartikulak, eta abar luze bat... eta oraindik identifikatu ere egin ez diren beste asko. Substantzia hauek, alde batetik, aireratu egiten dira errauskailuetako tximinietatik; bestetik, errauskailuaren filtroetan geratzen dira errauts toxiko gisa (erretakoaren %5-8); eta azkenik, errauskailuaren oinarrian geratzen dira eskoria toxiko bezala (erretakoaren %20-25). Ez dakit nondik atera duzun Alduntzinek errauskailuak ez direla toxikoak esan duela, gogoan baitugu Larraitz Ugartek (Bildu), adibidez, Goienan bertan egin zituen adierazpenak: "Zubietako errauskailua erabat toxikoa da". Eta gogoan baitugu ekainaren 4an, prentsurreko batean, Bilduko 50 alkatek esan zutena: *"Ez dugu planta toxikorik nahi gure herrietan, ezta lurralde osoan ere"* (*Deia*). Eta beste hamarnaka adibide ere aurkitu ditugu. Baina ez du Bilduk bakarrik esaten errauskailuak toxikoak direla: ELA, CCOO, Greenpeace, Ekologistak Martxan, IU-Ezker Anitza eta Aralarrek (eta abar luze batek) ere esan dute behin eta berriz. Eta 2008ko ekainean Europako 33.000 sendagilek ere gauza bera esan zuten; eta OME (Osasunerako Mundu Erakundea) ere argi mintzatu zen errauskailuetatik irteten diren dioxinen arrisku kezkarriaz. Zuek zarete errauskailuen toxikotasuna ukatzera iritsi zareten bakarrak. Zuek ez birziklatzearen aldeko apustua egin duzuen bakarrak

(bosgarren edukiontzia disimuluaz). Zuek Gipuzkoa enpresa pribatuei entregatu diezuenak. Zuek. Zuek, PP eta PSOE.

## Arkaitz Biaini

**Ramon Ugalde Gorostiza**

Arrasate

Joan zen ostiraleko GOIENAN Arkaitz Biainen gutun bat argitaratu zuten Arrasateko hirigintza planari buruz eta Udaltzeko harrobiaren gainean. Bere idatzia Arrasateko Ezker Abertzalearen eta beste 400 pertsonaren izenean bidali du. Bide batez, esan dezadan Arrasateko Udalak HAPOri egindako ekarpen bakar bati ere ez diola erantzun, argi utzi du udal horren izaera antidemokratikoa.

Biainek Canteras Campazar SARI leporatzen dio "herriaren ondasun naturalak kaltetzen dituela interes pribatuetarako". Udaltzetik kareharria ateratzea herriaren ondasun naturala kaltetzea omen da Biainentzat. Baina Udaltzetik kareharria ateratzea hain txarra baldin bada, bera zinegotzi izan zenean Arrasateko Udalak zergatik egin zituen hainbeste obra erraldoi eta absurdoak Udaltzeko edo inguruko kareharria erabiliz? Biainen jarduera instituzionalean ez dut sumatu kareharriaren kontsumoa murrizteko ahalegin minimorik, gutxienez Kanpazarko harrobiaren kontrako bere gutuna sinesgarria egin dezakeenik...

Zeharka, esaten du Kanpazarko harrobiko materiala Aramaion erabiliko dutela AHTko obrak egiteko. Baina ez du esaten AHTko obrak Arrasaten ere egiten direla ez eta bere udal taldeko zinegotzi batek AHTko desjabetzeak sinatu zituela ere, eta Arrasateko Udalak diru pila bat kobratu zuela lurrak AHTri saltzeagatik edo uzteagatik. Barregarria da krisi ekonomikoaren ardura Udaltzeko harrobiari botatzea enpresa handien interesak "elikatzen" dituelako. Udala izan da bera zinegotzi izan zenean eraikuntza enpresa handiekin tratuak egin dituen. Beste gauza pare bat ezkututzen ditu: Arrasateko enpresa kapitalista handiena berak zuzendutako Arrasateko Udala dela eta HAPO dela kapitalismoa garatzeko tresna eraginkorra.

Plan Orokorra da Arrasateko lur guztia kapitalaren menpe jarri duena. Udala da modu arbitrarioan lur zati bakoitzari zama fiskal konkretu bat jarri diona, Udala da herriko espekulatazailer nagusia, eta praktika kapitalista toxikoenaren mugak gainditzen dituen. Udala izan da HAPON 500 etxe baino gehiago aurreikusten duena. Nondik ekarriko dute Plan horretan planifikatuta dauden eraikin guztiak eraikitzeko materiala?

**Javier Goienetxea** | Konfekoop euskal kooperatiben konfederazioko presidentea

# "Mundura zabaldu garen modu berean, ez dugu jakin gure eredu kooperatiboa zabaltzen"

- ▶ Kooperatiben nazioarteko urtean, eredu kooperatiboaz dihardu kooperatiben presidenteak
- ▶ "Pertsona da inportanteena eta pertsonok hartzen ditugu erabakiak kooperatibetan", dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Kooperatibak, erabakiak harterakoan, malguagoak direla eta pertsonen interesen arabera hartzen dituztela erabakiak. Horixe eta krisiaren aurrean hobeto egokitzen direla nabarmendu du Konfekoop euskal kooperatiben konfederazioko presidente Javier Goienetxeak (Lekeitio, 1960).

**Zelan egin diote aurre krisiari kooperatibek orain arte?**

Sektorearen arabera, modu ezberdinean, baina, gehienbat, lan asko eta ondo eginda.

**Eta zergatik egiten diote hobeto aurre krisiari kooperatibek?**

Geu gara gure erabakien jabe; geuk hartzen ditugu erabakiak, ez dator inor kanpotik erabakiak hartzera. Geuk erabaki genezake soldatak murriztea, lanordu gehiago egitea...

**Bada uste duenik kooperatibetan, langile guztiekin adostu behar direnez erabaki estrategikoak, astunago edo beranduago hartzen direla erabaki horiek sozietate anonimoetan baino.**

Izan daiteke. Modu demokratiakoan, kooperatibako estamentu guztiekin adostuta, langile guztiok hartzen ditugunez erabakiak, batzuetan, luze jo dezake prozesuak. Baina, horren aurrean, uste dut abantailak gehiago direla. Esate baterako, ziurtasuna ematen duelako erabakia bakar batek hartu beharrean askoren artean eta adostasunez hartzeak.

**Ze zailtasunekin egiten dute topo kooperatibek hemendik kanpo, Txinan, Indian, Brasilen... zabal-tzen dituztenean lantegiak?**

Munduan kooperatibak ezagunak dira. Espainian 22.000 inguru dira. Munduko 300 kooperatiba handienak batuz gero, bederatzigarren potentzia ekonomikoa izango lirake munduan. Munduko langileen %15 kooperatibaren batean daude. Baina egia da hemendik mundura zabaldu garenean, ez dugula jakin gure eredu kooperatiboa zabaltzen. Hori da gure erronketako bat.

**Hemengo kooperatibek Txinan zabaldu dituzten lantegiak ez dira kooperatibak?**

Ez. Sozietate anonimoak dira. Hemengo kooperatibena da jabetza, eta balioak eta zabaltzen ditugu, baina izaera ezberdinekoak dira, eta, egia esan, hor badaukagu zulo beltz moduko bat.

**Kooperatibak lehiakorrek izatea da kontu bat, eta beste bat koo-**

**peratiben eredu mundu mailara hedatzea...**

Bai. Kooperatiba zenbat eta handiago izan, lehiakortasunari eutsi beharrez, uneren batean, zerbait galtzea normala da, balio batzuk... Langileen parte hartzearena eta, galtzea, arazo bihurtu daiteke, baina ez da samurra oreka horri eustea: mundu mailan, lehiakorrek izan eta kooperatiben balioei eustea.

**Zer da Konfekoop eta zein da haren egiteko nagusia?**

Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibak batzen dituen konfederazioa da. Arlo edo sektore ezberdinetako kooperatiba-federazioak batzen dira bertan. 849 kooperatiba batzen gara bertan. Kooperatiba guztien erdia-edo gaude bertan eta euskal kooperatibek fakturatzan duten %90 inguru gure konfederazioko kide direnek fakturatzan dute.

**Azkeneko urteotan kooperatiben kopuruak gora egin du?**

Bai, bai. Eustaten azken datuen arabera, 91 kooperatiba gehiago sortu dira azken urtean. 1.500 lanpostu sortu dira. Aldiz, sozietate anonimo ugari itxi egin dute eta 10.000 lanpostu inguru galdu dituzte.

**Krisiaren aurrean, kooperatiba eredu balekoa dela ikusten da...**

Bai; apirilera arte 94 kooperatiba berri sortu dira. Bide honetatik jarraituz gero, inoiz ezagutu bako kopuruetara helduko gara. Argi dago krisi sasoiari kooperatiba dela enpresa eredu egokia. Kooperatibak dira, kopuruari dagokionez, hazi egin diren bakarrak. Guztira, iaz, 500 lanpostu berri sortu ziren kooperatibetan, krisiak krisi.

**Zergatik kooperatiba?**

Kooperatiba txikien legea indarrean jarri zen orain dela urte batzuk, eta horrek ahalbidetzen du bi lagunen artean kooperatiba bat sortzea. Horrek erraztu egin du, eta izan du zerikusia. Bi pertsonak, proiektu batekin eta laguntza tekniko finantzarioarekin, sor dezakete enpresa kooperatibo bat. Etxean geratzea baino hobe da, ezta? Azkenaldian, zerbitzu arloko kooperatiba txiki asko sortu dira; industrialak gutxiago. Eta, gainera, sortu diren horiek ez dira desagertu.

**Kooperatiben ezaugarri bat bada kapitala pertsonen mesedetan egin behar dela, eta ez pertsonak kapitalaren mesedetan. Hori posible da gaur egungo sistema kapitalistan eta globalizazio honetan?**

Hemen gaude, haziz goaz, pertsonok osatzen ditugu koopera-



Javier Goienetxea, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**"Azkeneko urtean, 91 kooperatiba gehiago sortu dira, Eustaten arabera"**

**"Sozietate anonimo ugari itxi egin dute, eta 10.000 lanpostu galdu"**

**"Nazioartera zabaltzeko behar da produktu on eta lehiakorra"**

**"Kooperatibak finantzatzeko behar-beharrezkoa da Euskadiko Kutxa"**

tibak, eta irabaziak edukitzea baino garrantzitsuagoa da lanpostuei eustea. Jakina, irabaziak beharrezko dira geure eredu sendotzeko eta hazteko, baina ez dezagun ahaztu: pertsona da inportanteena eta pertsonok hartzen ditugu erabakiak, eta ez kapitalak.

**Zer egin behar da nazioartean geroago eta gehiago saltzeko?**

Produktu on eta lehiakorra edukitzea da gakoa.

**Zentzurik badu etxetresnak, hemen, Arrasaten, egiten jarraitzeak?**

Zaila da hemen halako produktuak ekoizten jarraitzea, munduko beste toki batzuetan askoz ere merkeago egiten dituztenean. Hala ere, esan behar dut nazioartekotzeak hemen ere lanpostuak sortzen dituela eta, esaterako, kanpoan ere kokatuta dauden hemengo enpresek hemen ere sortzen dituztela lanpostuak, kontraesankorra iruditzen arren.

**Finantza merkatuen krisi latz honetan, Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa bat egitea erabaki dute...**

Erkide kreditu kooperatibaren barruan federatuta dauden bi finantza erakunde dira, eta logikoa zen bat egitea. Eta ona da biek bat egitea.

**Egoerak behartuta?**

Prozesu naturala da, baina seguru egoera berezi honek bat egite prozesua azkartzea ekarri duela.

**Zein da Euskadiko Kutxaren egoera?**

Ona. Oso fidagarria da. Gauzak ondo egin dituzte. Erabakiak lan bazkideek hartu dituzte, eta zuhurrak izan dira, esaterako, higiezin inbertsioetan sartzeko orduan.

**Zenbateraino da inportantea Euskadiko Kutxa?**


Ezinbestekoa da. Mondragon taldeko zati garrantzitsua. Bihotza? Burua? Kooperatibak finantzatzeko behar-beharrezkoa da. **Kooperatibek beren benetako izaera galdu dute?**

Kooperatiba handietan gerta daiteke benetako izaera eta zentzua galtzea. Garrantzitsua da lana ondo egitea, efizientzia. Egiturak zelakoak diren, goi karguak zelakoak diren, langileak zelakoak diren, laneko giroa... horrek guztia baldintza dezake. Ikusi dugu, gertuan ere, kooperatibak beste enpresek baino hobeto doazela; enpresa asko itxi dituzte, kooperatibarik ez, ordea.





# Debagoieneko GREMIOAK



## AROSZTEGIAK

### AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tari-mak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e. arrasate@euskalnet.net](mailto:e. arrasate@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

## ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

## LOREZAINZTA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## DUELA 10 URTE

2002-06-23

## Koadrilak, sanjuanetako arima

Duela hamar urte ere San Juan jaiak izan ziren Arrasateko albiste nagusi. 2001ean koadrilek jaiei emandako bultzada berretsi eta 2002an ere herri bazkaria eta makalaren igoera egin zuten San Juan bezperan. Hilaren 25ean, gainera, Koadrilen Eguna ospatu zuten eta, besteak beste, txarangak giro-tutako *Olinpi-poteoa* eta bazkaria egin zuten gaztetxean. Urte hartan giro ederra jarri zuten gazteek; aurten ere hala izango da.



Koadrilak, plazan, makala igo ostean. | ARRASATE PRESS

2002-06-28

## 'Txiri'-ren omenezko kontzertua

1996an auto istripuan hildako Iskanbila taldeko Haritz Etxeberria *Txiri* abeslaria omenezko kontzertu berezia egin zuten duela hamar urte. Iskanbila, Des-kontrol eta Zakarrak taldeek jo zuten eta gaztetxea txiki geratu zen; sekulako jendetza batu zen. Zakarrak, Arrasateko oi! musikaren talde aitzindariak, 1995a ezker ez zuten kontzerturik ematen, eta, horregatik, sekulako ikusmina piztu zuen jaialdiak.

## DUELA 5 URTE

2007-06-19

## Garaia lehen eraikina

Duela bost urte inauguratu zuten Garaia Berrikuntza Guneko lehen eraikina: Eraikin Modularra. Bederatzi milioi euroko inbertsioa izan zen. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen ekitaldian: "Euskal gizarteak duen erronkarik handiena da berrikuntza, eta ez dago aukera hori galtzerik", adierazi zuen orduan.

## ARRASATE

**Antonio Murillo** Kajoi tabernaren bestaldean 25 urte egin ditu eta ospakizunak amaitu berri dituzte. Egunerokoaz gain, arrasatearren aisialdia Arrasaten geratzeko lan handia egin du | JOKIN BEREZIARTUA

# "Arrasatek 25 urteotan eman digun guztia eskertu gura dugu; asko izan da"

Herriko Plazan, Kajoi tabernako barraren bestaldean, 25 urte egin ditu Antonio Murillok (Arrasate, 1963), eta urteurreneko ospakizunak asteon amaitu dituzte. Arrasatearren aisialdia Arrasaten geratzeko delako esango du, eta horregatik antolatatu izan dituzte denetariko ekintzak urte hauetan guztietan.

## 25 urteotan asko aldatu da Arrasateko giroa?

Azkenaldian giroa beherantz badoa ere, duela 25 urte ez zegoen azken urteetan izan dugun giroa. Orduan tabernak 02:30 alde-iraixten zituzten. Alde horretatik *hiritartu* egin garena esango nuke. Era berean, lehen, txikiteoa zegoen egunero eta orain, ez. Adin aldaketa ere nabaria da: lehen, jende nagusiak jartzen zuen giroa; hau da, giroaren guneak adineko jendeak zehazten zituen. Orain, berriz, gazteek *agintzen* dute.

## Urteurrena ospatzeko hainbat ekintza egin dituzue. Nola joan dira?

Joan den zapatuan Governors taldearen kontzertua arrakasta borobila izan zen, eta aurretik egin ditugun ekintzak ere oso ondo joan dira. Martitzenean izan zen urtebetetze eguna eta eguaztenean Txikitxu-Arrostaitz dantzataldekoek omenaldi txiki bat egin ziguten. Oso pozik gaude.

Ekintzen helburua izan da herriari eman digun guztiaren zatitxo bat bueltatzea. Urtebetetzea gure artean ospatzea erraza da, baina ekintza horien bidez eskertu gura izan dugu 25 urteotan Arrasatek eman digun guztia; asko izan da. Urte asko direnez, lagun asko eta etsai batzuk ere egin ditugu. Gu onenarekin geratzen gara; eskerrik asko, lagun duguzuenoi!

## Aurten, bereziki, baina betidanik antolatu izan dituzue ekintzak...

Jendeak pentsa dezake orain hasi garena ekintzak antolatzen, baina betidanik egin izan ditugu: kontzertuak, antzerki saioak... Kontua da maiztasun finko barik antolatu izan ditugula.

## Herriko Plazan egiten diren hainbat ekintzak zerikusi zuzena dute Kajoi tabernarekin. Zergatik?

Egindako irteera batzuetan ideiak hartu izan ditugu. Garagardo jaia ezagutu eta hona ekartzea pentsatu genuen, errugbikoekin batera. Gure ideia izan zen, baina haiek gauzatu dute. Ardo eta Gaztaren Egunaekin antzeko zerbait gertatu zen: hiru lagun arteko irteera baten ezagutu genuen eta hemen egiteko lanean hasi ginen. Mondrakoei antolakuntza eurak eramatea proposatu genien, eta aurrera. Horrekin lortu gura duguna da herrian

## HERRITARRAK



Antonio Murillo, Kajoi tabernaren atarian, Erdiko kalean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Jendea hemen badago saia gaitzke; Gasteizera badoa, akabo"

"Udalak jaietarako ekarpenak egiteko aukera eman digu, oso polita izan da"

giroa sortuko duten ekintzak antolatzea. Jendea hemen bada, ostalariok horiek erakartzeko saiakera egin dezakegu. Herri-tarrak Gasteizera badoaz, berriz, akabo.

## Sanjuanetan gaude dagoeneko. Dena gertu?

Bai. Aurten polita izan da Udala eragile ezberdinongana etorri dela egitaraua osatzeko orduan ideiak emateko. Guk geuk ere ekarpenak egiteko aukera izan dugu, eta hori oso polita izan da. Ideiaren batek aurrera egin du –denak gauzatzea ezinezkoa delako– eta programan jaso dira. Garrantzitsuena da hainbat herritar batu garena sanjuanei bultzada emateko asmoz, erakar-garriagoak izan daitezten. Izan ere, jende askok merezitako oporrak hartzen ditu, baina herrian gertzen garenondako behar-beharrezkoa da parte hartzea. Bada, datoren urtean ere bide beretik segitu behar da.

## Argazkilaritza da zure zaletasun nagusia. Noiztik?

Anaiak bi urte gehiago ditu, eta jaunartzean argazki kamera bat oparitu zioten. Orduan piztu zitzaidan zaletasuna. Arrasaten argazkilaritza handiak daude; aspaldi, jende gazteaz osatutako ASA izeneko talde bat zegoen, baina desagertu egin zen.

Lau lagun artean irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu genuen eta duela zortzi urte liburu bat atera genuen hainbat argazkilariren ekarpenekin. Helburua izan zen argazkilaritzak erakartzen dituen lagun ezberdinak elkartu eta Arrasateko ahalik eta irudi politena ematea. Estatutuetan bertan jasotzen da helburuetako bat dela Arrasatearen gainean dagoen pertzepzioa aldatzea. Orain, beste proiektu baten gabilta, baina ezin dizut ezer aurreratu. Zenbait ikastaro ere eman ditut.

## NIRE HERRIAN

### HERRIA BERA, EZBERDINA DA

Herria bera gustatzen zait, ezberdina da. Ez da herri estereotipo bat: ez da turistikoa, baina era berean ez da lo dagoen herria, inondik inora. Hainbat aukera eskaintzen dizkit Arrasatek. Bestalde, hiria bera nola diseinatuta dagoen ere asko gustatzen zait; Erdi Aroko gunea eta langileen auzoak batzen dira metro gutxian.

### INDUSTRIAREN OREKA FALTA

Orain bertan ez zait bururatzen gauza konkreturik Arrasatek zer ez zaidan gustatzen esateko. Lehen, industria larregi zegoen herrian eta orain, gutxiegi, akaso. Bere garaian ez genuen jakin orekari eusten industriaren eta beste sektore batzuen artean. Orain, berriz, industria oso azkar ari da desagertzen.

# HERRIAK



Kalitate ziurtagiria jaso duten komertzio arrasatearrak. | IBAI-ARTE ELKARTEA

## Kalitate handiko dendak

- ▶ UNE 175.001 kalitate ziurtagiria jaso dute Arrasateko 21 komertzioek
- ▶ Ibai-Arte elkartearen lana eta aspaldiko apustua dago horren atzean

JAIONE CARPINTERO | ARRASATE

Euskaldendak Merkataritza Konfederazioak 2011ko UNE 175.001 kalitate ziurtagiria eman die bailarako 23 komertzioi -Arrasateko 21 eta Oñatiko bi-. Arrasate, horrela, Euskal Herrian kalitatezko komertzio onenak dituen bigarren herria bilakatu da, Basauriren atzetik (26 komertzio saritu izan ditu-eta).

Joan den ekainaren 3an banatu ziren UNE kalitate ziurtagiriak Zumaian. Euskal Autonomia Erkidegoko 26 herritako 144 komertzio izan dira aurtengo lehian, eta, azkenean, 122 komertzioek jaso dute bermea. Ziurtagiri horren bidez, besteak beste, bezeroari arreta, emandako zerbitzua eta langileen profesionalizazioa aitortzen da.

UNE 175.001 ziurtagiriak kalitate-parametro batzuk izatera behartzen ditu komertzioak: besteak beste, salgai dituzten artikulak ondo erakustea, lokalak ondo argizatzea eta tenperatura egokian izatea, langileak abegitsuak izatea eta etengabe hobetzeko egiten duten lana hartzen da kontuan.

### Arrasatearrak nagusi

Arrasateko komertzioak izen handia hartzen ari dira gure mugetatik kanpo; izan ere, ekainaren 3an, Zumaian, UNE 175.001

kalitate ziurtagiriak banatzeko ekitaldian, Arrasate protagonista nagusietako bat izan zen. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegotik saritutako komertzio gehien dituen bigarren herria da urte honetan Arrasate, eta Gipuzkoako lehen postuan kokatu da.

### Ibai-Arteren lan handia atzean

Horren guztiorren atzean Ibai-Arte elkarte arrasatearra dabil, izugarritzko lana eta aspaldiko apustua eginda. Elkarrekin gogor dihardu lanean herritarrei ahalik eta zerbitzu onena emateko asmoz, eta dagoeneko igartzen hasiak gara lan horren emaitzak.

"Lehen, bat-batean egiten zen ziurtagiri hau jasotzeko prozesua. Iaz, Eusko Jaurlaritzak etengabeko prozesu bat izatea proposatu zuen, urtebeteko lana, alegia",

azaldu digu Ibai-Arteko kide Jesus Mari Elkorok.

Hori dela eta, jada ezin da herrian zerbitzuen artean zabalduko joera hau gelditu; izan ere, herriko beste hainbat komertzio eta zerbitzuek 2012ko UNE 175.001 kalitatezko ziurtagiria eskuratzeko eskaera egin dute. Urtebeteko lan handia dute aurretik komertzio horiek, baita elkarrekin berak ere. Ibai-Arteko gogor egingo du lan bezeroei ahalik eta zerbitzu onena emateko helburuarekin. Hala ere, erronka beste komertzio eta saltokiek ere pauso hori ematea da, eta bezeroei ahalik eta zerbitzu onena ematen segitzea.

Ziurtagiria jaso duten 21 komertzio horiez gain, aurreko urtetik hasita beste sei saltokik bikaintasunerako prozesuan dihardute, "bikaintasuna helbu-

ru" Q Urdina eskuratzeko bidean, hain zuzen ere. Horrek bigarren mailako ziurtagiri bat izatea bermatzen die saltokiei.

Arrakasta horren ostean, beraz, argi geratu da Arrasateko dendak bizirik daudela eta taldearen indarrean sinesten dutela. "Gauzak ondo egitearen zigu-lua da, egunez eguneko lanarekin lortu duguna, eta ez da kasualitatea Gipuzkoako beste herri batzuetan ez dauden kopuruak Arrasaten lortu izana", azaldu du merkatarik elkarrekin.

### Pozik, egindako lanarekin

Ibai-Arte harrotasunez eta erantzukizunez hartu du bazkideetako askok kalitatezko ziurtagiria jaso izana.

Dagoeneko lanean hasiak dira 2012ko UNE 175.001 kalitate ziurtagiria jasotzeko helburuarekin, eta herriko komertzio gehiagori dei egien die bertan parte hartzeko. Hala ere, ziurtagiria jaso duten komertzioek jarraikortasuna eman beharko diote.

Horrenbestez, Arrasateko merkatariek ikusi dute urte osoan egindako lanak, azkenean, badue-la saria.

Ibai-Arte elkarteak herriko komertzio gehiagori dei egiten die eta bertan parte hartzera bultzatzen ditu, bide berekin segitzeko.

JESUS MARI ELKORO  
IBAI-ARTEKO KIDEA

## "Publikoki komertzioak oso maila onean daudela frogatzen du"

Ibai-Arteko kidea da Jesus Mari Elkorok, eta herriko komertzioak ziurtagiri hau lortzeko lan handia egin du.

### Ziurtagiri honek zer bermatzen du?

Komertzio moduan ziurtagiri bat ateratzen duzunean, denda horrek alor konkretu baten gauzak behar bezala egiten dituela erakusten du. Ibai-Arteren helburua elkarrekin kideek ziurtagiri hori lortzea da, edo, behintzat, maila ona lortzea. Bezeroei iragarri nahi diegu herrian dituzten komertzioak modernoak eta aktiboak direla.

Lehia horretan iaz hasi ginen, 22 komertzioek eman genuen izena, eta aurretik beste sei zeuden. Arrakasta handia izan dugu; izan ere, 21 komertzioek jaso dugu UNE ziurtagiria eta beste seik bigarren mailako ziurtagiria jaso dute.



UBANE MADERA

### Horri esker Arrasateko merkataritza ofizialki duindu egiten duela esan daiteke?

Bai, noski. Publikoki frogatzen du komertzioak oso maila ona duela.

### Zer motatako komertzioek jaso dute ziurtagiria?

Mota guztietako komertzioak izan dira. Gure elkarrekin barnean alor askotariko denda asko daude. Honekin lortu dugu desberdinak diren komertzio askok ziurtagiria lortzea, eta hori, nire ustez, taldearentzat domina dotore bat dela uste dut, eta nolabait elkarrekin arteko konfiantza izatera bultzatu gaitu.

Gure hurrengo helburua maila hobea lortzea izango da, eta etorkizunean gure bezeroei ahalik eta zerbitzu hobea eskaintzea.

### "Taldearentzat domina dotorea dela uste dut"

DATUA

21

KOMERTZIO

Arrasateko 21 komertzioek jaso dute 2011ko UNE 175.001 kalitatezko ziurtagiria.

ESANAK

"Gauzak behar bezala egiten ditugula esan nahi du"

JOSE MARI ELKORO  
IBAI-ARTEKO KIDEA

# Ahalik eta tapoi tona gehien behar ditu Naiara Agreda haurrak

Garun-paralisiak eragiten dizkion beharrak asetzeko tapoi bilketa kanpaina hasi dute senideek ekainean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Naiara Agreda 8 urteko neska arrasatearra da. Garun-paralisia dauka eta gaixotasunak eragiten dizkion beharrak ase eta haren bizitza eramangarriagoa izan dadin etxean obrak egin behar dituzte. Ateak aldatu eta bainua egokitu, besteak beste. Horrez gain, Naiara herri batetik bestera mugitzeko autoa ere egokitu beharra dago, eta baita harendako aulki berezia berritu ere.

Bada, inbertsio horietan guztietan laguntza jasotzeko Naiararen senideek tapoi bilketa kanpainari ekin zioten ekain hasieran: "Naiararekin batera Aspacen dagoen Eskoriatzako mutil bat kanpaina horrekin zebilela jakin genuen. Hasiara baten, kanpaina horrek ekainean amaitu behar zuen, baina oraindik luze joko duenez, ekainean gu ere hastea erabaki genuen. Horrela hasi zen dena", adierazi du Almudena Vieco, Naiararen ama. Kanpaina

hasi berri denez, oraindik tapoi gutxi jaso dituztela dio amak, baina denbora tarte labur honetan arrasatearrek erakutsi duten inplikazioa eskertu gura izan du: "Hala-ko elkartasun kanpainak geldo doazen prozesuak dira, baina noski, ezin dugu prisarik sartu. Hainbat denda, taberna eta enpresak parte hartu dute orain arte; adierazitako elkartasunagatik, eskerririk asko".

Izan ere, tapoi tona bakoitzagatik gutxi gorabehera 210 euro ematen dituztela adierazi du Vieco: "Lan handia dago aurretik, baina denon laguntzarekin lortuko dugu Naiararen bizitza errazagoa izatea".

## Udalaren parte-hartzea

Horrez gain, Udalak erakutsitako elkartasuna ere eskertu gura du amak: "Bildu ahala tapoiak uzten joateko lekua egin digute Zerrajerako bulego zaharretan; Udalaren laguntza ere eskertu gura dugu". Hala, Biztanleen Arreta Zerbitzuan eta Udal Azokan ere bilketa puntuak daude.

Tapoi bilketa taberna, denda, enpresa, ospitale, elkarte gastronomiko eta eskoletan egiten dabilta eta norbanako batzuk ere inplikatu dira.

## Tona asko behar dira

Ahalik eta herritar zein elkarre gehien laguntza jasotzea beharrezkoa izango da, senideek



Garun-paralisia du Naiara Agredak. Irudian, bere etxean. | ALMUDENA VIECO

diotenez, tona asko behar dira -eta Naiarak behar duen guztia lortzeko.

Lagundu gura dutenei plastikozko denetarik tapoiak gorde eta BAZ, Udal Azoka edo Naiararen argazkia duten denetara eramateko eskatu dute senideek: "Norbaitek, kasualitatez, ezin baditu tapoiak edozein bilketa puntutara eramane, tele-

fonoz deitu eta gu joango gara jasotzera", gaineratu dute. Hona-koak dira telefonoak: 657 79 05 99 edo 943 77 31 38. Norberaren laguntzaz gain, elkartasun mezua ahoz aho zabaltzea oso garrantzitsua dela diote kanpaina abiarazi dutenek: "Ziur ezagutzen dituzuela lagunak, senideak edota bizilagunak Naiarari laguntzeko prest egongo direnak".

## Udal Gobernuak ez du Salbean parte hartuko

U.M. | ARRASATE

"Kristau komunitatean balio tradizional eta erlijioso handia dutela kontziente izanik eta, aldi berean, Arrasateko Udala instituzio laiko delako kontuan hartuta, Udal Gobernu taldea osatzen dugunok ekimen horietan parte hartzearen inguruko gogoeta egin nahi dugu. Izan ere, ordezkari politikoak garen aldetik, sinesmen ezberdinetako zein sinesmen erlijiosorik ez duten herritarrek ordezkatzeko ditugu. Era berean, udal taldea osatzen dugunok ere balio eta sinesmen ezberdinetako pertsonak gara".

Arrazoi horiekin iragarri du Udal Gobernuak ez duela Salbean parte hartuko, betiere, ekitaldi horiekiko errespetua erakutsi ostean.

## Eguaztenean, ekainaren 27an, itxiko dute herriko sarrera

Musakolatik Arrasatera sartzeko errepedea itxi egingo dute eguaztenean, datozen sei hilabeteotarako. San Isidro zubiko obrak egiteko itxiko dute sarrera hori. Itxierak eragin zuzena izango du zirkulazioan: Osina, Takolo eta Mugarrietako sarrerak erabili beharko dituzte autobusek zein autobusek.

### ESANAK

"Lortuko dugu denon artean; elkartasunagatik eskerririk asko"

ALMUDENA VIECO | NAIARAREN AMA

Gora,  
San Juan  
jaiak!

ARPE

Ile apaindegiko artikuluak

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

Gora,  
San Juanak!

Adara  
ILE-ARRINDOZ  
Tel.: 943 08 10 68  
Biteri etorbidea 15 behea  
adaraileapaindegia@gmail.com  
Arrasate

### OHARRAK

#### 'ZEUK IN ZEUK JAN' BAZKARIA

Gaur, egubakoitza, bukatuko da Zeuk in zeuk jan bazkarian izena emateko epea. BAZera jo behar da izena emateko. Eta izena emateaz batera zehaztu egin behar da zenbat laguneko koadrila joango den bazkaltzera. Eta argitu behar da otordua bertan prestatuko den edo ez. Bazkaria bera astelehenean, ekainaren 25ean, egingo dute, Maisu Aranon, 14:30ean. Prestaketa lanak, berriz, 12:00etan hasiko dituzte eta SUDC elkarte arduratuko da azpiegitura prestatzeaz (kazuelak, zartaginak...).

#### PRESOAK GOGOAN

Euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko hiru ekitaldi izango dira gaur, egubakoitza: 19:00etan, manifestazioa, Seber Altubetik abiatuta; horren ostean, senideei omenaldia, txosnetan; eta, azkenik, Alkartu ondoko Amaiur tabernaren irekiera, Herrira ekimenak.

SARRAILAGINTZA-LANAK,  
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.

Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

RAOS

Bañez doktorea 6, behea  
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

Ondo pasatu  
San Juanak!

Jose  
Antonio  
ile apaindegia

Otalora 22 behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

# Elurzuloa berreskuratu egingo dute Kurtzetxiki basoan

Uztail-abuztuan egingo dituzte lanak, 12.000 euroko aurrekontuarekin

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasaten bi elurzulo besterik ez dira gelditzen: Udalan dago bata (*Nevero*) eta Kurtzetxiki basoan bestea. Bada, justu bigarren hori berreskuratzea erabaki du Arrasateko Udalak, "duen balio historiko, kultural eta etnografikoarengatik", adierazi dute Ingurumen Sailetik.

Elurzulo horren ezaugarri bat da "oso itxurosoa" dela, Udalakoa baino itxurosoagoa, eta orain berreskuratzea komeni dela "paretaren zati batzuk zartatuta ikusten direlako, eta arrakalak ere

badituelako", udal iturriek diotenez.

Horrexegatik erabaki dute Ingurumen Saileko aurrekontutik 12.000 euro bideratu eta obrak egitea.

Hain zuzen, udan egingo dituzte lanok, uztaila-abuztuan. Eta hargin batek egingo ditu, Udalaren helburua delako "lehen izango zukeen itxurarekin berreskuratu". Behin berreskuratuta, edozeinek bisitatu ahalko luke.

Zazpi metroko sakonera eta sei metroko diametroa dauka elurzuloak.

Artadi garrantzitsua

Elurzuloa berreskuratzea, baina, Kurtzetxiki basorako Arrasateko Udalak duen egitasmo orokorren zati bat da. "Ideia da inguru hori baloreari jarri behar dugula aisialdi-pasealeku moduan. Batez ere, herritik oso-oso gertu dagoelako. Pentsa, ospitale atzetik bertatik abiatzen da Kurtzetxiki-ira igotzeko bidea, zapatilekin egin daiteke eta mendi erraza da. Eta horrez gainera, herritarrei ezagutarazteko moduko berezko balioak ere baditu, elurzuloaz gainera", adierazi dute.



Kurtzetxikiko elurzuloa hesituta dago, barrura inor jaus ez dadin. | UDALA

Horien artean, bertako artadia nabarmendu dute, 40 hektarea dituen. "Oso kurioso da. Diputazio adituen esanetan, kostako eta barnealdeko artadien arteko trantsiziokoa da Kurtzetxikin dagoen hori, eta berez,

Euskal Herrian ez dago artadi asko. Artadia berez, babestutako espeziea ere bada"

Hala, asmoa da Kurtzetxiki behar den moduan seinaleztatu, pasealeku moduan indartu, eta "altxorrak" ezagutarazi.

## Herriko jaien bueltan, udako ordutegia sartuko da indarrean

U.M. | ARRASATE

Datozen egunei begira, herriko zerbitzu publikoetan ordutegi ezohikoa izango da, jaien eraginez. Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ), kiroldegian, Kulturaten, Emakume Txokoa, Euskaltegian eta Garibai etxean izango dira aldaketak. Horiekin batera, zabor bilketa ere kontuan hartu behar da.

Ordutegien xehetasunak

Zerbitzuak banan-banan begiratu, eta justu azkenetik hasita, 24an ez da zabor bilketa izango erdigunean (Iturriotz, Erdiko kalea, Ferrerías eta Gazteluondo).

Beraz, kale horretan bizi direnek zaborrak inguruko kaleetan dauden edukiontzietara atera behar dituzte (Otalora, Zerkaosteta, Seber Altube...).

Itxita izango dira, berriz, BAZ, 24an, 25ean eta 26an. Biblioteka 23tik 26ra. Musakolako kiroldegia, 24an. Iturripe eta Uarkape, berriz, aste osoan. Garibai etxea 23tik 26ra (Sexologia Zerbitzua eta Gazte Bulegoa). Eta Udal Euskaltegia, aste osoan.

Eta Bibliotekari dagokionez, berriz, 27tik aurrera udako ordutegiarekin jardungo dute, Kulturate osoan, hain justu ere: 11:00-13:00 eta 16:00-20:00.

## Toñi ile apaindegia: esperientzia handia botox kapilarrean eta tindagaietan

Toñi Davilak eta Tania Rayok eskarmentu handia dute ilearen tratamenduan. Davila duela 25 urte hasi zen eta Rayo, berriz, duela sei. Bi urte daramate elkarrekin lanean.

Zabala da oso Toñi ile apaindegiko eskaintza. Ilean denetarikotratamendua modu pertsonalizatuan eskaintzen dituzte eta euren espezialitatea dira botox kapilarra eta tindagaiak. Toñi Davila arduradunak azaldu digu zer den ilearen botoxa: "Finegiak diren ileak edo hondatuak daudenak era berezian eta pertsonalizatuan tratatzen ditugu, eta keratina injekzioaren bidez ilea berritu, leundu, distiratu eta indartzen dugu". Lau saioko tratamendua da.

Ile apaindegi mistoa da, eta, noski, ilearen zaintza eta edertasuna bermatzen duten eskaintza dute; Argan olio oinarri duten tratamendua, kasu. Ile apaindegian dituzten



Tania Rayo eta Toñi Davila, Iturriotz kalean duten ile apaindegiaren barruan.

“ Finegiak diren ileak edo hondatuak daudenak era pertsonalizatuan tratatzen ditugu, eta keratina injekzioaren bidez ilea berritu, leundu, distiratu eta indartzen dugu ”

produktu guztiak naturalak direla dio Davilak, eta Tania Rayok erabiltzen dituen tindagaiak –aditua da horiekin lan egiten– amoniako bakoak dira. Izan ere, ilearen osasunari berebiziko garrantzia ematen diote: "Joera garbia da produktu

naturalak lehenetsi eta ilearen osasuna zaintzea".

Makillaje ikastaroa

Bezeroendako ere, orrazkera polita izateaz gain, ilea osasuntsua izatea oso garrantzitsua dela adierazi du Davilak. Krisiaren aurkakoeskaintza


bereziki ere badituzte, adibidez, tindatzeetan.

Gainera, azalaren zaintza eta makillaje ikastaroak ere antolatzen dituzte. Pertsonalizatuak eta doakoak dira, eta, gehienez, ikastaro bakoitzean hiru lagunek har dezakete parte. Dendan bertan eman behar da izena.

### ZUBI-LAN

KONPONKETAK ETA SALMENTAK

- MOTORRAK
- NEKAZARITZA, LOREZAINITZA
- ETA BASOGINTZAKO TRESNAK



ONDO PASA SAN JUANAK!

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia  
Tel. /Faxa: 943 79 78 82  
Arrasate

# erreka

taberna - jatetxea

Ondo ibili San Juanetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate  
Tel.: 943 53 32 72  
erreka@errekajatetxea.eu

## Toñi

ile apaindegi mistoa

Ondo pasau San Juanak!



Makillaje ikastaroak

Informa zaitez!



Ilea hidratatzeko tratamendu pertsonalizatuak

Tel: 943 79 14 70 • Iturriotz kalea 23 • ARRASATE



Aurreko edizio bateko Patximatxin jaia, Zaldibarren. | JOSETXO ARANTZABAL

## Aurrenekoz egingo dute Patximatxin Musakolako parkean

Zaldibarko pilotalekua alde batera utzi eta Musakolako skate parkea erabiliko dute bihar

XABIER URTZELAI. | ARRASATE

Azken urteotan Musakolako skate parkeak tira-birak sortu ditu Udalaren eta Arraska skate taldearen artean, eta badirudi hasi direla harremanak zuzentzen. Urtetan Arraska taldea behar den moduko skate parkea eskatzen ibili da (hori izan zen, hain zuzen, taldea sortzeko aitzakia), baina parkea Musakolako kirol instalazioen barruan egin zuten, eta horrek arazoak baino ez ditu ekarri. Arraskak doako parke bat nahi zuten skate erabiltzaileenda-

ESANAK

**"Patximatxin Musakolan egiteak erakusten du Udalarekin elkarlanean hasi garela"**

HIBAI GARAI | ARRASKA TALDEA

### EGITARUA

**ZAPATUA, EKAINAK 23**

**12:00-17:00** Free Sk8.

**17:00-18:00** Spresion Sesi.

**18:00-19:00** Hil baino lehen.

**19:00-20:00** Kill da Spot.

**20:00-21:00** Osito.

**21:00-22:00** Drop!

ko -leku gehienetan dagoen moduan- baina lehengo Udal ordezkariak ez zuten halakorik onartu. Bost urteren ostean, baina, gauzak konpontzeko bidean daude: "Patximatxin lehenengoz Musakolan egiteak erakusten du elkarlanean ari garela, eta aurrera begira badirudi gure eskaerak Udalak aintzak hartuko dituela", adierazi du Hibai Garaik.

### Patximatxin, denendako jaia

Patximatxin jaian gazte zein nagusiek hartu ahal izango dute esku. "Txapelketa 18 urtetik gorakoekin egingo dugu, baina gazteek skatean ibili ahal izango dute, eta balortuko dugu euren lana. Arratsaldean zehar bi kontzertu izango ditugu, Hil baino lehen eta Drop! taldeenak, eta tartean skate librean jarduteko aukeraz batera modalitate ezberdineko txapelketak egingo ditugu.

Spresion Session txapelketan norberak nahi dituen trukuak egingo ditu, erabat libre da. Kill da Spot-en hainbat oztopotan trukuak egin beharko dituzte patinatzaileek, eta Osito-n, lehenengoak egiten duen trukua egiten ahalegin beharko dira besteak; eta asmatzen ez duenak zigorra jasoko du.

## Munduko Txapelketara joateko azken geltokia Avilesen dute

X.U. | ARRASATE

Arrasateko atletismo harrobiak emandako bi harribitxik hitzordu berezia izango dute asteburuan Avilesen. Espainiako gazte mailako txapelketa egongo da jokoan, eta Atletico San Sebastian taldeko Maialen Axpe eta Realeko Iñigo Uribarren txapelketan izango dira, Munduko Txapelketarako txartela lortzeko asmoz.

### Bartzelona, amets

Munduko gazte mailako atleta onenak batuko dira uztailearen 10etik 15era Bartzelonan, eta Arrasateko bi atleta horiek hitzorduan egon nahi dute, Munduko Txapelketan. Horre-

tarako, asteburuan Uribarrenen salto hirukoitzean 15,60 metro-tako muga gainditu beharko du; Hala, Arrasateko atletak ez zuten martitzenean egunik onena izan, 15,05ko marka egin zuten Mojategin egindako parte-hartze libreko probetan, eta haren aurtengo marka onena 15,33koa da.

Maialen Axpek gertuago du Munduko Txapelketan parte hartzeko txartela; pertika saltoaz Bartzelonan egoteko gutxieneko marka gaindituta dauka, eta nahikoa izango du Avilesen bigarren sailkatzearekin (martitzenean Bedoñakoak 3,85 metroko saltoa egin zuten).



DORLETAKO AMA

## Denboraldi amaiera gazteendako

Dorletako Ama txirindularitza elkarteko gaztetxoek denboraldiko azken lasterketa korritu zuten asteburuan, Urretxun. Emakumezkoen kategorian berriro ere Alaitz Beloki eskoriatarra izan zen azkarrena. Mutiletan, Liher Unzueta arrasatearra bigarren izan zen. Ondo ibili ziren, baita ere, Oñatiko Lizarralde Kirolak taldeko Irati Barrena, Eneritz Lizarralde eta Ekaitz Txintxurreta.

**King's**  
Ile-apaindegia

Ondo pasau jaietan!

Zarugalde 23. ARRASATE  
Tel.: 943 79 84 88



## MENDIZABAL OKINDEGIA

ONDO PASAU  
SAN JUANETAN!


Sebero Altube 2 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 89 60

Jose Ramon Otamendi

**harategia**

SAN JUAN ZORIONTSUAK GUZTIO!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28



**Izozkitegia**

Gozotegia  
Italiar izozkitegia  
Kafetegia

San Juan jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



Bongo Botrako talde kataluniarra. | AITOR POMBO

## Hiru txosnak osatuko dute aurten jaietako txosnagunea

Egubakoitzera aurreratu dute egitaraua, jaiak aste bukaeran direlako eta jende asko etorriko delako

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE

Aurtengo txosnaguneko berritasun nagusia txosna kopurua izango da. Izan ere, beste urte batzuetan bi txosna soilik egon izan dira eta aurten hiru egongo dira. Aurten, bederatzi talde dauke txosna batzordean: kultura taldeak, kirol taldeak eta herri mugimenduak, besteak beste.

Bada, talde horiek elkarren artean konpondu beharko dute hiru txosnak kudeatzeko. Eta batzorde hori irekia den neurrian, edozein taldek dauka aukera bertan sartzeko. Jendeak egin izan ditu proposamenak batzordean ez egon arren, baina ez da ohikoa. Izan ere, zerbait proposatzen denean, proposamena egin dute-

nek antolatu behar dute guztia, eta normalean ez da lortzen ezer antolatzea.

Txosna batzordearen helburua batez ere jaiak antolatzea da, baina, horrekin batera, jaietan jendeak ondo pasatzea nahi izaten dute eta finantzazioa lortzeko esperantza ere izaten dute.

### Egitaraua sortzea

Iñaki Telleria txosnetako batzordeko kide da, eta, haren esanetan: "Egitaraua sortzeko bi fase daude: lehen fasea otsaila eta martxo bitartekoa da. Bertan, jaietan egongo diren kontzertuak lotzen dira. Behin hori eginda, bigarren fasea hasiko litzateke, martxo eta apirila bitartean. Bi hilabete horietan, guztia kudeatzen da; alegia, materiala, seguruak eta baimenak eskatu...".

Dena den, txosna batzordetik adierazi dute jaiak antolatzea ez dela lan zaila izaten. Izan ere, "jaiak gutxi gorabehera sistematizatuta daude eta Udalak ere lagundu egiten du".

### Jaiak asteburuan

Aurten sanjuanak asteburuan izango dira, eta, hori dela eta, txosnagunea gaur irekiko dute, 18:00etan. Izan ere, antolatzaileek asteburu osoa osatu nahi izan dute, eta, era horretan, jende gehiago etorriko delakoan daude.

Horrez gain, aurtengo kontzertu potenteenak bat egitarauko lehenengo egunerako jarri dute: Bongo Botrako talde kataluniarrak egubakoitzean, 23:00etan, eskainiko du kontzertua. Betagarri talde gasteizarrak, aldiz, astelehenean eskainiko du kontzertua. Izan ere, bi talde horiek aurtengo sanjuanetako kontzertu potenteenak dira eta antolatzaileak jende asko etorriko delakoan daude.

## Iñigo Arregiren 'Zeru ertzari begira' eskulturak badu lekua

M.R. | ARRASATE

Trapagarango Meatzaldea Goikoa parkean, Ustion lakuari begira ipini zuten aurreko zapatuan Iñigo Arregi arrasatearraren *Zeru ertzari begira* eskultura. *Corten* altzairuan eginda eta gorri kolorez jantzitako obra da eta hiru metroko altuera du.

Ekitaldi berezia egin zuten Arregiren eskultura aurkezteko. Hori dela eta, artista asko elkartziren: Mikel Lertxundi, Iñaki Ruiz de Egiño, Egoitz Iñurrita, Victor Arrizabalaga, Dora Salazar, Iñaki Olazabal eta Nestor Basterretxea. Azken horri bihotzez eskertu zioten bertan izatea.

### 'Begirada'

Proiektua sortu zenean, *Begirada* izena jarri zion arrasatearrak. Baina aurkezpen egunean, Ustion lakuari begira jarri zutela ikusita, izena aldatzea erabaki zuten.

*Zeru ertzari begira* izena jarri zion.

**Euskal eskulturagileen museo** Meatzalde Goikoa parkea euskal eskulturagileen museo bilakatu nahi dute. Izan ere, Gillermo Olmo proiektuaren sortzailearen arabera, "euskal eskultura gainbeheran dago 70-80ko hamarkadatik, eta hau bultzatzea ezinbestekoa da".

Gainera, bisita gidatuak egiten hasiko dira aste honetan, zapatuan eta domekan.

### ESANAK

"Lana parkean ikusi ostean, izena aldatzea erabaki nuen"

IÑIGO ARREGI | ESKULTOREA



Iñigo Arregi, eskulturaren ondoan. | IÑIGO ARREGI

*Lore*

Lurrindegia eta estetika zentroa

Olarte 10 • ARRASATE  
943 79 52 50

OINETAKOAK

Yoar

Ondo pasatu San Juanak!

Blteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71  
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

JOSE MARI SALEGI  
HARATEGIA · URDAITEGIA

Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu (txorizo, tripakiak...)

943 794 555  
Olarte kalea 20  
ARRASATE

SAN JUAN  
ZORIONTSUAK !

**eya** Ondo pasatu San Juanak!

Etxetresna elektrikoak eta dekoraziorako lanparak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxe: 943 77 20 51  
ARRASATE

Restaurante  
UGARAN  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



Brigadako langileak margolanak kokatzen pasa den astean. | EDU MENDIBIL

## Bihar kolorez jantziko da Bergarako erdigunea

Erakusleihoak bistaratzeko kalejira egingo dute eta San Juan suan margolanak erreko dituzte

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Iritsi da eguna; Bergarako erakusketa handiena inauguratzen den eguna, herriko erdigune osoa hartzen duen erakusketa. Hutsik dauden erakusleihoak herriko artisten lanekin tapatu ditu Udalak eta bihar, zapatua, bistaratuko dituzte lanok banan-banan.

### Lanak ezagutzeko, kalejira

19:00etan San Martin plazan elkartu eta *Bergarako Erdigunea Koloretan* ekimenean parte hartu duten artista guztiak argazkia atera ostean, lanak bistaratzeko hasiko dira banan-banan. Plazatik Artekalera joango dira, handik Irizar jauregira eta ondoren Barrenkalen gora, Herriko Plazara. Bidekurutzeta aldera joango dira gero, eta bertan, Rikardo Otañoren margolanekin haren familiak ipini duen erakusketa bisitatuko dute. San Pedro kaletik, azkenik, Munibe plazara joango dira. Ibilbide osoan, Alaiak taldeak abestu

egingo du eta hainbat geldialdi egingo dira mokadutxoak jan eta zerbaiteko. Munibe plazara iristean, eta iluntzen duenean, proiektio bat eskainiko dute margolari eta margolanen irudiekin. Artistekin batera udal ordezkariak ere parte hartuko dute kalejiran.

### Margolanak sutara

Urteroko San Juan suan ere izango dute protagonismoa herriko artistek. "Inaugurazio eguna San Juan gaua izanda, kutsu berezia eman nahi genion suari. Margolanek estaliko dugu sua. Hau da, piztu aurretik artelan pila bat ikusiko dira. Ondoren, su emango diegu. Artearen purifikazioa izan daiteke, edo krisi ekonomikoaren ondorioz arteak duen balio urria irudikatzen duen modua, artea egiteko bide zaharrak atzean utzi eta berriak asmatzeko ideia ere zabal dezake. Nork bere interpretazioa egin dezala", kontatu digu Riki Azkargortak.

## Aldundiak harrobietan kokatu nahi dituen fardoak "kutsakorrak" dira, EAJren ustez

A.B. | BERGARA

Pasa den astean EAJk agerraldia egin zuen, besteak beste, atez ateko bilketa sistemaren kontra batutako sinaduren berri emateko eta Juan Karlos Alduntzin diputatuak birzikla ezin daitezkeen materialekin osatutako fardo moduko batzuk itxita dauden harrobietan kokatzeko egindako proposamenaren aurka egiteko.

Agerraldi horren gainean GOIENAK egindako albistean

garbi geratu ez bazen, EAJk argi utzi nahi du euren ustez fardo horiek "kutsakorrak" direla eta "usain txarra" botatzen dutela: "Bola konpaktu horiek badute toxikotasuna eta usain izugarria botatzen dute. Badau-de horrelako adibideak Bartzelonan, Sardañolan esaterako, eta ikusi besterik ez dago inguruko bizilagunek ze iritzi daukaten zabortegei hauen inguruan", adierazi zuen Aintzane Oiarbidek.

# Osintxun eta Angiozarren ere udaleku irekiak egingo dituzte aurten

Udalarendako oso garrantzitsua da udalekuek herriko hiru eskoletako umeak batzeko ematen duten aukera

A.B. | BERGARA

Eskola edo ikastolako andereñoaren aginduetatik udalekuek begiraleen jolas proposamenetara pasako dira laster Bergaran neska-mutikoak. Badatoz udaleku irekiak.

Bergaran aurten 250 haurrek eman dute izena herrian bertan, baina, horiez gain, Osintxun eta Angiozarren ere egingo dituzte udalekuak, eta horietako bakoitzean 16 ume ibiliko dira. "Osintxun iaz egin ziren udaleku irekiak lehen aldiz, eta aurten esperientzia errepikatzeko eskatu digute, oso erantzun ona izan zuen. Horregatik pentsatu dugu Angiozarren ere martxan ipintzea", azaldu du Euskara zinegotzi Maren Belastegik.

### Hiru asteko dibertsioa

Uztailaren 2tik 20ra bitartean, beraz, lehenago edo geroago, gure herriko txikitxoek parke, plaza edo jolastokiren batean topatuko ditugu. Besteak beste, Bergarako txoko ezberdinak ezagutzeko aprobetxatzen dira eta udalekuak. "Hiru orduz egoten dira begiraleekin eta Bergarako txoko ezberdinak bisitatzen dituzte. Igerilekura ere joaten dira, eta irteera bat ere egingo dute guztiak. Horrez gain, San Fermin eguna ospatzen da, eta azken eguneko festa ere bai".

### Euskarazko udalekuak

Zerbitzua Udalarena den arren, lehiaketara atera ostean Jardun Euskara Elkarteak kudeatuko



Udalekuek talde bat, pasa den urtean, Usondo parkean. | GOIENA

ditu. Udalarendako garrantzitsua da hiru aste horietan neska-mutikoek euskaraz jardutea: "Udalerrri euskaldunean bizi gara, eta, hortaz, umei euskaraz bizi izateko eta harremanak euskaraz egiteko aukera eskaini behar diegu. Hori helburu garrantzitsua da guretzat, baina udalekuek beste balio batzuk ere lantzen dira: berdintasuna, aniztasuna, adin ezberdinen arteko umeen arteko elkartasuna... Jardunek helburu horiek guztiak batzen zituen proiektua aurkeztu zuen, eta guri oso egokia iruditu zitzaigun".

### Hiru ikastetxeak elkarrekin

Udalarendako, bestetik, garrantzitsua da udalekuek herriko hiru ikastetxeetako umeak elkartzeko eskaintzen duten aukera: "Urtean zehar eskolako umeekin jarduten dute jolasean eta eskolako patioan. Udalekuek, berriz, adinka banatuta daude eta beste ikastetxe batzuetako haurrak ezagutzeko aukera daukate. Oso garrantzitsua da Bergararendako".

Bi aste barru, beraz, herriko txoko ezberdinak –igerilekua, Usondo parkea, Herriko Plaza...– Bergarako txikitxoekin jolastoki bilakatuko dira.

## Euskal Astea ospatu dute San Martin eskolan



SAN MARTIN ESKOLA

San Martin eskolan ospakizunetan ibili dira asteon. Euskal Astea ospatu dute. Txupinazoarekin eta pregoiarekin hasi zituzten ospakizunak eta astean zehar euskal dantzak, pilota topaketak eta herri kirolak egin zituzten. Argazkietan ikusten denez, txingen jokoa (ezkerrean) eta lokotx bilketa (goian) egin zituzten, besteak beste. Ospakizunak gaur amaituko dira San Martzialerako txangoarekin eta diploma banaketekin.





Domekan, mezaren ostean, lancha izango da San Juanen. | GOIENA

## Jaiek aurrera egingo dute aste bukaeran San Juanen

Bihar, zapatua, gaztetxoendako jolasak eta bestelakoak San Juanen, eguerdira bitartean

E.M. | BERGARA

Obieta elkartearen, San Juan Erreka elkartearen eta Tartufo jatetxearen eskutik, San Juan auzoan jaiak izango dituzte aste

bukaeran. Gaur, egubakoitza, Garate eta Azkaiter Peloxekin kontzertua izango da Tartufon, 22:00etan. Bihar, zapatua, 11:00etatik aurrera, patinetean ibiltzen

ikasteko aukera izango dute gaztetxoek eta, aldi berean, jolasak eta bestelakoak izango dira San Juanen. Arratsaldean, berriz, makal jasotzea egingo dute, 19:00etan, eta ondoren, trikitilariak lagundutako auzo-poteoa egingo da. Jarraian, 21:00 aldera, San Juan suak piztuko dituzte auzoko baserrietan eta 22:00etan herri afaria izango da Tartufon. Izen-ematea jatetxean bertan edo San Juan elkartearen egin daiteke.

**Lore sorta eta ortu lehiaketak**  
Domekan, San Juan egunean, 12:00etan meza izango da auzoko ermitan eta jarraian, lancha San Juan elkartearen, trikitilariaren parte-hartzearekin. Eguerdiko ordu batean I. lore sorta lehiaketa egingo dute. Lore sortak egiterakoan ohitura zaharrak kontuan hartu ote diren baloratuko du epaimahaiak. Auzoko zaharrenari omenaldia egingo diote 13:15ean eta segidan, II. ortu lehiaketako sari banaketa egingo dute. Iaz, Aurelio Ot ezaguna izan zen irabazlea. Jaiak bukatzeko, erretiratu bazkaria izango da domekan Tartufon. Auzotarrek San Juanera joateko gonbidapena egin diete herritar guztiei.

### NIRE USTEZ

YON SUINAGA



## Etna, Tour eta Gorla

**M**adrilgo komunitatean, korrika eta saltoka ibiltzen da *Gorla* izena duen rottweiler bat. Jabeak Bergarako mendi enblematikoa bihotzean darama eta harro erakusten du *Gorla* txakurraren argakia bere mobilan.

Bergara, 2001eko apirilaren 18a. Goiza hotza eta grisa zen. Azken hiru urteetan Iberdrola taldeak irabazi zuen lasterketa; beraz, galdera zen: "Zein ekarri duzue aurten irabazteko?... Hau? Ez al da umemoko bat?". Tiroa jo, azken bihurturaino aguantatu, han ziztu bizian atera eta

Alberto Contadorrek besoak altxatu Gorlako helmugan. 20 minutu eta 30 segundo, sinestezina: 18 urte eta 3 hilabete *umea*-k errekor berria.

Egun hartan bere amateur palmaresa estreinatu zuen eta garaipen hura betiko markatu zuen: "Gorlako igoera gogoratzen dut, oso gaztea nintzen eta maila oso altua zegoen. Irabaztean atsegin hartu nuen. Errekorra menperatu nuen, baina ez nengoen markan pentsatzen, ezertan ere ez, bakarrik garaipenean". Pintokoak hiru txakur dauzka, beste biak *Etna* eta *Tour* dira.

Aurten, Tourreko errepi-deetan ez da posible izango Gorlako *jabea* txalotzea, baina seguru askoren menpean egongo dela... Ai, klenbuterol mada-rikatua!

**"18 urteko 'umea'-k errekor berria lortu zuen goiz hartan"**

### OHARRAK

**SAN JOXEPEKOAK, ISLARA UZTAILAREN 5EAN**  
Erretiratuak Islara (Kantabria) joango dira uztailaren 5ean, 08:30ean bus geltokitik aterata. Euskadiko Kutxan 12 euro ordaindu eta agiria bulegora eraman behar da, uztailaren 2rako. Argibideak Boni Lascuraineko egoitzan, 943 76 21 40 zenbakian.

**MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN ZOZKETA**  
Holandako elkartruckerako Mariaren Lagundia Ikastolako 4. mailako ikasleek egindako zozketan 1.649 izan da saritutako zenbakia. Irabazleak bi lagunendako asteburu bateko egonaldia irabazi du.

**MUSIKA EMANALDIA BIHAR**  
Bihar, zapatua, Gabero abesbatzaren eta Musika Eskolako kantu ikasleen emanaldia Santa Marinan, 20:00etan.

**SASKIBALOIA: 12 URTEKO GAZTETXOEI DEIA**  
2000. urtean jaio eta saskibaloian jokatu nahi duten gaztetxoendako entrenamendu saioa bihar, zapatua, 11:00etan, Labe-garaietan.

**ARDO DASTATZEA SAN MIGEL-PEN, ZAPATUAN**  
San Migel-pe elkartearen ardo dastatzea izango da bihar, 12:30ean. Jatorri izen askotarikoa ardoak dastatu ahal izango dituzte, 5 euro ordainduta

## Pilota sailaren urteroko zozketa

Bergara KEko pilota sailaren zozketan, 5.762 zenbakiarendako izan da lehen saria, eta Jose Ramon Azkarate-Askasua Irujoren eta Olaizolaren arteko finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratu ditu. Bigarren saria (2.919 zenbakia) Leire Arbelaitzendako izan da: Kantabriako Palacio de Guevara hotolean asteburu bateko egonaldia eta 250 euro; eta, azkenik, hirugarren saria (9.909), Erreki jatetxean bi lagunendako afaria, Jose Mari Elgezuak eskuratu du.



INIGO ZAITEGI

## Mujika gozotegia



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Erreienoa eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak

Artekalea 3 - Tel.: 943 76 10 34

## ETXAGI JATETXEA

- Patata-tortilak
- Oilaskoa
- Bildotsa saltsan
- 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu

Masterreka 8 • 943 76 53 12

## AZPEITXI Jatetxea

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Arenerreka 13 • 943 76 55 00



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreienoa eta tostoiak
- Tartak
- Bonboiak

San Pedro 9 • 943 76 10 51

## San Martzialetan zure zerbitzura



## Ganbarakoek kurtso bukaerako kontzertua egingo dute domekan

Ganbara kantu eskolako neska-mutikoen eta gazteen domekan bukatuko dute ikasturtea. Kurtso bukaerako emanaldia egingo dute, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Tailerretako neska-mutikoen, Ganbara Txikitxoak eta Ganbara Txikiko kideek urtean zehar landutako piezak eskainiko dituzte. Talde bakoitzak bere emanaldia egingo du, musika eta dantzak nahastuta. Gainera, kontzertuko emanaldi koloretsuena *Grease* pelikula aintzat hartuta egingo duten ikuskizuna izango da.

Bukaeran, lancha egongo da parte-hartzaileendako.

## Udalekuetara lehen aldiz doazenendako batzarra

Lehen aldiz udalekuetara doazen umeen (2008an jaiotakoak) gurasoekin batzarra egingo dute antolatzaileek: hilaren 26an, 18:30ean, ETEO zaharrean. Besteak beste, udalekuen nondik norakoak, ekintzak, sarrera eta irteera ordutegiak, eta udalekuen dinamika azalduko diete. Dena den, informazioa gura duen edozein gurasok parte har dezake batzarrean. Batzarra irekia da.

Udalekuak uztailearen 2tik 27ra egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara arte. Ume gazteenak 4 urteko umeak dira eta zaharrenak 10 urtekoak. (2002an jaiotakoak).



PaP Ez! plataformak antolatutako hitzaldia Santa Ana aretoan. | IRATI GOITIA

# Mikel Huizi: "Errefusatik energia lortu behar da"

Garbikerreko zuzendariak hitzaldia egin zuen, PaP Ez! plataformak antolatuta

IRATI GOITIA | OÑATI

PaP Ez! plataformak antolatuta hitzaldia izan zen, Mikel Huizi Garbikerreko zuzendariaren eskutik, Santa Ana aretoan eguztenean. "Ni ez naiz atez ateko bilketa sistemaren aurka hitz egitera etorri; baizik eta tratamendu sistemen gaineko azalpenak ematera", adierazi zuen hasieran. Besteak beste, historian izandako zabortegien gainean eta zaborren tratamenduaren gainean jardun zuen.

### Birziklatu eta berrerabili

Birziklatzeak eta berrerabiltzeak duten garrantzia azpimarratu zuen Huhizik: "Zabor hobereena da egiten ez dena. Behin gutxiago sortuta, hurrengo pausoa berrabiltzea da. Horretarako, bilketa sistema ondo egitea ezinbestekoa da; adibidez, Garbiguneen bitartez. Hala ere, batzuetan produktu horiek berriro martxan jartzea asko kostatzen da, eta hobe izaten da birziklatzea. Hori tratamendu sistemen hurrengo pausoa izan-

ESANAK

**"Errauskailuz zabor guztia tratatu eta ziklo osoa itxiko litzateke"**

MIKEL HUIZI |  
GARBIKERREKO ZUZENDARIA

go litzateke, eta material fisiko asko atera daiteke hortik. Baina material batzuk ezin dira birziklatu, eta hor sortzen da errefusa. Hor sortzen da gakoa: zer egin errefusa horrekin?"

### Energia sortu

Huhizi erraustegiaren bidez balio energetikoa sortzearen alde azaldu zen: "Europatik diote sortzen dugun zaborretik ahalik eta gehien birziklatu behar dugula, eta gainontzekoak balio energetikoa badu, hori atera behar diogula: bai elektrizitatea sortzeko eta bai berotasuna lortzeko. Kasu horretan, errefusategiek ez lukete inolako zentzurik izango. Zabor guztia tratatuko litzateke eta ziklo osoa itxiko litzateke". Alemania ere jarri zuen eredu moduan: "Hondakinetatik erregaia atera eta berotasuna sortzen dute. Hala, zentral nuklearrak ixten edo Errusiatik gas gutxiago ekaritzen dabilta".

### Bilketa sistema

"Bada, nola egin hondakinen bilketa?", galdetu genion Huhiziri: "Eredu asko daude eta bakoitzak erabakiko du zein den hobereena: emaitza onenak ematen dituen eta biztanleendako erosoena. Baina sistema orokor bat, ez du balio hemen bat jartzeak eta han beste batek. Prebentzio mailan lan egin behar da, biztanleak kontzientziatu". Eta gaineratu zuen: "Alderdi politikoez ez dute gaia fedetasun moduan erabili behar bata bestearen aurka. Adostasunak bilatu behar dituzte".

### Sinadura bilketa

PaP Ez! plataformak antolatu zuen hitzaldia, "herritarren kezak argitzeko" helburuarekin. Sinadurak batzeko ere aprobetxatu zuten ekitaldia, eta horretan jarraituko dutela esan zuten.

## San Juan sua herriko plazan egingo dute

Herriko trikitilariak eta Oñatzek parte hartuko dute ekitaldi nagusian, 22:30ean

M.B. | OÑATI

Hiru urteko etenaren ostean, ia berreskuratu zuten San Juan gaia Oñatin. Iazko *Sorginen gaua*-k izandako arrakasta ikusita, aurten ere San Juan sua egingo dute, baina ez Olaiturri, herriko plazan baizik. Hori da zapatuko ekitaldiko berrikuntza nagusia. "Hirigintzako eta zerbitzuetako teknikariek berba egin eta Foru plazan egitea posible zela adostu dugu. Herriko plaza ederra daukagu, eta halako ikuskizunak askoz dotoreago geratzen dira hor", esan digu Manu Egañak, Kultura zinegotziak.

### Erromeria Atzeko kalean

San Juan suaren gaineko ekitaldiak antolatzeko Kultura Sailak egindako deialdira Lizar-



Iazko San Juan sua. | GOIENA

garate Trikitilari Taldeak, Ikastetxetako ordezkariak eta Oñatz Dantza Taldeak erantzun zuten. Guztien artean antolatu dituzte ekitaldiak. Motorrak berotzeko, 19:00etatik 21:00etara arte herriko trikitilariak erromeria egingo dute Atzeko kaleko plazatzon. 22:30ean, sua piztu eta Oñatzeko kideek dantzak egingo dituzte suaren inguruan. Ekitaldia bukatzen denean, parte-hartzaile eta herritar guztiek kalejira egingo dute Atzeko kaleraino, hango erromeriarekin gozatzeko. "Atzeko kalean egingo dugu erromeria, herriko plaza baino txikiagoa eta beroagoa delako", dio Egañak.

ESANAK

**"Teknikoki posible da sua herriko plazan egitea"**

MANU EGAÑA  
KULTURA ZINEGOTZIA

## Artea oinarri hartutako udalekuak gaztelekuan

Marrazketa, komikigintza, argazkilaritza eta beste landuko dituzte uztailako lehen hamabostaldian

M.B. | OÑATI

Udaleko Gazteria Zerbitzuak udaleku bereziak egingo ditu uztailako lehen hamabostaldian: artearen hainbat diziplina oinarri hartutako udalekuak, hain zuzen. Besteak beste, marrazketa, komikigintza, argazkilaritza, ordenagailu bidezko diseinua eta serigrafia dira landuko dituzten diziplinak. Bi eta hiru eguneko udalekuak dira, eta guztiak emango dituzte uztailako lehen hamabostaldian.

Arteari buruzko udalekuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko lehen eta bigarren mailetako gazteendako udalekuak dira. Doakoak dira, eta izena emateko epea gaur, hilak 22, bukatzen da. Plaza mugatuak direnez, dauden lekuak baino pertsona gehiagok izena ematen

badute, zozketa bidez zehaztuko dituzte taldeak. Izena emateko edo informazioa eskatzeko gaztelekutik pasa daitezke interesatuak.

### Herriko artistak irakasle

Gaztelekuan eskaintzen dituen diziplinetan adituak diren herriko artistek egingo dituzte irakasle lanak, eta egunero hiru orduko eskolak emango dituzte: 10:00etatik 13:00etara arte.

Arte udaleku bakoitzerako zehaztu dituzten egunak honako hauek dira: marrazketa uztailearen 2an, 3an eta 4an; komikigintza uztailearen 5ean eta 6an; argazkilaritza uztailearen 9an eta 10ean; ordenagailu bidezko diseinua uztailearen 11n eta 12an; eta serigrafia uztailearen 13an.

# DEBAGOIENENKO OSPITALE BERRIA

## Ospitale berria, denon eskura

Astebete daramate Debagoieneko ospitale berrian lanean, eta dagoeneko zerbitzu guztiak erabiltzaileen esku daude; bailarara egokitutako ospitalea da



**Antonio Arraiza** | Debagoieneko Ospitaleko gerentea

# "Zerbitzu gehiago eta hobeak eskainiko ditugu"

2011ko urrian hartu zuen Debagoieneko Ospitaleko gerente kargua Antonio Arraiza Armendarizek. "Pozik eta entusiasmatuta" ekin zion kargu berriari, eta horrela sumatu dugu ospitale berriaren irekierarekin ere

**Z**apatuan zabaldu zenuen ospitale berria. Nola joan dira lehen egunak?

Oso ondo. Zapatuan goizeko zortzietan larrialdietako zerbitzua jarri genuen martxan eta goizean zehar, ospitaleratuta zeuden gaixoak pasa genituen ospitale berrira. Arratsaldean prest genituen operazio-gela eta erditze-gelak ere. Esango nuke astelehenean martxan zegoela ospitalearen %100. Etxe berri batera sartzen zarenean moduan, beti egoten dira aurretik kontuan hartu ez diren zenbait gauza, baina arazo txikiak izan dira; gaixoak ez dira konturatu ere egin.

**Ospitalearen lehengo eraikinean ze zerbitzu eskainiko dituzue?**

Lehengo larrialdiak eta sukaldea ospitale berrira pasa ditugu. Arkupea duen eraikina berriro egingo dugu 2013an, eta bertan jarriko ditugu espezialitateetako kanpo-kontsultak. Baita zerbitzu nagusiak eta errehabilitaziorako unitatea ere. Dena dela, garrantzitsuena izango da orain ambulatorioan dauden kontsulta batzuk bertara pasatzea. Izan ere, ambulatorioa oso beteta dago gaur egun. Hala, hobeto eta ordu gehiagoz lan egin ahal izango dute lehen mailako arretako medikuek.

**Zeren arabera aukeratu dituzue zerbitzu berriak?**

Bailarak hutsune handia zuen zerbitzu batzuetan eta horietarako kanpora joan beharra zuen. Etxe berri eta hobeak dugu orain, baina hori lehen pausoa da. Debagoien osoko lehen mailako arreta ospitalearekin integratu behar dugu. Horrek ekarriko du herri guztietako langileek ospitalekoak hobeto ezagutzea eta guztiok elkarrekin hobeto lan egitea. Horrekin batera, gure erreferentziazko ospitalearekin, Arabako Ospitale Unibertsitarioarekin, elkarlan handiagoa bultzatu nahi dugu. Orain jarri ditugu, adibidez, hematologia, neurologia eta endokrinologia zerbitzuak, baina horiek guztiak Gasteizko ospitalearekin elkarlanean jarri ditugu, bertako espezialistak Debagoienara ekarri. Irailean, adibidez, urologia-ko kirurgia zerbitzua jarriko dugu, hori ere Gasteizko ospitaleko espezialistekin elkarlanean. Datorren urterako, berriz, onkologia-ko zerbitzuren bat jarri nahi dugu ospitalean. Oso zaila da gurea bezalako ospitale txiki batean

unitate espezializatu bat jartzea, baina onkologiari dagokionez, posible litzateke kontsulta batzuk hemen jartzea, baita kimioterapia-ko zenbait zerbitzu ere. Hori izango da ospitale honek izango duen filosofia. Ezin dugu unitate espezializatu oso bat eduki hemen, baina Arabako Ospitale Unibertsitarioarekin elkarlanean zenbait zerbitzu eskaini ditzakegu.

**Ospitale berriak langileengan ere eragingo zuen, ezta?**

Orokorrean, lehen genituen langile kopuru bera dugu orain, baina zenbait lanpostu lehenetsi behar izan ditugu. Adibidez, ama-umeentzako unitatean erizainak gehitu behar izan ditugu, eta, horretarako, hain beharrezkoak ez ziren zenbait postutako langileei lanorduak murriztu dizkiegu. Gaur egungo egoeran, Osakidetza-aren aurrekontua ez da hazten, eta gurea ere ez. Beraz, lehengo diru berdinarekin zerbitzu hobeak eskaintzen saiatu gara. Bestalde, nahiko nieke langileei eskertu ospitale berria martxan jartzeko egindako lan guztia. Azken hila-beteotan aparteko lan asko egiten aritu dira langile batzuk, eta benetan eskertzekoa da egin duten lana. Ate irekietako bisitek ere arrakasta izan zuten, eta herri-tarren aldetik izandako harrera ere eskertzekoa da. Ez da erraza izaten ospitalea nolakoa izango den imajinatzea martxan ez dagoenean, baina biztanleek ospitalea beraiena moduan sentitzeko modu bat izan zen. Hori izan zen bisiten helburua.

**Debagoieneko Ospitalea errotuta ikusten duzu bailaran?**

Ospitale txiki bat izanda, asko bizi izaten dira bertako eguneroko kontuak, onerako eta txarrerako. Gehiago bizi izatean, gauza onak eta txarrak handietsi egiten dira. Bi ikuspegi ikusten ditut: alde batetik, oso baloratua eta maitatua da; baina, bestalde, beste batzuek uste dute zerbitzu hobeak topatuko dutela kanpoan. Gure lana da geroz eta zerbitzu gehiago eta hobeak ematea eta herritarrei horien berri ematea.

**Ospitale berriaren proiektua zela eta, izan ziren kritikak. Nola bizi izan duzue hori?**

Hemen bi polemika egon dira, bata aparkalekuei dagokiena eta bestea, berriz, ospitale berriaren izango ziren zerbitzuei zegokiena. Bigarren gai horri dagokionez, denetik entzun dugu: ohe asko izango zirela, gutxi, ez zela eba-



Antonio Arraiza, ospitale berriko larrialdietako sarreran.

kuntzarik egingo, hirugarren adineko egoitza bihurtuko zela, ez zirela gaixoak bertan geratuko... Egin duguna izan da ospitalea bailarara egokitu, bailarako biztanle guztietara, 66.000 biztanleetara. Biztanleak direnak dira, ez gehiago eta ez gutxiago, eta eskaera horren arabera egokitu dugu ospitalea. Baina ez 2012rako bakarrik; bailarako biztanleek datozen 20 urteetan izango dituzten beharretara egokitu dugu. Ohe kopurua gehitu dugu; uste dugu 75 ohe nahikoa direla, baina izaten dira zenbait tontor garai zehatzetan, eta horretatik jarri ditugu 95. Dena dela, 110 oheraino hazteko aukera dugu oraindik. Neurri hori dute, adibidez, Zumarragako ospitaleak 100.000 biztanlerekin eta Bidasoakoak 88.000ekin.

**Esan duzu aparkalekuekin egon zela eztabaida. Zertan da kontu hori?**

Bai gu eta bai Arrasateko Udalak aparkalekuen arazoa konpondu behar genuela jakitun izan gara. Bi erakundeen artean dokumentu bat sinatu dugu, eta, horren arabera, Osakidetza 200 bat plaza egokitu beharko ditu. Ospitale berriaren bigarren sotoan 72 autorentako lekua dago, eta geroago egingo dira gehiago larrialdien eraikin zaharra dagoen lekuan eta lehenengo ospitalea izan zen eraikin horren lekuan. Larrialdietako eraikin zaharra urte bukaeran botako da, eta ondoren egingo dira aparkalekuak; ospitalearen lehenengo eraikin zaharren lekuko aparkalekuak 2014 erdialderako egongo dira eginda. Horiek dira orain esku artean ditugun epeak. Aparkaleku horiek egin bitartean, ospitale aurreko Gelmako aparkalekua erabiltzen jarraitzeko hitzarmena eginda daukagu. Bestalde, Udalak ospitalearen ingurua urbanizatzeke lanak egingo ditu, eta hor ere sortuko dira zenbait aparkaleku.

**Zeintzuk dira datozen hilabeteotan dituzuen erronkak?**

Bailarako biztanleek nahi eta behar zuten proiektua jarri dugu martxan. Baina lanean jarraitu behar dugu, zerbitzu berriak eta hobeak eskainita, lehen mailako zerbitzuarekin eta hirugarren ospitaleekin elkarlanean. Gainera, orain bizi dugun krisian zerbitzuak bermatu behar ditugu eta gure burua behartu eraginkorragoak izan gaitezten.

**"Astelehenetik martxan dago ospitalearen %100"**

**"Bailarako biztanleen neurriko proiektua da"**

**"200 aparkaleku egitea hitz eman dugu"**

**"Zerbitzuak bermatu behar dira, krisia egonda ere"**



Hurbiltasuna eta gaixoak era integratuan zaintzea da Debagoieneko Ospitale berriko da helburuetako bat.

# Abegitsua izan nahi duen ospitalea

Zerbitzu berriak gehitu dituzte, eta gaixoekiko hurbiltasuna da helburuetako bat

**A**ntolatutako bisita gidatuetan parte hartu duten herritarrak liluratuta irten dira Debagoieneko Ospitale berrian ikusitakoarekin. Ospitalea barrutik ezagutzeaz gain, hango funtzionamenduaren berri jaso dute alor bakoitzeko gainbegiratzailen eskutik: larrialdietako gunea, kirurjiakoa, erditzeen gunea edota logelak bertatik bertara ezagutu dituzte. 1.300 lagun inguruk hartu dute aipatutako bisita gidatuetan.

Julian Perez Gil Osakidetzako zuzendari nagusiak azpimarratzen duen moduan, hainbat abantaila ditu ospitale berriak: "Ohe gehiago, unitate berriak (ama-haurra, susperraldia, endoskopia digestibo eta arnas aparatukoak), ebakuntza-gela gehiago, erditze gelak, ohiko ospitalatzearen ordezko aukera gehiago, larrialdietako box gehiago, erotsasun handiagoa, paper gutxiago eta inguruarekiko iraunkorragoa. Debagoieneko Ospitalearen definizio bat izan daiteke".

## MODERNOA ETA EROSOA

Lau hitzetan laburbildu daitezke ospitale berriaren ezaugarriak:



Agurne Kortabarria, emaginaren arduraduna, erditzeko edo dilatatzeko bainuontzi handia erakusten.

moderno, segurua, teknologikoa eta eroso. Horiek izan dira ardatz nagusia ospitalea diseinatzeako orduan. "Orain estetika bereziagatik da ezaguna ospitalea. Laster, berriz, bikaintasunerako konpromisoagatik, moderotasunaren eredu izateagatik eta kalitate goreneko profesional talde bat edukitzeagatik izango da", dio Osakidetzako zuzendariak, Julian Perez Gilek.

## AMA-HAUR UNITATEA

Instalazioei dagokienez, hainbat datu: lehen solairuko endoskopien unitatea dugu berritasunetako bat. Gauza bera laugarren solairuko ama-haur unitatearekin. Agurne Kortabarria emaginaren arduradunaren hitzetan: "Ama izango direnei teknologia aurreratua eskaini nahi diegu, segurtasun handia izan dezaten, giro adeitsu eta erosoan. Gure nahi berezia da erditzearen ostean, bizitzako une garrantzitsu eta gozo horietan behar duten berriarekin aukera aparta dugu horretarako". Erditzeko edo dilatatzeko bainuontzi handiak ikusmin handia piztu du azken egunotako bisita gidatuetan.

## EGONALDIA, ATSEGINENA

Esan bezala, Debagoieneko Ospitalea joan beharra dutenei egonaldia ahalik eta atsegina egitea da helburua. 95 ohe daude, guztira, ospitale berrian (gaur egun 72 dira), 36 logela bikoiztetan eta beste 23 logela indibidualetan. Edozelan ere, eskaeraren arabera, 110 ohe jartzeko aukera dago. Zerbitzu guztietan eremu zabalak daudela nabarmentzen dute arduradunek. Ebakuntza-gelak sei dira, horietako bat larrialdietarako eta anestesia osteko bizkortze unitateak zortzi izango dira.

Hurbiltasuna da helburuetako bat, eta gaixoak era integratuan zaintzea: neurologia, endokrinologia eta hematologia zerbitzu berriak gehitu dituzte eta bularreko eta koloneko minbiziak goiz detektatzeko programa eskualde osoan eskainiko da. Era berean, 2013an zerbitzuen eskaintza handituko da, kimioterapia segimenduan dauden gaixoendako. "Ospitalea inoiz baino erreferenteago izango da bere eremuan, eta hobeto lotuta egongo da Euskadin eta kanpoan erreferente izatera deituta dagoen Arabako Unibertsitate Ospitalearekin. Etorrizunari aurre egiteko gertatuta gaude", dio Osakidetzako zuzendariak.

## "Etorkizunari aurre egiteko gertu gaude"

JULIAN PEREZ GIL  
OSAKIDETZAKO ZUZENDARIA

**Zerbitzu guztietan eremu zabalak daude**

# Teknologia, erabiltzaileen zerbitzura

Giroa enpresa donostiarrak egin ditu ospitale berriko klimatizazio eta gas naturaleko lanak

**D**onostiako Giroa klimatizazio enpresak eraman ditu Debagoieneko Ospitale berriko klimatizazioa, zentralizatutako kontrola eta gas naturaleko lanak. Punta-puntako teknologia erabili dute: instalazioek 2.022 kW-ko hotz produktzioaren sistema daukate, eta, gas naturaleko temperatura baxuko galderei esker, bero produktzio sistema 3.750 kW-koa da.

Eraikin berriak lau solairu ditu eta harreraren azpian daude esterilizazio gela, sukaldea, farmazia eta mihiseria. Era berean, aparkalekuan solairua dago haien azpian. Ebakuntza gelei dagokienez, sei dira, bat larrialdietarako da, eta zesareetako kirofano berezitua ere bada. Arkitektura eta eremuak ospitalerako bereziki diseinatuak izan dira, gaixoen tramiteen azkartzea lortzeko, eta intimitatea eta erosotasuna izan dira ardatz nagusietakoak.

## KONTROL ZEHATZA

Ebakuntza gelek airearen klimatizazio eta filtraziorako sistema daukate, betiere tenperaturaren, hezetasunaren eta gainpresioaren kontrol zehatzarekin. Ospitalizazio eremuan lehen mailako airea dago eta berogailu sistema erradiadoreen sistema baten bitartez dabil. Gainerako eremuak, berriz, VAV sistemen bitartez klimatizatzen dira; eraikinen kanpoaldeko eremuetarako, aldiz, berotze kaxak aurreikusituz ardu-



Giroak ere bere ekarpena egin du, ospitaleko energiaren gestioa eta mantenua onena izan dadin.

radunek. Aldi berean, *legionellosi* arazoak saihesteko, eraikinean banatzen den ur sistema desinfektatu egiten da pasteurizazio sistema baten bitartez.

Esan bezala, Giroa enpresak gestio energetikoaren alorrean

## Eraikin osoa gestio sistema baten bitartez kontrolatzen da

egiten du lan, eta, besteak beste, produktio termikoko eraikinak eta instalazioak eta kogenerazio planten mantenua darama.

Arduradunak pozik azaldu dira Debagoieneko Ospitalean egindako lanarekin; izan ere, erronka handia da horrelako eraikin bateko klimatizazioaren ardura izatea. Lehen esandako moduan, eraikin berri osoa gestio sistema baten bitartez kontrolatzen da eta horrek instalazio guztien jarraipen egokia bermatzen du. Interneterako

konexioa izatea nahikoa da instalazioen urrutiko jarraipena egin ahal izateko.

## GESTIO IRAUNKORRA

Kontuak kontu, lan eta buruhauste askoren ondoren, guztia prest

## Ospitale moderno baten beharrak asetzerara dator

dago. Ospitale moderno baten beharrak asetzerara dator Debagoieneko Ospitalea, betiere erabiltzaileen zerbitzura. Prestazioak bistakoak dira, bisita gidatuetan parte hartu dutenek baieztatu izan duten moduan. Giroak ere bere ekarpena egin du, energiaren gestioa eta mantenua onena izan dadin. Puntako teknologia onura eta abantaileri etekina atera gura izan diete, eta orain, erabiltzaileek eta ospitaleko profesionalek aprobetxatu behar dituzte.



**Giroa**  
Grupo Dalkia

Giroa Dalkiaren ordezkaria da Euskal Herrian, eta liderra da ondorengoetan: instalakuntzan, ekipo termiko industrietan eta enpresa, ospitale eta lokalen energia efizientzia zerbitzuetan.

## ESKAINTZEN DITUGUN ZERBITZUAK

- Mantentze-lan tekniko integrala
- Eraikinen kudeaketa energetikoa
- Erabilpen energetikoak
- Eraikinen kudeaketa osoa
- Instalazioa
- Bero eta hotz sareak





# Igo eta jaitsi, eroso eta erraz

Orona enpresak jarri ditu Debagoieneko Ospitaleko igogailuak, eta erabiltzaileen beharretara egokitu ditu irisgarriak izateko

**E**sperientzia handiko enpresak jarri ditu Debagoieneko Ospitaleko igogailuak: Oronak. 50 urte daromatza sektorean lanean eta hainbat ospitaletan ditu ezarriak igogailuak. Esperientziari, puntako teknologia eta ezaugarriak gehitu behar zaizkio.

## EROSOK ETA ZEHATZAK

Igogailuek izan behar duten ezaugarri nagusia da sartzeko erraztasuna; hau da, oztopo arkitektonikorik ez izatea. "Kontuan izan behar dugu ospitale bateko igogailuak gurpildun aulkian edo esku-ohetan doazenek erabil ditzaketela; beraz, irisgarritasuna aspektu benetan garrantzitsua da", zehaztu digu Isabel Legarretak, Oronako Marketin zuzendariak. Noski, igogailuaren mugimenduak leunak izatea edo ez nabaritzea ere funtsezkoa da: "Ezin da kolperik izan mugimenduetan. Igogailuetan igotzen zarenean, batzuetan ohartu ere ez zara egiten martxan denik, ospitaleetan berebiziko garrantzia du horrek",

dio Legarretak. Eta gaineratu: "Gelditzerakoan ere puntu egokian gelditzea funtsezkoa da, sartzeko eta ateratzeko orduan ez dadin oztoporik izan".

## EZAUGARRI BEREZIAK

Ospitaleko igogailuek, besteak beste, tamaina berezia ere izan behar dute: "Ohe edo esku-ohetik inolako arazorik gabe sartzeko modukoak izan behar dute. Gainera, sendoak ere izan behar dute, kolpeak jasotzen dituztelako ohe edo esku-ohetik horiek. Hala, material bereziak erabiltzen dira. Arrasaten altzairu herdoilgaitzez estali dira. Material sendoa da eta aldi berean oso garbia. Hori ere kontuan izan beharreko aspektua da; izan ere, ospitaleetan higieina oso garrantzitsua da". Bestalde, "gaixoak igogailuetan zenbaitean etzanda joaten direnez, argiteria ere zaintzen da itsutu ez daitezen".

## 365 EGUN 24 ORDU LANEAN

Ospitalean igogailuek uneoro egon behar dute erabiltzeko prest: "Funtzionamenduak eta manten-

tze-lanek izugarri zehatzak izan behar dute, ez dadin hutsik egon, ospitalean beti izaten dira-eta larrialdiak". Gainera, Oronak Bergaran du egoitza, eta gertutasuna da beste abantaila bat.

Beraz, esperientzia eta azken nobedadeak igogailuetan.



Oronak ospitalean jarri dituen 17 pertsonarendako igogailuak.



Argiteria egokitua.



Igogailuaren gelditze zehatza.



Altzairu herdoilgaitza.

**DATUA**

**6**

IGOGAILU

Erabilera ezberdinetarako sei igogailu ezarri dira. Horietako bi medikuendako.

**Ekodiseinuan oinarritutakoak**

Orona da, bere sektorean, mundu mailako lehen enpresa ISO 1406 ziurtagiria lortu duena -ekodiseinuan oinarritzen den egiaztagiria da-. Hala, Oronak fabrikatzen duen igogailu orok betetzen ditu kutsadura minimoko baldintzak hasierako diseinutik produktuaren bizitza amaitu arte. "Hori da gure produktuen ezkutuko gainbalioa. Begi bistaz ez da nabaritzen, baina ezaugarri benetan garrantzitsua da", adierazi digu Isabel Legarretak.

**Orona**  
Elkarrekin, urrunago

**Nolako beharra, halako erantzuna**

Sarbideak erraztea besteak iristen ez diren tokietara iristea denez, Orona 3G produktu eta zerbitzuek gau eta egun tinko lan egiten dute, pertsonen mugikortasuna errazteko

[www.orona.es](http://www.orona.es)

24H  
NON STOP  
ZERBITZUA  
Orona

# Punta-puntako instalazioak

Miabsa Arquitectura Interior enpresak egin ditu ospitale berriko instalazioak: atek, pareten estaldurak, mahai-estalkiak, ebakuntza-geletarako estaldurak...

**K**olorea da nagusi Debagoieneko Ospitale berriaren kanpoaldean, eta kolorea da nagusi barruan ere. Ateak, paretetako-estaldurak, arreta-guneetarako mahai-estalkiak... Horiek guztiak ipini ditu Leioan egoitza nagusia duen Miabsa enpresak, eta guztietan kolorea da protagonista: berdea, morea, arrosa... "Barrutik eta kanpotik oso koloretsua da ospitalea. Paretetako-estaldurak, atek eta mahai-estalkiak ere koloretsuak ipini ditugu", esan digute Miabsakoek.

**GARBITASUNA BERMATZEKO** Atzerapenak atzerapen, urte eta erdiko lana izan dute Miabsakoek ospitalean. Batzuetan zortzi langile egon dira batera lanean, eta beste batzuetan lau inguru. "Lan mardula izan da, baina emaitza ona da. Punta-puntako instalazioa egin dugu", esan dute.

Ospitale osoan material arinaz egindako manparak eta tabike aurrefabrikatuak ipini dituzte, eta oheak eta sartzeko eta ateratzeko tamaina handiko atek. "Gehienak ate normalak dira. Gutxi batzuk gidaridun atek dira. Horiek ere koloretsuak dira:

batzuk kolore bakarrekoak eta beste batzuk hiru kolorekoak", esan digute Miabsakoek.

Erizainendako eta medikuen dako guneetan eta arreta-guneetan mahai-estalkiak eta erakusmahaiak ipini dituzte.

Garbitzeko erraza den materialaz egindako estalkiak daude paretetan. "Garbitasuna bermatze aldera, material aproposa ipini dugu. Horiek ere koloretakoak dira", kontatu digute.

## ESKARMENTU HANDIA

Ospitaleko instalazio-lanetan eta osasun zerbitzuen zaharberritzeetan eskarmentu handia du Miabsa enpresak. "Debagoieneko Ospitalea da gure azken lana, baina beste hainbat egin ditugu, guztiak lehen mailako materialekin; besteak beste, Donostiako Onkologikoa, Gernikako Ospitalea, Basurtukoa, Gurutzetako Ospitaleko larrialdi zerbitzua, Donostiakoa...", diote.

**Erakusmahaiak eta atek koloretakoak egin dituzte**



Zuri eta berde koloreko estaldurak paretetan.



Hiru koloreko atek.



More koloreko atek.



Fuksia koloreko erakusmahai.



MIABSA  
ARQUITECTURA INTERIOR

## Ospitaleko instalazio-lanetan eskarmentu handia

MIABSA enpresa espezializatuta dago instalazioetan eta osasun zerbitzuen zaharberritzeetan; besteak beste:

- Ebakuntza-geletarako estaldurak.
- Tabike aurrefabrikatuak.
- Mahai-estalkiak, erakusmahaiak eta altzariak orokorrean



Gipuzkoa: Portuetxe 45 • 20018 Donostia • 943 31 74 47 | Bizkaia: Iparragirre etorbidea 100 • 48940 Leioa • 94 463 02 87 | [www.miabsa.com](http://www.miabsa.com)

**ULMA**

pertsonen enpresa  
*pertsonentzako enpresa*

ULMA TALDEA • Garagaltza Auzoa 51 • 22 PK • 20560 Oñati (Gipuzkoa) • Tel: 943 25 03 00 • Faxa: 943 78 09 17 • [www.ulma.com](http://www.ulma.com) • [grupoulma@ulma.com](mailto:grupoulma@ulma.com)



# Sustapena taldeak pozik bukatu du lehiaketa

- ▶ Aretxabaletaren gaineko galderak egin ditu abendutik hona
- ▶ Amaiur Bergaretxek jaso du erantzun zuzen gehien emandakoen saria

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak Sustapena Taldeak joan den abenduan abian jarritako *Atxabalta Lehiaketa* bukatutzat eman du astean, eta dagoeneko sariak ere banatu dituzte. Amaiur Bergaretxe eta Gotzone Arrese aretxabaletarrek jaso zituzten sariok eguaztenean egindako ekitaldian.

Hamahiru astez hamabostean behin Aretxabaletako euskara, historia, geografia eta kulturaren gaineko galderak bota dituzte, aldiko bi, GOIENA paperaren eta *Goiena.net* webgunearen bitartez. Eta jokoan parte hartu duten herritar guztien artean, bi sari banatu zituzten eguaztenean, Loramendi Elkarte

zuzendari den Eneritz Urrutiak eta Josu Retolaza teknikariak. Amaiur Bergaretxek jaso zuen erantzun zuzen gehien emandakoen saria, Elkar liburu dendako 100 euroko bonoa hain zuzen; eta Gotzone Arresek parte-hartzaile guztien artean zozketatutako saria, Elkar liburu dendako 50 euroko bonoa.



Amaiur Bergaretxe eta Gotzone Arrese sarituak Loramendiko kideekin. | M.A.

Sustapena Taldeko kideek jakinarazi dute kulturaren gainean egindako txapelketa honek esperotakoa baino erantzun txikiagoa jaso duela. Hala ere, parte-hartzaile gehien fideltasuna azpimarratu eta eskertu dute: "Horregatik saritu

biak ez ezik parte hartu duten guztiak zoriondu nahi ditugu".

## 'Musika Zaparrada'-k arrakasta

Era berean, Sustapena Taldea oso pozik dago Euskararen Egunean egin zen *Musika Zaparrada* izan zuen arrakasta itzelagatik. "Hori dela eta Sustapenak egun horretako musika sortzaile guztiak txalotu nahi ditu, prestatutako errepertorio bikain eta aproposagatik eta baita puntualtasunagatik ere". Eta inor ahaztu barik, guztiak izendatu dituzte: Basotxoko Erretiratuen Abestaldeak; Krisis; Igor Sanjuan; Iñaki Sagasta; Lide eta Lur; Freedom Boys; Aretxabaletako Abesbatza; Trikitixa Taldea; Aretxabaletako Txistulariak; Aretxabaletako Gaitariak; *Zast!* kontakizun musikatuak; No Hope; Interprete Desconocido; Gorka musika elektronikoa; Sarraski Deia; eta Gazte Iraultza.

## Muru Alde txapelduna III. olinpiadetan

Joan den zapatuan eman zioten bukaera Loramendi Elkarteak antolatutako gastronomi elkarte arteko III. olinpiadei, eta Muru Alde izan zen garailea. Basotxoren eta Urkuluren aurretik geratu zen, eta Jakionek oparitutako otarra jaso zuen saritzat. Hiru horiekin batera Eguzki Alde eta Larrinoko San Kristobal elkarteak jardun dute norgehiagokan.

Zapatuan, hain zuzen, jokatu zuten olinpiadetako azken proba, doke txapelketa. Basotxo erretiratuen elkarte aurreko lorategian elkartu ziren, eta Muru Aldeko bazkideek dokean jokatzera zer den badakitela erakutsi zuten. Haren atzetik geratu ziren Urkulu eta Basotxo. Beste hiru proba ere egin dituzte olinpiadetan: mus txapelketa; haragi-bola txapelketa; eta bolo txapelketa. Behin dokean bukatuta meriendatxo egin zuten guztiak, parte-hartzaileek eta antolatzaileek: "Loramendik eskerrak eman gura dizkie elkarte guztiei euren parte hartzeagatik", jakinarazi dute.



Elkarteetako kideak dokean jokatzeko zapatuan. | LORAMENDI ELKARTEA



Beñat Abasolo, ezkerrean lehena, gainerako sarituekin. | KURTZEBARRI INSTITUTUA

## Olinpiada Matematikoan Beñat Abasolo saritua

Euskadiko 99 ikastetxetako DBHko bigarren mailako ikasleek hartu dute parte lehiaketan

M.A. | ARETXABALETA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleei zuzendutako Eduardo Txillida Euskadiko 10. Olinpiada Matematikoak egin berri dituzte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak deituta, eta Kurtzebarri institutuko Beñat Abasolo Mujika aretxabaletarrek saria jaso du.

Euskadiko matematika irakasleen elkarteak, EMIE 20+11, antolatutako lehiaketa da, eta

erkidegoko 99 ikastetxetako ikasleek hartu zuten parte maiztean egindako frogetan. Sariak orain banatu dituzte Jaurlaritzaren egoitzan, Lakuan, eta 12 ikasleri ematea erabaki du epaimahaiak, tartean Abasolo aretxabaletarra; Txillida eskultore ezagunaren semeak eman zion, hain zuzen.

Kurtzebarri institutuko kide guztiak zorionak eman gura dizkiote Abasolori lorpen horregatik.

## Dantzak eta sua bihar, San Juan bezpera girotzeko

1994an jaiotako 48 bat neska-mutilek jasoko dute tantaia gauerdien bueltan

M.A. | ARETXABALETA

Udako solstizioari harrera egiteko egitaraua gertatu du Kultura Sailak biharko, San Juan bezpera. Urtero legez sua izango da protagonista, baina dantzek ere izango dute tartea.

Leizarra musika eskolako kideek *Plaza dantza* ekitaldiarekin girotzeko dute arratsaldea (18:00), eta herritarrek, ume zein heldu, dantzan jarriko dituzte plazaren bueltan. Ondoren buruhandi eta erraldoien txanda

izango da, eta txistulariak lagun dituztela etorriko dira. Eta ilunkaran (21:00), dantzaldiari hasiera emango dio Laket taldeak.

Sanjuanetako kalejirarekin hasiko dituzte gau parteko ekitaldiak (22:20); Otalora kaleko 5. zenbakidun atartetik irten eta plazarantz etorriko dira dantzariak. Ondoren Sanjuanetako zortzikoa dantzatzeko dute, eta gero sua piztu. Laket taldeak dantzaldiarekin jarraituko du sua itzaltzerakoan.

## Tantaia, Oro ingurutik

Datorren urtean Santa Ageda neska-mutil izango direnek ere badute zeregina bihar. 1994an jaiotakoak dira, 48 bat, eta zuhaitza Oro auzoko parajeetatik ekartzeko asmoa daukate. Eguerdi parterako plaza ingurura urreratuko dute, eta gauerako gertu utzi. Gauerdien bueltan hasiko dira igotzen tantaia hori.

## Irak atarteetan

Azken urteotan legez iraz estalita agertuko dira herriko atarteak, etzi, San Juan eguna. Ira horiek aurreko egunean moztuko dituzte hainbat herritarrek inguruko basoetan, eta 01:00etatik 07:00etara bitartean atartez atarte banatu. Egurrezko gurutzeak ere egingo dituzte eta atarteetan jarri, kalterik sar ez dadin.

## Uztailaren 6an egingo du batzar orokorra UDA Kirol Elkarteak

UDAK batzar orokorra egingo du uztailaren 6an, Arkupen (18:00). 2011-2012 denboraldiaren berri emango dute, 2012-2013 denboraldia aurkeztu eta diru-kontuak proposatu. Gainera, kirolari oso-oseoi sariak emango dizkiete. Batzar orokorra baino lehen ezohiko batzarra deitu dute estatutu aldaketa eztabaidatzeko.

## Presoen eskubideen aldeko kalejira egingo dute bihar eguerdian

*Tantaz tanta erreka gara* egunaren bueltan euskal presoen eskubideen aldeko kalejira egingo dute bihar, Herriko Plazan hasita (14:00). Aretxabaletako Herrira herri bilguneak eta Urbaltz tabernak antolatu dute, eta herritarrek kalejirarekin bat egin eta presoen eskubideak aldarrikatzera gonbidatu gura dituzte.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Herriko haur parkeak berbagai gurasoekin

Ondorioztatu dute herrian hutsunea dagoela aisialdian 9-14 urte bitarteko gaztetxoendako, eta Udala lehentasun horri erantzuna ematen saiatuko da

**AMAIA TXINTXURRETA** | ESKORIATZA  
Eskoriatzako Udalak haur parkeak izan ditu aztergai gurasoekin batera egindako bileran. Horrela, gurasoengana iritsi nahi izan dute, gurasoak direlako haurrekin parkeetan ibiltzen direnak eta parkeak hobekien ezagutzen dituztenak.

Egungo parkeen errealitatea zein den ikusi, hobetzeko egon daitezkeen proposamenak bildu eta lehentasunak jarri zituzten bilerara bertaratu ziren zortzi gurazok, Maider Etxaniz Gazteria teknikariak eta Beñat Herce alkatetik.

Horretarako, haur parke hauek aztertu zituzten: Olaetakoa, Aranburuzabalakoa, Dorletakoa, frontoia eta kantxa, liburutegi ondoan dagoen haur parkea, San Pedrokoa, Intxaurtuetakoa eta partxisa.

## Lehentasunak

Haur parke horiek guztiak banan-banan aztertu ondoren, hauxe izan zen atera zuten ondorio nagusia: herrian hutsunea dagoela aisialdian 9-14 urte bitarteko

gaztetxoendako. "Ikusi dugu oso haur txikiendako parkeak daudela, eta parkeetan beste elementu batzuk jartzeko aukera aipatu da; esaterako, natura elementuekin jolasteko aukera", azaldu zigun Etxanizek. Beste ondorio bat izan zen liburutegi ondoan

dagoen parkeak konpontzeko edo aldatzeko beharra daukala.

Orain, Udalaren erronka, ahal den neurrian, lehentasun horiei erantzuna ematea izango dela gaineratu zuen Gazteria teknikariak, eta bileraren balorazio "oso positiboa" egin zuen.



**MAIDER OTAMENDI**  
GURASOA

"Uste dut orokorrean herrian dauzkagun parkeak ondo daudela; hala ere, nahiko ume txikiendako eginda daude. Beraz, bileran komentatu dut ondo egongo litzatekeela nagusitxoagoendako parkeren bat jartzea edo daudenetan nagusiagoendako elementuak gehitzea".



**NESTOR ARANA**  
GURASOA

"Udalak aukera eman digu parkeak aztertzeko eta ikusi duguna da badaudela aukera ugari Eskoriatza guztian eta hobetu daitekeela 0-9 urte bitarteko umeen guneetan. Identifikatu dugun arazoa da 9-14 urte bitartekoendako hutsune handia dagoela eta espazio gehiago behar dutela".

## Danborradaren azken entseguetan murgilduta

A.T. | ESKORIATZA

San Pedro jaiak gain-gainean dauzkagu eta, datorren eguen gauean, hilak 28, egingo den nagusien danborradarako azken entseguetan murgilduta dabil-tza 180 herritar inguru. Danbor hotsek ekarriko dituzte jaiak Eskoriatzara, eta urteroko doinuak entseatzen dabil-tza.

Partaidetza beste urte batzuen antzekoa izango da eta aurtengo danborradarako "gogoz" daudela esan digu azken hamar urteotan zuzendari nagusi izan den Zirilo Pereak.



Batailoietakozuzendariak. | A. GAINZARAIN

## Berrikuntzak

Aurten, baina, Perea zuzendari nagusiaren laguntzaile moduan irtengo da. Lehen aldiz Eskoriatzan emakume bat izango da danborradako zuzendari

nagusi: Garbiñe Nuñez, hain zuzen ere.

Ibilbideari dagokionez ere, bada beste berrikuntzarik: aurten danborrada ez da Aranburuzabalaraino joango.

## OHARRAK

### KONTZERTUA

Musika Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua izango da gaur, 18:30ean, plazan.

### PATIN GAUA

Patin Gaua egingo dute gaur, egubakoitza, 22:00etan, herriko plazatik irtenda.


### MERIENDA

Erretiratuentzako jaialdia eta merienda izango da gaur Erretiratuen Etxean, 17:30ean.

### BANDERA JOKOA

LH-6 eta DBH-1ekoentzako bandera jokoa izango da gaur, 18:00etan.

Osasunagatik  
Ingurugiroak  
kezkatzeko gaituelako  
Ongizate arrazoiengatik  
Seme-alabengatik  
Arrazoi ekonomikoengatik



**ondo**  
egitera  
**goazz**

Birziklatze tasak

Eskoriatza

**%30**

atez ate  
**%83**

Olartzun, Antzuola  
Usurbil, Hernani,

Zabortegeira doana

Usurbil

**%10**

**%70**  
errefusa

Eskoriatza





Iaz lehen aldiz egin zuten danborrada herriko txikitxoek, eta sekulako erantzuna izan zuen. | KALEBARRENGO JAI BATZORDEA

# Danbor hotsek emango diete festei hasiera gaur

Danborrada, asto karrera, San Juan sua... badago zerekin gozatu gaurtik domekara bitartean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurten Kalebarrengo eta Uzarraga auzoko San Juan jaiak batera tokatu dira. Festa bikoitza, beraz, antzuolarrei datorkiena.

Hala, gaur arratsaldean, iaz errekuperatu zuten danborrada kalera aterako dute gaztetxoek. Danborradan 30 ume inguru izango dira. 5 urtetik hasi eta 3. mailara arteko umeek astinduko dute danborra. "Danborrada aurreko urtean lehen aldiz egin genuen, garai baten beti egiten zelako, eta ohitura hori berreskuratu nahi genuen. Gure garaian egiten zen danborrada, eta guretako oso pozgarria izaten zen parte hartzea. Horregatik erabaki genuen polita izango zela. Gainera, umeendako

holako ekintza bat antolatzeak jende asko erakartzen du jaietara. Gurasoak ere oso ilusionatuta egoten dira", azaldu digu Maddi Elortzak, Kultura zinegotziak eta Kalebarren jaietako antolatzaileak.

Baina jai horietako egitarauan ezinbesteko bilakatu den beste ekintza arrakastatsu bat asto karrera da. "Zalantzarik gabe, egubakoitzean hanburgesak, danborrada, mus txapelketa eta asto karrera dira azpimarratu beharrekoak".

## Sagar-dantza, tradizioa

Sagar-dantza Kalebarrengo jaietan beti egin den ekintza da, eta aurtan sanjoanetan egingo da. "Antzuola

lar guztiondako oso garrantzitsua den ekintza da. Tradizio handia dauka herrian eta adin guztietako jendeak parte hartzen du. Urte asko dira Kalebarrengo jaiak antolatzen direla, eta sekula galdu ez den ekintza bat da", dio Elortzak. Musika taldeak kantuak joaz, bikoteek bekokian sagarra hartu eta dantza egin behar dute. "Eta dantza egiteaz gainera, probak ere egin behar izaten dituzte: bankura igo sagarra bekokian daramatela eta eskuak atzean dauzkatela, makurtu, musikaren erritmora dantza egin...".

Sagar-dantza, zapatuan, 00:00etan izango da. "Kalebarrengo jaiak garrantzitsuak dira Antzuolan. Herriarrentzat jai erreferenteak

## EGITARAUA

### KALEBARRENGO JAIK

#### Ekaina 22, egubakoitza

Danborrada eta erromeria.

#### Ekaina 23, zapatua

Besteak beste:

**12:00** Jinkana. Arbola jasotzea

**24:00** Sagar-dantza.

#### Ekaina 24, domeka

**10:00** Txistularien diana herrian zehar.

**12:30** Oinarinen dantza saioa

**19:00** Potxin eta Patxin pailazoaren saioa Zurrategin.

### SANJUANAK

#### Ekaina 23, zapatua

**19:00** Uzarragan, San Juan arbola jasotzea

**20:00** Herriko Plazan,

► Arbola jasotzea

► Oinarin dantza taldearen saioa

► Sua

direla esan daiteke, nahiz eta beste herri askotan ere sanjuanak eta San Pedroak ospatu. Jai xumeak dira, ez dagoelako aurrekontu handirik, baina oso giro polita egoten da. Kalebarrengo jaiak herritar guztion jaiak dira, eta guztion beharra egoten da jaiak aurrera ateratzeko; laguntza hori ere eskertu gura genuke", nabarmendu digu Elortzak.

## San Juan sua

Zapatuan, San Juan bezperan, Uzarraga auzoan arbola jasoko dute arratsaldeko zazpitan auzotarrek.

Arratsaldeko zortzietan, aldiz, Herriko Plazan, arbola jasoko dute eta Oinarin dantza taldearen saioaz gozatzeko aukera izango da. Arbolaren bueltan egingo dute dantza saioa, eta, horren ondoren, San Juan sua piztuko dute Herriko Plazan bertan.

## Patata-tortilla, aurtengo gastronomia lehiaketako izarra

V. gastronomia lehiaketa uztailaren 13an egingo da. Patata-tortilla egingo dute bosgarren edizio honetan. Izena emateko epea uztailaren 6ra arte dago zabalik. 943 76 62 46 zenbakian edo [www.antzuela.com](http://www.antzuela.com)-en eman daiteke izena. 10:45erako aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek Gaztetxe aurrean. 12:30erako tortillak aurkeztu behar dira.

## Pirinioetara irteera egingo du Arrolak uztaileko asteburuan

Mendi taldeak uztailaren 7an eta 8an egingo du irteera. Izena emateko: ekainaren 25ean, Olaranen, 19:00etatik 19:30era, edo aurrez 664 27 25 19 telefonora deituta. Prezioak: mendiko federatu aseguruia Fedmerekien duten nagusiek 60 euro eta gazteek 35. Fedme ez duten nagusiek 70 euro eta gazteek 40. Arrolako bazkide ez denak, 5 euro gehiago.

## Jaietako afari eta bazkarirako mahaien erreserba egin daiteke

Herriko jaietako egueneko afarirako eta egubakoitzeko bazkarirako mahaien erreserba egiteko, taldeko ordezkari baten izena eman behar da. Zenbatentzat egiten den erreserba jarri eta kopuru horri dagozkion txartelak hartu beharko dira udaletxean. Txartelok uztailaren 2tik aurrera jaso ahalko dira.

## OHARRAK

### ERRETIRATUEN BAZKARIA

Uztailaren 8an egingo dute erretiratuek urteroko bazkaria, 14:00etan, eskolako patioan. Izena emateko ekainaren 26an eta 27an, 16:00etatik 18:00etara. Prezioa 5 euro da.

### LIBURUTEGIA ITXITA

25ean, 26an, 27an eta 29an liburutegia itxita, liburuzainak ikastaro bat duelako.

## Uzarraga auzoan San Juan jaiak betidanik ospatu dituzte



Goiko argazkian, Eloy Lamariano alkateordea biboteduna duzue. Alboan, lehen apaiza liburu eskuan duela, alboan Tomas Olanen aurpegia ezkutatuta. 1915eko erretratua da. Ezkerreko argazkia, aldiz, 1950ean ateratakoa da. *Hor-Konpon*-ekoek egindako bazkariaren ostean, Uzarragako plazan. Makilarekin Jose Mari Agirre sakristaia eta eskola-maisua azaltzen da.

'ANTZUOLA 1900-1970'

# LARREA

## TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



100 udalerrri inguru ordezkaten dituzten 45 bat teknikari batu ziren Aramaion. Irudian, talde argazkia plazan. | J. BEREZIARTUA

# Iraunkortasunaren alde esperientziak trukutzen

Udalsarea 21eko batzorde teknikoak egin ziren martitzenean, lehenengoz

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO  
Euskal Herriko 196 udalerririk osatzen dute Udalsarea 21, eta udalerrri horiek guztiek iraunkortasunaren alde lan egiteko

konpromisoa hartu zuten Udalsarearekin bat egin zutenean. 2011ko azaroan sartu zen Aramaio eta duela hilabete eta erdi Leioan egindako batzorde exekutiboan

jaso zuen Ramon Ajuria alkateak hori egiaztatzen duen diploma ofiziala. Hala, asteon lehenengoz egin dira Aramaion Udalsarea 21eko batzorde teknikoak. Jon

Toña Zuiako Koadrilako Tokiko Agenda 21eko teknikariak azaldu digu bileron helburua: "Esperientzia gehiago duten udalerrietatik ikastea da helburu nagusia. Ibilbide luzeagoa dute eta hainbat ekintza egin dituzte jasangarritasunaren bidean eta beraz, euren-gandik ikastea onuragarria da denondako".

Mirian Arrizabalaga Udalsarea 21eko idazkaritza tekniko arduradunak ere esperientziak trukatzeari garrantzi handia ematen dio: "Foro bat da eta bertan partekatu egiten dugu: esperientziak trukatu, informazioa banatu eta gure jakintza eta nahi egina partekatzen ditugu".

**Mugikortasun jasangarritantz**  
Ramon Ajuria alkateak ongi etorri ekitaldian azaldu zuen, Udalsarea 21en ibilbide laburra izan arren, gogotsu daudela jasangarritasunaren alde lan egiteko eta horregatik proposatu zuen batzorde teknikoak Aramaion bertan egitea. Lehen atalean, Eusko Jaurlaritza bideratzen ari den Mugikortasun jasangarriaren barruko araudi berriaren xehetasunak azaldu zituzten Jaurlaritzako ordezkariak. Helburu nagusia, Euskal Herriko udale-

## ESANAK

**"Ibilbidea luzea duten herrietatik ikastea da gure helburua"**

JON TOÑA | ZUIAKO TOKIKO AGENDA 21

rrietan mugikortasun eredu jasangarri bat bultzatzea izango da. Horren harira, Areatzako alkateak bere udalerrian garatutako Auzokar ekimenaren berri eman zuen. Hau da, Udalak jarritako autoak partekatuz garraio kolektiboaren aldeko apustua. Lan saioa amaitutakoan teknikariek maiatzaren 30ean inaureratutako Ikerketa eta Berrikuntza zentroa bisitatzeko aukera izan zuten Aitor Larrañaga Aramaio Basarri Barriko dinamizatzailearen eskutik.

Ondorio moduan Toñak nabarmendu ditu diru-laguntza berrien gaineko informazioa jaso zutela eta produktu "berdearen" alde egiten duten enpresak kontratatzeke orduan udalak eredu izan behar direla.



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

## Orixolekoak Vignemalen, giro paregabe

Orixolek antolatuta, Pirinioetako Vignemale mendi mitikora egin zuten txangoa 13 aramaiorrek. Zapatuan aterpetxeraino sei orduko ibilaldia zuten, domekan gailurra egiteko: "Sekulako parajeaz gozatu genuen: Monte Perdido, Midi Dossau, Picos del Infierno... Eguraldia ere itzela; ederto ibili gara", adierazi dute.



Laukotea, Andra Mari ermitan, Eguzkierripa Rock jaialdian. | KALAMITY BLUE BAND

## Kalamity Blue Band gaur Sastiñan (20:00): jarrera eta umorea barra-barra

**J.B.** | ARAMAIO  
Udaleko Kultura Sailak ekaineko egubakoitzak zuzeneko musika giroa erabaki du aurten ere. Bada, gaur Aramaio Kalamity Blue band taldea izango da Sastiñan (20:00). Talde aramaiorrek umorea eta jarrera eskainiko du barra-barra, Eguzkierripa Rock jaialdiko bazkaloan egin zuten moduan. Lau lagun dira: kaxa, baxua, gitarra eta ahotsa. Honela deskribatu dute euren estiloa: "Afrika barnealdeko tribu zahar baten soi-

nu australopitekoa entzutean euren potpourri antzeko bat jotzen hasi ginen, eta hor hasi zen gure istorioa, bidaia mistiko baten".

### Udalari mezua

"Pozik" daude etxean joko dutelako, baina Udalari mezua bat helarazi gura diote: "Gure proiektua aurrera eramateko dirulaguntzarik ez digute eman, aitzakia tontoak jartzen dizkigute euren estiloa: "Afrika barnealdeko tribu zahar baten soi-



XABIER HERRARTE

## Aramaiorrek ederto Arabako Promozio txapelketan

Aramaioko pilotak badu harrobia. Joan den zapatuan Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokaturako Arabako Promozio txapelketako finaleran Aramaio bi bikote aritu ziren: benjamin mailan, Asier Del Campo eta Julen Olaizola eta alebin mailan, berriz, Mikel Ibabe eta Jon Herrarte. Del Campo eta Olaizola finala galdu eta txapeldunorde geratu ziren. Ibabe eta Herrartek, ordea, alebin mailako finala irabazi zuten —goiko argazkian ageri dira biak, Xabier Herrarte entrenatzailearekin—. Zorionak, bi bikoteei!

## 'Herrira'-k egitarau berezia antolatu du jaietarako: 'Kanto'-ren aldeko aldarrikapena ozen entzungo da

Aramaioko *Herrira*-k egitarau berezia antolatu du San Martin jaietarako. Ekainaren 29an, 20:00etan, emango diete hasiera jaietara, txosnen irekierarekin. Luis Mari Azkargorta *Kanto* preso aramaiorren aldeko aldarrikapena "ozen" entzungo da, eta, gainera, 2009ko Korrikaren edizioan euskal presoan argazkiak eramategatik terrorismoa goratzea egotzi dioten Aramaio herritar bati urtebeteko espetxealdia ezarri izana salatuko dute.

## ELGETA

## Zirkulazio mozketak eragingo ditu bihar jokatu den rallyak

L.Z. | ELGETA

Durungalde Racing taldeak antolatuta, Euskadiko txapelketarako puntuagarria den Bizkaiko Behatokiko Rallya jokatu da bihar, zapatua. Erlojuaren kontra neurtzeko bost zati izango ditu lasterketak. Goizean bi zati egingo dituzte lasterkariak, baina Bizkai aldean ibiliko dira. Arratsaldean gerturatu dira autoak Elgetara. Erlojuaren kontrako hiru zati egin beharko dituzte, eta hirurak igaroko dira Elgetako lurretatik.

### Zirkulazio mozketak

Rallya dela eta Elgeta inguruko zenbait errepide itxi egingo dituzte bihar. Elorriotik Elgetarako errepidea itxita egongo da 15:00etatik 19:30ak arte, eta

Angiozartik Kanpanzarrerako bidea 16:00etatik 20:30ak bitartean. Zirkulazioan eragin txikiagoa izango du, baina Elgeta eta Soraluze arteko bidea ere itxita egongo da 15:00etatik 20:00etara.

### Ikusleendako gomendioak

Elorrio-Elgeta igoera izango da lehenengoa, 15:55ean; jarraian, 16:15ean hasita, Elgeta-Soraluze egin beharko dute; eta azkenik, 17:00etan hasita Angiozar-Kanpanzar. Antolatzaileek Asentzioko zatia gomendatu diete ikusleei. Autoak kanpoan aparkatzeko eskatu dute, zaborra ondo kudeatzeko, apurketarik ez egiteko, eta lasterketa ikusteko leku segurua aukeratzeko; "Hobe bi metroko altueran bada", adierazi dute.

## Jaien batzordeak tablet bat oparitu dio Ferixa Nagusiko egunean argazki onena ateratzen duenari

Argazki lehiaketa antolatu du Jaien batzordeak Ferixa Nagusiko egunerako, eta argazki onenaren egileak tablet bat izango du opari. Arauak sinpleak dira: argazkiek ferixa egunean ateratakoak beharko dute, eta parte-hartzaileek gura beste argazki bidali ahal izango dituzte. Hori bai, domekako 15:00ak baino lehen bidali beharko dituzte [ferixanagusiak@elgeta.net](mailto:ferixanagusiak@elgeta.net) posta elektronikora. Egunean bertan banatuko dute saria, eta iluntzean argazki guztiak herriko tabernetan proiektatuko dituzte.

## OHARRAK

### SORTU SORTZEN BATZARRA

Hilaren 15erako deitutako herri batzarra gaur, ekainak 22, egingo dute, 19:30ean, udaletxean.

### BISITA GERRA-GUNERA

Domekan 10:00etan hasiko da bisita gidatua. Erreserbak egiteko deitu 943 71 89 11 telefonora. Prezioa da bi euro 6-16 urte artekoendako eta bost euro 16 urtetik gorakoendako.

### MUSIKA IKASLEAK

Lorea Larrañagaren musika ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute domekan, hilak 24, 12:00etan, Espaloian.

### KZGUNEAK

Dinamizatzailea Elgetako KZgunean izango da astelehenean, hilak 25, 09:00etatik 13:00etara. Ikastaroak doan egiteko aukera egongo da.

## LEINTZ GATZAGA

## Sardina usainarekin eta sua eginda dator San Juan bezpera

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gainerako herrietan legez, gatzagarrek ere ongiatorria egingo diote udari bihar, San Juan bezpera. Ohitura den legez, ilunkeran sardinak erreko dituzte San Migel plazan (21:00) eta ondoren sua isiotuko dute (22:00). Dantzan egingo dute gero herriarrek suaren inguruan; hain zuzen, atzo egindako ikastaroan ikasitako dantza. Jakinarazi digute ez dela *San Juan dantza* izango, samurragoa baizik; hala, ume, gazte eta heldu, guztiak anima daitezten.

Ez da izango herriko su bakarra, hainbat baserriaren ere egingo dituzte-eta.

### Dorletan su txikia

Gurel guraso elkarteak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu aste bukaerarako. Gaur, esaterako, ludotekaren ikasturte agurtuko dute kalean egingo dituzten jolasekin.

Bihar, udako solstizioaren ongiatorria ospatuko dute egun pasa eginda. Goiz partean Dorletara joango dira su txiki bat egin eta egunaren gaineko istorioak kontatzera, eta gero elkartean bazkalduko dute. Arratsaldean, ostera, irak banatuko dituzte herriko atarteetan, sasoi batean egiten zuten legez. Eta gauean Udalak antolatutako ekitaldiekin egingo dute bat.

# Eskolako neska-mutikoek gaur hartuko dituzte udako oporrak

Bihar, San Juan bezpera, ogitartekoak banatuko ditu guraso elkarteak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Egun seinalatuak dira honakoak Elgetako Herri Eskolako neska-mutikoendako. Seigarren mailakoek aste bukaeran egin zuten ziklo amaierako ikas-bidaia. Bi egun egin dituzte Castron; piraguan, arku tiraketan, igeriketan, txirrindularitzan... askotariko ekintzak egin dituzte, eta oso pozik itzuli dira. Atzo, berriz, bi eta hiru urteko gelako neska-mutikoak Atxondon egin zuten goiz pasa. Gaur, ikasturteari amaiera emateko eguna da.

Eskola jarduna 14:00etan amaituko da, eta bazkaria ere berezia izango da; eskolako ikasleak eta irakasleak jolastokian elkartuko dira bazkaltzera. Eta 14:00etan hainbestetan amestutako udako oporrak hartuko dituzte umeek; "Opor luzeak", euren hitzetan. Irailaren 6ra arte etengo dira eskolak Elgetako ikastetxean.

### Maala guraso elkarteak

Ikasturtea amaitzen den honetan Maala guraso elkarteak kideak lanean dihardute. Gehienbat hurrengo ikasturteko eskolaz kanpo jarduerak antolatzen ari dira. Azken ikasturteotan eskolaz kanpoko ingeleseko eskolak gida-



Seigarren mailako neska-mutikoak ikas-bidaian. | VANESA MUÑOZ

tu dituen irakaslea baja izango da irailetik aurrera, eta guraso elkartetik ordezkioa topatzeko ahaleginean ari dira.

San Juan bezperarako, aldiz, ogitartekoak prestatuko dituzte. Guraso elkarteak ikasturtea amaitu aurretik egiten duen azken ekintza da. Hala, urtero legez, San Juan sua piztu aurretik banatuko dituzte ogitartekoak Bolatoki inguruan.

San Juan sua, berriz, skate parkearen ondoan egingo da. Eguaztenean hasi ziren neska-

mutikoak erretzeko materiala batzen, eta dagoeneko pila polita egin dute. Inork materiala gehiago izanez gero badu non bota.

### Saskibaloia saio irekia

Gaur, barikua, saskibaloian trebatzeko aukera izango dute adin guztietako neska-mutikoek. Bergara Kirol Elkarteak Alex Gardoki izango da Elgetan. Saskibaloia saio irekia egingo du 17:00etan hasita kiroldegian. Adin guztietako umeendako da, bereziki seigarren mailakoendako.

## Udalak, azkenean, mailegua eskatuko du

Foru-fondoa itzultzeko 38.000 euroko mailegua eskatuko du; finantzazio plana onartuta dago

L.Z. | ELGETA

"Gure irizpidea da bizi dugun egoera ekonomikoan ezin dugula mailegurik eskatu", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak apirillean Goierna telebistan egindako elkarrizketa batean. 2011ko foru-fondoaren itzulketak hamaika tirabira sortu ditu Elgetan. Erostarberen hasierako planteamendua izan zen aurrekontuan murrizketak egitea, tartean Uematik irtetea edo 2012-2013 ikasturteko kirol zerbitzuen hasiera urtarrilerako

atzeratzea. Baina murrizketa proposamenak Bilduren hasieraren eragin zuten; kudeatzen zituen bi batzorde-burutzak lagatzerainoko hasierara. Asentziora aurreikusita dagoen inbertsioa ez egitea nahikoa da, Bilduren ustez, 2011ko foru-fondoa urtea amaitu aurretik itzultzeko.

### Finantzazio plana

Martitzenean, lau urterako finantzazio plana onartu zuen udalbatzak. Mailegua onartzeko Aldun-

diak ipinitako baldintza da plan hori aurkeztea. Erabakia hartzeak ez zuen osoko bilkuran eztabaidarik piztu. "Behartuta gaude onartzera", esan zuen EAJko Patxi Basaurik. "Ulertzen dugu plangintza bat egin behar dela, baina jarraitzen dugu pentsatzen Elgetan badagoela foru-fondoa ordaintzeko beste bide bat", adierazi zuen Bilduko Janire Lazkanok.

"Baten batek beste planteamendu bat badauka prest nago osoko bilkura atzeratu, eta proposamen hori aztertzeko", esan zuen Erostarbek. Baina ez zuen inork beste planteamendurik aurkeztu, eta bozketa egin zuten. Aldeko botoa eman zuten Aralar-Independenteak taldeko lau zinegotziek eta EAJko biek. Bilduko hiru ordezkariak abstenitu egin ziren.

ERDIKO DENDA  
Janari denda - Ogia - Kafea

Jai zorientsuak elgetar guztioi!

Gudarien bidea 6 ■ 943 76 81 07 ■ Elgeta

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
20690 ELGETA

**FUTBOLA****Vanesa Gimbert** | Espanyol taldeko futbol jokalaria

# "Berezia izango da Euskal Selekzioarekin Anoetan jokatzeari; nire debuta izango da"

- ▶ Vanesa Gimbert futbol jokalaria bergararrak Kopa irabazi du Espanyol futbol taldearekin
- ▶ Euskal Selekzioarekin lehiatuko da bihar, zapatua, Eslovakiaren kontra, Anoetan

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bihar, emakumezkoen Euskal Selekzioak lehenengoz izango du nazioarteko talde bat aurrean, Eslovakia. Eta selekzioaren elastikoa jantzita Anoetako zelaian izango da Espanyol taldean jokatzen duen Vanesa Gimbert (Bergara, 1980). Selekzioak aste barruan hainbat entrenamendu saio egin baditu ere, Gimbertek gaur egingo du lehen lan-saioa. Eta bihar Anoetan izango da.

**Berezia izango da biharko partidua.**

Bai, niretako oso berezia izango da. Anoeta moduko futbol zelai baten, eta, gainera, Euskal Selekzioarekin... Denboraldian zehar kontrario izan ditudan jokalariekin egongo naiz taldean, eta polita izango da. Pena da partidua ostean Bartzelonara itzuli behariko dudala, Espanyoleko taldeekin denboraldi amaierako afaria daukat-eta.

**Izan ere, Espainiako Selekzioarekin bai, baina Euskal Herrikoarekin ez duzu inoiz jokatu, ala?**

Ez, nire debuta izango da. Azkenean, kanpoan jokatzen dugunok zailago dugu Euskal Selekzioarekin jokatzeari, entrenamendu saioak -eta halakoak egiteko zailtasunak izaten ditugu, kanpoan bizi garelako. Espainiakoarekin, berriz, 50 partidua inguru jokatuko nituen.

**Espanyol taldean jokatu duzu. Zer moduz?**

Oso denboraldi polita izan da, Espainiako Kopa irabazi dugulako. Pena, datorren denboraldiari begira kili-kolo dagoelako taldearen etorkizuna, ekonomikoki kluba ez dagoelako unerik onenean. Ez digute ezer esan, eta ez dakit bertan segitu ahal izango dudana.

**Euskal Herrira itzultzeko asmorik ez? Hemengo taldeek ez dizute inoiz eskaintzarik egin?**

Realak ez, baina Athleticetik urtero deitzen didate. [Barre] Athleticeko Iñigo Juaristik gertutik jarraitu izan du nire kirol ibilbidea, baina, kontu batengatik edo bestearengatik, inoiz ez dut Athleticekin fitxatu.

**Irailean, akaso, inguruan ikusiko zaitugu.**

Batek daki; diodan moduan, Espanyolen ez daude gauzak oso garbi.

**32 urte beteta, urte asko geratzen zaizkizu futboleari?**

Ez! [Barre] Boladak izaten ditut, batzuetan fisikoki sentitzen naiz eta beste batzuetan gehiago kos-



Vanesa Gimbert, Espanyol futbol taldearen elastikoarekin. | SENTIMENTPERICO.COM

**"Espanyolen egoera ekonomikoa ez da ona, eta ez dakit segituko dudana"**

**"Realak ez dit inoiz deitu, baina Athleticek bai; batek daki..."**

**"Bizi izateko ematen du futbolak, justu-justu; lana bilatu behar gero..."**

tatzen zaigu errekeratzea. Baina garbi daukat nire futbol ibilbideari ez zaizkiola urte asko geratzen.

**Hala ere, oso kirol ibilbide oparoa izan duzu.**

Bai. Gaztetan gurasoekin Bergaratik Kordobara joan nintzen, eta han jokatzen ibili ostean Levanten egin nuen profesional mailara salto. Valentzia aldean lau urte egin nituen, eta handik Huelvara joan nintzen denbora baterako,

Estudiantes taldean jokatzen. Handik Sevillarako bidea hartu nuen eta hiru urte egin nituen han, beste hiru urte Rayo Vallecano taldean, eta Madrildik Bartzelonara, Espanyol taldera. Espanyolen bi urte egin ditut.

**Eta urte hauetan guztietan hainbat txapelketa irabazi dituzu.**

Guztira, lau Superliga irabazi ditut (bi Levanterekin eta beste bi Rayo Vallecanorekin), Kopa bat eta Superkopa bat.

## Selekzioaren futbol partidua bihar Anoetan

Euskal Herriko emakumezkoen futbol selekzioak nazioarteko lehenengo partidua jokatuko du bihar, zapatua, Anoetan (16:30). Eslovakiako selekzioa, munduko 36. onena, izango du aurrez aurre. **Hamaika gara** lelopean antolatuta dituzte ESAITek, Euskal Herria Kirolak eta Kontseiluak lagunarteko partidua; gainera, futbol partidua batera, egun osoan zehar ekintzak izango dira Anoeta inguruan.

Bada, partidua ikusteko, 6 urte baino gutxiago dituztenak doan sartu ahal izango dira, 6 eta 14 urte bitartekoek 5 euro ordaindu behar dituzte eta 14 urtetik gorakoek, aldiz, 10 euro.

**Futbol jokalaria profesionala zara. Emakumezkoetan posible da hori?**

Possible bada, baina ez pentsa gizezkoen moduan bizi garenik, edo haiek beste irabazten dugunik. Eguneroko soldata ateratzeko moduan ibiltzen gara, baina jendeak ikasteko aprobetxatzen du. Izan ere, gure kirol ibilbidea amaitzerakoan lan bila hasi behar izaten dugu.



Kopa irabazi berritan, Vanesa Gimbert -behean, eskuinetik laugarrena- taldekideekin ospatzen. | WWW.RCDSESPANYOL.COM



Ziklistak Portaleten, zaleen animuak jasotzen. | GOIENA

## ZIKLOTURISMOA

## Euskal Herritik ziklista uholdea joango da, urtero moduan, 'Quebranta' probara

Beste behin errekorra hautsita, 11.000 ziklista baino gehiago batuko dira bihar Sabiñanigon

X.U. | ARRASATE

Bihar, zapatua, 07:30ean, 11.192 lagun pedalei eragiten hasiko dira, Sabiñanigon hasita 205 kilometro egiteko asmoarekin (Treparriscos probakoak geroago irtengo dira). Bistan da Quebrantahuesos probak hazten jarraitzen duela, geroago eta parte-hartzaile gehiago dituelako, horietako asko nazioartetik etorritakoak. Gauza bakarra da aldatzen ez dena: ziklista gehien eramaten duen lurraldea Euskal Herria da (2.500 txirrindulari), eta halaxe azpimarratu zuten ekainaren 15ean egin zuten probaren aurkezpenean. Deigarria da Aragoiko bertako zikloturista kopurua ez dela Euskal Herritik joandakora iristen.

Urtero moduan, Debagoienetik ziklista koadrila galanta abiatuko da gaur Pirinio aldera, *Quebranta*-ra, eta haien jarraitzaileekin egingo du asteleheneko *Goiena* paperak (saillapenak batuko ditugu). Iaz bailarako 157 lagun izan ziren proban (Frantzia osotik joandakoak

baino gehiago) eta gehienek lortu zuten proba amaitzea. Bailarakoen artean azkarrena Oskar Askasibar izan zen, eta saillapen orokorrean 24. postuan helmugaratu zen, 5:48ko denbora egin da; aurten ere irteera puntuan izango da Elgetakoa.

## Ez da lasterketa

Quebrantahuesos proba ez da lasterketa, baina lasterketa balitz bezala antolatuta dago (denbora neurtzen den momentutik), eta halaxe korritzen dute ziklistek. Denetik dagoela esango du norbaitek, baina saillapenean akatsen bat dagoenean jasotzen dugun dei eta mezu kopuruak erakusten du jendeak ze garrantzi ematen dion proban egindako denborari.

## Ziklista ohi asko

Bihar ziklista profesional izandako hainbat lagunek hartuko dute esku proban; tartean, Abraham Olano, Fernando Escartín, *Chechu* Rubiera eta Joseba Belokik.

## AUTOMOBILISMOA

# Bizkaiko Balkoiko rallya gurean bihar

Elgetan eta Asentzion korrituko dituzte rally horretako hiru tramua

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Euskadiko Rally Txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Bizkaiko Balkoiko laugarren edizioan. Lasterketa hori Durangalderacing taldeak antolatzen du, eta probak izango dituen bost tramuetatik –guztira 70 kilometro– hiru Debagoieneko korrituko dituzte.

Rallyko lehenengo bi tramuak, goizekoak, Bizkai aldean izango dira. Lehenengo Goiuriko igoera (5,3 km) eta bigarrena Munitibartik Maguma auzora (12,3 km). Eta arratsaldean etorriko dira Debagoien aldera. Rallyko hirugarren tramua (16:00) Elorriotik Elgetarainoko igoera izango da (3,4 km) eta laugarren tramua jaitsiera ikusgarria, Elgetatik Eibarrera bidean eskuinaldera hartu, eta GI-3331 errepidetik, Goimendi auzotik Soralezera jaitsiera, Sagarrekerara: "Oso jaitsiera tekniko da. Ez da oso azkarra, errepide estua delako eta kurba itxiak dituelako, baina bai oso ikusgarria",

adierazi digu lasterketako antolatzaileetako batek, Aketza Santa Colomak. Lasterketako azken tramua (19:30) Asentzion hasiko dute, handik Elgetaraino igo eta Kanpanzarren amaitzeko.

## 75 automobil

Biharko rallyan 75 automobilerik hartuko dute esku, eta horietatik hiru dira ibarreko pilotuak. Asentzionko Iñigo Errastik Xabi Eguren izango du kopilotu lanetan (Clio Sport), Oñatiko Aitor Arnaizen ondoan egongo da Joanes Uria (R5GT Turbo) eta Eskoriatzako

Gorka Idigoras eta Joseba Frutos ere lasterketan izango dira (Opel Astra GSI). Garaipenerako faboritoa, baina, beste bat da: "Iazko irabazle Xabier Lujua da faboritoa. Gainera, haren autoari (Mitsubishi Evo X) hainbat moldaketa egin dizkio, eta badirudi asmatu egin duela moldaketa horiekin".

Euskadiko Rally Txapelketak denetik du, hori da ezaugarri nagusia: "Tramu oso azkarrak ditu, baina baita tramu teknikoak ere, igoera eta jaitsiera gogorrek". Hala, txapela jantzi gura duenak denean moldatu beharko du ondo.

## Hamabi ordu auto barruan

Pilotuak 08:00etatik izango dira auto barruan: "Egia da tramuren bat gauzez egitea ikusgarria izango litzatekeela, baina bestela ere pilotuek nahikoa ordu pasantzen dituzte auto barruan, eta antolatzaileek lana ere zaildu egingo litzateke". 21:30ean egingo dute sari banaketa, Durangon.

## ESANAK

"Soralezera egiten den jaitsiera oso ikusgarria da"

AKETZA SANTA COLOMA | ANTOLATZ.



Gorka Idigoras eta Joseba Frutos Opel Astrarekin egongo dira Durangoko irteera puntuan. | JULIO CALLEJA

## FUTBOLA

### Reala eta Zaragoza aurrez aurre Bergaran, San Inazio egunean

Realak eta Zaragozak lagunarteko partidua jokatu dute Bergaran uztailearen 31n. Txuri-urdinak uztailearen 2an hasiko dira hurrengo denboraldia gertatzen, eta, aurreikusitako lagunarteko partiduen artean, San Inazio egunean Bergarara etorriko dira. Manolo Jimenezek zuzentzen duen Zaragoza izango dute aurrean.

## TXIRRINDULARITZA

### Irizar ez da Tourrean egongo; Velasco Vueltari begira entrenatzen hasi da

Radioshack Nissan Trek taldeak aditzera eman du Tourrean ze txirrindulari eramango dituen, eta Markel Irizar ez da bederatziko horretan egongo; Oñatikoa lehenengo ordezkoa da. Bestalde, Suitzan erorikoa izan eta gero, Iban Velasco atzo bertan zen entrenatzen hastekoa; poliki-poliki, Espainiako Itzulia prestatzeko lanetan hasi da.

## ATLETISMOA

### Uztailaren lehen egongo dute Torreazoko krosa; zabalik dago izen-ematea

Antxintxiketan Atletismo Taldeak antolatuta, datorren uztailaren lehen egongo dute Torreazoko krosa Oñatin. Ia zortzi kilometro izango dituen lasterketan parte hartzeko, Mendizabal Kirolak dendan eman daiteke izena (10 euro), edo *kirolprobak.com*-en. Egunean bertan ere eman ahal izango da izena.

**vibike**  
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. 400 m<sup>2</sup>ko erakusketa zure zain.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • [www.vibike.com](http://www.vibike.com)

*Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik,  
alde batera hiru soineko,  
utzirikan lau bestetik;  
guraiziakin berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun Euskadi  
guraizitzat Bidasoa,  
hibai koxkor bat besterik ez da  
hutsa... balitz itsasoa.  
Elkarren hurbil daude zazpiak,  
muga daitzen da Pausoa.  
Zergatik izan ez behar degu  
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan  
sortzen diran landareak  
bezala gara Bidasoaren  
bi aldetako jendeak;  
berdinak dira gure jatorri,  
ohitura eta legeak,  
ama euskarak magal berean  
hazitako senideak.*

**EUSKAL PRESOAK**



**EUSKAL HERRIRA**

**Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:**

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Iturriotz,  
Mondra taberna, Muxibar, Osorik eta Taupa.**

**ARRASATEKO  
SAN JUANAK 2012**



# KULTURA

## Txorbela otxotea: Suediaren eta Euskal Herriaren arteko zubia

- ▶ Stockholmen eta Visbyn egingo dituzte kontzertuak, Suedian
- ▶ Arrasatearrek frantsesez eta suediarrez ikasi dituzte abestiak

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Bi kulturaren arteko topaketa ederra izango da datorren astean Suedian. Euskaldunak eta bikingoak aurrez aurre, euren kultura zabalduz eta uztartuz. "Historia benetan polita da. Txorbelako kide batzuk Donostiako Orfeoia-aren bitartez Suediara joan ziren; han harremana, kontaktua egin zuten. Hona etortzeko, haiek ere otxotea sortu zuten, Suedian ez dute-eta horrelako abesbatzarik", kontatu digu Tomas Axpek, Txorbelako kideak.

Stockholmeko operako abesbatzako profesionalak propio osatutako otxotea iaz sanjuanetan izan genuen Arrasaten, Txorbelak antolatuta. "Domekan gu joago gara Suediara. Bi kontzertu emango ditugu: 26an, Visbyko St. Nicolai elizan eta 27an, Stockholmeko St. Jacobs elizan. Gure artean sekulako giroa daukagu, oso pozik gaude, otxoteko partaideez gain, gure lagun minak ere etorriko dira-eta Suediara; ilusioz gaude".

Otxotearen ezaugarrien gainean galdetu diogu Axperi: "Zortzirekin funtzionatzea zaila da; normalean, 11-12 lagunek osatzen dute. Lau ahots motak osatzen dute: baxua, baritonoa eta lehen eta bigarren mailako tenoreek, hain zuzen".

Euskal kantu tradizionalak dituzte oinarri. "Hemengo kantuekin hasi ginen, baina gure erreperatorioa asko zabaldu da. Beste hizkuntza batzuetan ere kantatzen dugu; egun, 80 kantu ditugu", azaldu digu Axpek. Suediarako aukeraketa egitea zaila



Arrasateko Txorbela otxotea, iaz, Suediako Ragnarök otxotearekin –oraingo Varangoi–, sanjuanetan. | TXORBELA

ESANAK

"Suedian ez zituzten otxote abesbatzak ezagutzen"

TOMAS AXPE | TXORBELAKO KIDEA

izan dela dio. "Varangoi abesbatzarekin batera abestu behar ditugu sei bat kantu; horregatik, euskaraz, gaztelaniaz, latinez, suedieraz eta frantsesez ikasi behar izan ditugu kantuak".

Zuzendariak egin dutela aukeraketa azaldu digu: "Elizako erreperatorioa, munduko kantuak eta nork bere herrialdeko kantuak eskainiko ditugu". Izan

ere, otxoteak horregatik dira ezagunak, bertako kantuak zabalteagatik. Hala, bikingoak *Boga boga*, *Maitia nun zira*, *Azokan*, *Ai Ama Euskalherria* eta *Goi-zeko izarra* kantuen olatura igoko dira, Suedia euskaldunagoa eginda. Zuzendari lanetan Jabier Alberdi eta Bo Wannefors arituko dira.

**Txorbela, tradizioari eutsiz**

"Ezkutuan dagoen abesbatza mota da; bailaran oso gutxi daude. Otxoteak Arrasaten orain dela 40-50 urte puri-purian zeuden. Guk elkartzea erabaki genuen orain dela lau bat urte; lehengo tradizio hori errekueratu nahi izan genuen hainbat abesti gal ez zitezen", azaldu digu Axpek. Jendeak emandako berotasunarekin harrিতa daudela ere kontatu digu: "Oso harrera ona izan dugu, harrিতa gaude jendearen erantzunarekin, oso pozik".



Txorbelako kideak, Erreterian egindako otxoteen topaketan. | TXORBELA

MIKELI WANNEFORS  
ANTOLATZAILEA

"Bi kulturaren arteko loturaren erakusle dira zuzenekoak"

Mikeliren aita da Varangoi otxotesuediarren zuzendaria. Euskal Herrian bizi da eta primeran ezagutzen ditu gure ohiturak eta hizkuntza.



**Euskal kultura Suedian zabaltzen ari da.**

Oso polita da hori ikustea. Suediarrek ez zuten ezagutzen otxotea. Gure bi kulturaren arteko lotura da.

**Euskaraz egingo dute?**

Euskaraz eta suediarrez kantatuko dute. San Nikolai eliza garrantzitsua berritu egin dute, eta otxoteen kontzertua estreinaldia izango da.

**Erreperatorio kuriozkoa.**

Euskarazko ahoskera asko landu dute suediarrek, eta alderantziz. Stockholm hiriburuaren erdian bi hizkuntzak entzuteko irrikaz gaude.

Suediako euskal elkarte

Gonbidapena Suedian bizi diren euskaldunei eta euskal elkarteko kideei –60 lagun ingururi– egin diete; Arrasateko Txorbela otxoteak eta Stockholmeko Varangoi otxoteak elkarrekin eskainiko duten bi kontzertuetarako gonbidapenak dira, hain zuzen ere.

Visbyn eta Stockholmen bertan izango dira emanaldiak. "Oso berezia eta hunkigarria" izango dela azpimarratu digute bi otxoteetako kideek.



Zeintzuk dira Deba ibaiak zeharkatzen dituen hamar udalerrriak (bost Debagoienekoak eta bost Debabarrenekoak)?

Erantzun galderari eta aukera izango duzu Jakioneko otar bat irabazteko

SARRERAK  
EUREKA MUSEOA

ikusteko gonbidapenak. Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko. Pertsona bakoitzendako bi gonbidapen.



IRABAZLEA

EUREKA MUSEOAn  
Musikaren Egunerako eta  
udako soltziziorako sarrerak

Izen-abizenak:  
Joxemari  
Muxika Arrieta  
Herria: Arrasate

goienakluba<sup>™</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

Astlehenean irabazleak!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.

goienakluba<sup>™</sup> 2012



# Nazioarteko 'clown' tailerra Bergaran

Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean gustu guztietako 'clown' tailerrak antolatu dituzte

MAIDER ARREGI | BERGARA

Oihulari Klown taldeak zenbait ikastaro antolatu ditu udarako Bergaran. *Clown*-ean hasteko eta sakontzeko ikastaroak izango dira. Ikastaro guztiak Bergarako Aibar baserrian, San Juan auzoan egingo dira.

Hala, Virginia Imaz eta Jose Carmelo Muñozen eskutik, uztaileko nazioarteko *clown* tailerra antolatu dute. Uztailearen 2tik 20ra bitartean, 140 orduko formazio trinkoa egingo dute Bergaran. Plaza mugatuak dira. Uztailearen 4an, 11n eta 18an goizez, 10:00etatik 15:30era; uztailearen 7an eta 14an, libre. Gainerako egunetan, 10:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara. Prezioa 1.300 euro da. Ikastaroa,

ostatua eta jatorduak barne. Informazioa jasotzeko eta izena emateko [formacion@oihulariklown.org](mailto:formacion@oihulariklown.org) edo 607 20 45 03 eta 943 76 97 90 (Virginia edo Jaione) telefono zenbakietara deitu behar da.

## Kurtso gehiago udan

Hasiberriendako kurtsoak ere antolatu dituzte ekainerako. Asteon, zapatuan eta domekan egingo dituzte, gainera, Bergaran. Ordutegia, 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Prezioa: 200 euro. Kurtsoa, ostatua eta jatorduak barne. Ekainaren 25ean eta 26an, aldiz, binakako jolasaren egiturak landuko dituzte, ordutegi berarekin.

Eta abuztuan ez aspertzeko, gehiago: abuztuaren 21etik 24ra, *clown* eta sorkuntza ikastaroa



Argazkian, *clown* tailerrak emango dituzten irakasleak. | OIHULARI CLOWN

egingo dute, ordutegi berarekin. Prezioa: 400 euro. Kurtsoa, ostatua eta otordua barne. Izena emateko azken eguna: abuztuaren 10a.

Abuztuaren 25etik 26ra, aldiz, hasiberriendako *clown* ikastaroa egingo dute, eta abuztuaren 20ra arte duzue izena emateko aukera, interesa izanez gero.

## Biodantza

Irailean *clown* eta biodantza ikastaroak egingo ditu Oihularik. Irailaren 15erako eta 16rako antolatu dute. Aurea Gartzia Florezek gidatuko du kurtsoa. Bertan, espresioa, jarrera eta gorputz atalak landuko dituzte. Helburua

ondo pasatzea da, gure gorputza ezagutzeko eta entzumena eta inprobisazioa landuz.

Biodantza ikastaroaren matrikulazioak 240 euroko kostua du eta hura ere Bergarako Aibar baserrian egingo da, 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.



laz Antton tabernan emandako zuzenekoan. | ANTTONROCKTABERNA.BLOGSPOT.COM

## Uda giroan, garage eta surf festa Gora Gora Kids taldearen eskutik Antton tabernan gaur

M.A. | OÑATI

Ia urtebete pasa da Gora Gora Kids taldeak Antton tabernan zuzeneko eskaini zuenetik.

Oraingoan ere motorrak berotzerat datoz, eta denak dantzan jartzeko gogotsu. *Horror Songs* EPa aurkeztera datoz. Izua, abenturazko zinema eta istorio espazialen inguruko lau abesti batzen dituen diskoa da. Martxoan kaleratu zuten binilo formatuan. "Beldurrezko filmen estetika dauka diskoak; hortik dator *Horror Songs* izena", azaldu zigun orduan Arkaitz Villar bateria-jotzaile oñatiarrak.

"Guretzat hau guztia denbora-pasa hutsa da. Beti izan gara musikazaleak eta orain dugu aukera musika egiten saiatzeko. Ez gara musikari profesionalak, baina ondo pasatzen dugu". Eta kaleratutako lanaren gainean galdetuta, honelaxe deskribatzen

du Villarrekin: "Oso naturala da diskoa. B serieko filmen edo fantzine kulturaren eragina du. Bat-bateotasuna gustatzen zaigu; ez dugu mezurik helarazi gura. Oso abesti motzak dira, letra gutxiok, gauza oso batego eta azalekoa egitea da asmoa, mezu transzendental bakoa".

Helburua jendea mugiaraztea dela esan digute euren surf-ye-ye estilo erakargarriarekin. Zuzenekoari begira egindako diskoa dela diote taldekideek, eta ziur inor ez dela geldirik geratuko. "Guk primeran pasatzen dugu entseguetan eta baita kontzertuetan ere. Asteon behin elkartzen gara entseatzeko eta hilean kontzertu bat eskaintzen dugu", diote.

Garagea, rock-and-rolla, surfa eta dibertsioa barra-barra Anttonen gaur, 20:00etan.

## Arrasate Musikalek ikasturtea agurtuko du eta San Juan jaietan murgilduko da

M.A. | ARRASATE

Domekan, San Juan egunean eta jaien barruan, Arrasate Musikaleko bandak urteroko kontzertua egingo du Monterron parkean. Ikasturtea agurtuko dute ohi duten moduan zuzeneko jendetsua eskainita, 13:00etan hasita.

Aurretik, baina, 11:30 inguruan, kalejira egingo dute herriko kaleak alaituz.

## Askotariko errepertorioa

Jose Ramon Vitoriak 1994an sortutako musika bandak, askotariko doinuak prestatu ditu domekarako. Besteak beste, Mikel Markiegi zuzendariak gidatuta, Straussen *Voces de primavera*, Guridiren *Ezpatan dantza*, Mecano taldearen doinuak eta Markiegiaren *Amaika gazte* entzuteko aukera izango da.



Arrasate Musikaleko kideak Moterronen. | ARRASATE MUSIKAL

## Ongietorri festak San Juan giroaren bueltan

M.A. | OÑATI

DBHko ikasketak hastear dituztenendako disko festa izango da gaur, 18:00etan, gaztelekuko topalekuan: Saund Proyect DJaren eskutik ongi-torri festaz gozatzeko aukera egongo da.

Eta bihar, San Juan bezperaz gozatzeko, 8 urtetik gorakoendako ongi-torri festa izango da Kuboan, 17:00etan hasita.

Domekan, hilaren 24an, berriz, Paperezko Hegazkinen V. Txapelketa izango da, Kuboan bertan, 17:00etatn hasita. Hegaldia ez ezik, paperezko hegazkinaren diseinu originalak ere kontuan izango dituela azaldu digu epai-mahaiaik.

## Denboraldi bukaera borobila emango dio Txapa Irratiak

M.A. | BERGARA

Txapa Irrati libreak antolaturiko emanaldien barruan, NCC, Lobo Electrico, Safety Pins eta Screamin' Targets taldeak Bergarako gaztetxean zuzenean izango dira zapatuan, San Juan bezperan, 22:30ean hasita.

Kontzertuak entzuteko aukera izango da Txapa Irratiaren bitartez: FMan, 97.25 frekuentzian sintonizatuta Bergara inguruetan; Internet bidez,

[www.txapairratia.org](http://www.txapairratia.org) webgunean.

## Punk-rock gordina

NCC talde donostiarra Euskal Herrian egin den punk-rock musikaren adierazle nagusitakoa dugu; denbora luzean geldirik egon da, baina 20 urte bete ditu.

Screamin' Targets power pop-rockabillya egiten duen taldea da. %100 dantzagarria

eta konpromisorik gabea den pub rock zuzenarekin datoz.

Lobo Electrico *Artefactos Magicos* diskoa aurkezteko azken txanpan dabil.

Safety Pins bilbotarrak, aldiz, aski ezagunak dira. Punk gordinena eta erritmo bizia barru-barruan daramatzate. Historia duen taldea da eta dena ematera datoz zapatuan Txapak antolatutako kurtso amaierara.

# SANJUANAK 2012

# Zu eta su!

Sanjuanetan  
Zsu!

Herriko eragileen iritzia jaso osteko prozesu parte hartzailearen isla da aurtengo egitaraua. Zapiko leloak ere eredu hori jaso du: *Sanjuanetan Zsu!* San Juan *sua* eta jaietan *zuk* duzun garrantzia batzen ditu esaldiak.



## Gora San Juanak!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

☎ 943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

**Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:**

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.



SANJUANAK 2012 | ARRASATE



# Sanjuaneanetan ZSU!



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

## AGURRA

**INAZIO  
AZKARRAGURIZAR**  
Arrasateko alkatea

Sanjuanak  
2012

Urtea pasatu da ziztu bizian, urte hau oso berezia izan da niretzat eta pribilegiatua sentitzen naiz jaiak iragarriko dituen agur hau idazterakoan.

Urte guztiko nekeak eta tentsioak sutara botatzeko unea iritsi da. Arrasatearren ilusioak berrietzeko edo aspaldiko asmoak betetzeko Sanjuanetako gau magikoa dugu momentu aparta.

Herritarren jaiak izatea nahi izan dugu, guztionak. Horretarako, festa-eredu parte hartzailea sustatzen saiatu gara, dagoenetik abiatu eta berria eraikitzen, arrasatearrok arrasatearrentzat egindako jaiak izan daitezten.

Jaietako aurrekontua estutu behar izan dugu, bainaguregogoak eta ilusioak gorakada berezia izan dute. Arrasatearrok izan behar gara, ezinbestean, San Juansuarengarrak bitziko ditugunak.

Prestatu dugun egitaraua denon gustukoa izatea da gure asmoa, helburu horixe ardatz hartuta buru-belarri ibili gara eta.

Jaiak nahi bezala gozatu ezin dituztenak bereziki gogoan ditugu, baita arrazoi ezberdinengatik urrun daudenak ere.

Konplexu, buruhauste eta nekeak alde batera utzi. Eta izan daitezela Sanjuanak guztientzako askeak, eraso sexistarik bakoak.

Askatu ditzagun barruko sorgin eta deabruak! Sanjuanetan zsu!!  
Gora, Arrasate!!

## ERRETRATU ZAHARRA



## Danborradaren oihartzuna

Danborradak Arrasaten belaunaldi zahar eta berriak erakartzen dituen erakusle dira bi argazki zaharrok. Goikoa 1972. urtekoa da. Aurpegi aski ezagunak ageri dira bertan. Esaterako, Juanito Artzamendi zen orduko zuzendaria (bonboaren aurrean). Haren aurrekoa, berriz, Felix Aiala da. Danbor-joleen artean, beheko aldeko betaurrekoduna Pedro Balantzategi da eta haren atzekoa Ezkurra, besteak beste. Haurren danborradari dagokionez, berriz, 1981eko da, Garibai dorrearen aurrean ateratakoa. Argazki esanguratsua da, bereziki, erakusten duelako zela aldatu den Arrasate urteotan: lehen, Lasagabaster dendaren aurrean ziburuak zeuden, zuhaitzia eta parean Biteri Eskolak.

**Argazkiaren egilea:** Rafa Fernandez eta SUDC elkarteak, hurrenez hurren.  
**Lagapena:** Udal Artxiboa. **Urtea:** 1972 eta 1981.



# JOMA

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A  
Gipuzkoa Etorbidea, 32  
20500 ARRASATE



*Ondo pasa San Juanetan!*

**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,  
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

**Leintz**  
GARRAIOAK, S.L.

*Ondo pasa  
San Juanetan!*

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,  
**txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.**

LEINTZ GARRAIOAK S.L.  
Musakola, 20 (Pereda)  
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19  
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com  
www.leintz.com



# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUBAKOITZA

# 22

**18:00** TXOSNEN IREKIERA.

**19:00** MANIFESTAZIO koloretsua, Seberotik. Bukaeran preso eta iheslarien senideei omenaldia, txosnagunean. Ondoren, Herrira taberna irekiko dute Amaiur tabernan, espetxe politikaren gastuei aurre egiteko.

**21:00** KANTU AFARIA, Jose Letona plazan.

**23:00** Bezperaren bezperako *rock festival* txosnetan: BONGO BOTRAKO, ITZIARREN SEMEAK ETA LOS CRETINOS.

## ZAPATUA, SAN JUAN BEZPERA

# 23

► Goiz osoan Alde Zaharrean VIII. Herensugea MARGO LEHIAKETA, Arrasate Margo Taldeak antolatuta.

**12:00** TXUPINAZIOA ETA PREGOIA. Gero, 12:30ean,

TRIKIPOTEOA egongo da, txosnetan hasita.

**14:30** Koadrilen arteko BAZKARIA, Uarkapen.

**14:30** Harresi aretoan, PINTURA lehiaketaren SARI EMATEA.

**16:00** Arrasateko TXISTULARIEN DIANA.

**16:30** ETXAFUEGOAK eta GRANADA JAPONIARRAK, Biteri plazan.

**17:00** Biteri plazan, *Konfetti* ikuskizuna, GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO pailazoen eskutik.

**17:00** Makalarekin PASIO



Trikilari gazteak alde zaharreko kaleak alaitzen. | JULIO CALLEJA



laz, koadrilen arteko herri bazkaria Uarkape pilotalekuan. | JULIO CALLEJA

TXIKITERUA, plazaraino, Dragoialde txarangak girotuta.

**18:30** Herriko Plazan MAKALA jasotzea.

**19:30** San Juan Bataiatzailearen parrokian, SALVE SOLEMNEA.

**20:00** BALLETI KORA taldearekin kalejira.

**20:30** Uarkapen DANBORRADAKO

KIDEEN AFARIA egingo dute.

**21:00** ERREMENTARI DANTZA, Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek hartuko dute parte.

**22:30** SAN JUAN SUA, Herriko Plazan.

**23:00** Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan barrena, NAGUSIEN DANBORRADA, SUDCEk antolatuta.

► Gero, Herriko Plazan, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.

**01:30** Gaztetxean DJ Rude Banka.

## DOMEKA, SAN JUAN EGUNA

# 24

**08:00** TXOKOLATADA, Arbolapetan.

**08:30** DIANA, Arrasateko gaiteroekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ibilbidea:

Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Laubide. Gero, zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

**11:00** San Juan Bataiatzailearen parrokian, MEZA NAGUSIA.

**11:00** Arrasateko Erraldoi eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

**11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDA eta ARRASATEKO GAITEROekin KALEJIRA. 11:30ean Seber Altuben elkartuko dira Konpartsa, Musika Banda eta Gaiteroak.

**12:00** Herriko Plazan, OHOREZKO AURRESKUA eta San Juan ZORTZIKOA danzatu dute.

**12:00** Segway eta txikientzat Ezy Roller ibilgailu dibertigarria erabiltzeko aukera Biteri plazan.

**12:30** Etxaluzen OMENALDIA 8 URTETIK GORAKOEI.

**13:00** Monterronen, KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik.

# ANE LASAGABASTER

## HORTZ KLINIKA



Ondo pasa  
jaixetan!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartera B • Tel.: 943 79 13 68  
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

- ▶ *Amaika Gazte* (arm. Mikel Markiegi)
- ▶ *Voces de Primavera* (Johann Strauss Jr.)
- ▶ *Ezpatan dantza de Amaya* (Jesus Guridi)
- ▶ *The Legend of Ali-Baba* (Bert Appermont)
- ▶ *Five Minutes with Cole Porter* (Cole Porter)
- ▶ *Mecano* (Nacho Cano eta Jose Cano)

**18:30** EUSKARAZ BIZI arratsaldea txosnetan.

**18:30** *Sonata a cuatro pies* ANTZEZLANA Biteri plazan, Teatrino di Piedi taldearekin.

**19:30** Zezen-plazan, ERREKORTADOREEN TXAPELKETA.

**20:00** Trapu Zaharra taldearen ANTZEZLANA, Seber Altuben.

**21:00** Herriko Plazan DRAGOI JANA.

**23:00** ZEZENSUZKOA, erdiko kaleetan.

**23:00** BODOLOGUAK, Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu aktoreekin, Monterronen.

**23:30** Herriko Plazan, OIHAN VEGAREKIN, DISKO FESTA.

**ASTELEHENA,  
HAURREN ETA GAZTETXOEN  
FESTA EGUNA**

**25**

**08:30** DIANA Arrasateko gaiteroekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea,

Zerkaosteta eta Laubide. Gero, zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

**10:30** Biterin HAURGUNEA eta Zaldibarren GAZTEGUNEA irekiko dituzte, 14:00ak arte.

**12:00** EGUZKILARUri ongietorria Biteri plazan.



Erraldoiak dantzan Herriko Plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

**12:00** Maisu Aranon, *Zeuk in zeuk jan* BAZKARIAREN prestaketa.

**12:30** Kalejira ROCKBOX rock fanfarrearekin.

**13:30** APAR JOLASA Jokin Zaitegi plazan.

**14:30** *Zeuk in zeuk jan* koadrilen arteko BAZKARI HERRIKOIA, Maisu

Aranon. Gero, KARAOKEA.

**17:00** Herriko kaleetan STREET BOULDER txapelketa.

**17:00-18:00** Haur eta gazteendako JOLASAK eta TAILERRAK Kondekuan.

**18:30** ERREKORTADOREEN ESKOLA gaztetxoentzat zezen-plazan.

**19:00** PIRITX, PORROTX eta MARI MOTOTS Monterronen. Gero, EGUZKI LARUri agurra.

**19:00** Kalejira ROCKBOX rock fanfarrearekin.

**20:00** Seber Altube plazan, *Mediopelo* ikuskizuna, GANSO&CIA tadearekin.

**22:30** ZEZENSUZKOA.

**23:00** Santa Barbaratik, SUZKO ERROBERAK, Astondoa pirotekniaren eskutik.

**23:00** BETAGARRI, EGURRA ETA KITTO eta DROPI taldeak, txosnetan.

**23:15** Herriko Plazan, DANTZALDIA Luhartz taldearekin.

MARTITZENA

**26**

**08:30** DIANA Arrasateko gaiteroekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Laubide. Gero, zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

**11:00** Arrasateko ERRALDOIEN eta KILIKIEN KONPARTSAREN KALEJIRA.

**12:00** Arrasateko trikitilariekin, KALEJIRA.



Ezy Roller ibilgailuan. | JULIO CALLEJA

**12:00** SEGWAY eta txikientzat EZY ROLLER ibilgailu dibertigarria erabiltzeko aukera, Biteri plazan.

**12:00-14:30** Herriko Plazan eta Eusko Labelen eskutik, OILASKO dastatzea GOIKOBALU abesbatzaren laguntzarekin.

**12:00** INCANSABLES txaranga kaleak girotzen ibiliko da alde zaharrea.

**14:30** Biteri plazan, danborradako partaideen eta lagunen arteko bazkaria.

**18:30** ZIRIKA ZIRKUS taldearen eskutik, *Txarlestroup* ikuskizuna, Seber Altuben.

**18:30** ERREKORTADORE GAZTETXOEN ESKOLA, zezen-plazan.

**19:00** INCANSABLES txaranga kaleak girotzen ibiliko da alde zaharrea.

**19:30** Herriko Plazan, SOKA DANTZA.

**20:00** ERDIZKA LAUETAN taldearen laguntzarekin dantza errazak ikasi eta dantzatzeko aukera.

 **epele**  
Calderería

**UDAKO IKASTAROAK  
MATRIKULA ZABALIK**

AKADEMIA

**BASTIDA**

URTEURRENA-ANIVERSARIO  
**50**  
1962-2012

**KURTZO KONBINATUAK**



Mekanografia + Ingelesa  
Informatika + Ingelesa

- INFORMATIKA
- MEKANOGRAFIA
- ADMINISTRAZIOA
- INGENIARITZA
- DISEINUA
- LAGUNTZA KLASEAK

Uztailen, 09:00-12:00. 8 eta 16 urte artekoentzat

*Ondo pasa  
San Juanetan!*



Kepa Urteaga | Kultura zinegotzia

# "Prozesuak argi utzi du: parte-hartze barik ez dago jairik"

Egitaraua egiteko orduan herritarren iritzia kontuan hartu du Udalak, prozesu parte-hartzaile baten bidez

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurten San Juan jaietako egitaraua zehazteko abiatutako prozesu parte-hartzaileak fruituak eman dituela uste du Kepa Urteagak, Kultura zinegotziak, eta, prozesua egitarauan islatzeaz gainera, parte-hartzea jaietan ere presente egongo dela espero du. **Ahalegin berezia egin duzue aurten jaien antolakuntzan herriak parte har dezan. Zergatik?**

Jaiak herriak herriarendako egin behar direla ulertzen dugu eta ideia hori indartzeko beharrezkoa ikusten genuen prozesu parte-hartzaile bat abiatzea. Herritarrek jaietz kalean gozatu behar dutela izan da ondorioetako bat, espazio txikietan egin beharrean. Horrez gain, ekintzetan ikusle soil izan baino gehiago, herritarrek parte hartu behar dutela ere ondorioztatzen dugu. Beraz, parte hartzea eta kalean egitea; hori nabarmendu dugu, bereziki.

**Prozesuarekin gustura? Zenbat bilera egin dituzue?**

Idea ona izan da, kulturagintzan beti da-eta ona herritarrei zer gura duten galdetzea. Are gehiago, herriko jaiak antolatzeko badira. Hasieratik garbi geratu da egin dugun bileretan: herritarrek ez badute parte hartzen, ez dago jairik. Bost bilera egin ditugu denon artean eta aparteko bilera batzuk ere egin behar izan ditugu ekintza bereziak antolatzen dituzten taldeekin. Txosna batzordekoekin, adibidez, aparte bildu behar izan dugu, egitarau propioa dutelako. Prozesu parte-hartzaile

le gehienetan moduan, denon artean hartu dira erabakiak, talde txikietan bildu ostean.

Aukeraketa egiteko orduan ideia jarrioa oinarritu gara; hau da, ez dut uste ekintza bat bera ere erabat ukatu dugunik. Egingarriak zirenekin aurrera egin dugu, eta denbora faltagatik edo beste arrazoi batzuegatik egingarriak ez direnak jaso ditugu datozen urteetarako.

**Nortzuek hartu dute parte?**

Herriko kultura taldeak izan dira protagonista, baina norbanako moduan ere agertu dira batzuk. Gogotsu etorri dira, ideia berriak emateko eta egitarau ezberdin bat antolatzeko asmoz. Orokorrean, prozesuan parte hartu dutenek guk genuen inpresio bera zuten: jaietako lehen bi egunak oso beroak izaten direla, baina hirugarren egunetik aurrera giroa asko jaisten dela. Horri buelta ematen saiatuko gara.

**"Lehen egunen osteko beheraldiari buelta ematen saiatuko gara"**



Kepa Urteaga, Kultura zinegotzia. | JOKIN BEREZIARTUA

**Betiko ekitaldien artean badago aldaketarik edo nobedaderik?**

Prozesuan parte hartu duten guztiek hasieratik zekiten erremendari-dantza, danborrada eta Umeen Eguna ez zirela aldatuko. Logikoa da ondo funtzionatzen duten

ekintzak bere horretan mantentzea. Ekitaldi horiek hain errota daude, aldaketa txiki batek ekitaldi osoa aldatzea eragin dezake, eta hori ez genuen nahi.

**Egitarauko nobedadeez gain, badago aipatzeko moduko beste berri-tasunik?**

Kartel handia berreskuratu dugu, eta jaiak ospatzen dabiltzan bitartean ze ekitaldi dagoen jakiteko aukera emango duen poltsikozko egitaraua ere aterako dugu, herritarrek unean bertan zer dagoen jakin dezaten.

**"Kalean egitea eta parte hartzea, hori da prozesuan nabarmendu dena"**

## JUBAR®

ATEAK, S.L.



Garajeko atea  
Segurtasunezko pertsianak  
Automatismoak  
Konponketak  
Urrutiko agente tresna homologatuak  
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak

**GORA,  
SAN JUANAK!**





**ALDEDI**

**Ondo pasa jaiak!**

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

## SAN JUAN

Igaz ere San Juan San Juan zan eta  
aurten ere San Juan Bautista (bis).  
Jesukristoren lehengusua zan  
San Juan San Juan Bautista (bis).

Hau da egia dana guzia  
Kontsolatutzeko Euskal Herria (bis).

Ibai guztiak agortu dira  
arrain gaixuak egarriz (bis)  
Datorren urtian neska mutilak  
nun egingo dute igari (bis)

Hau da egia dana guzia  
Kontsolatutzeko Euskal Herria (bis).



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zure  
zerbitzura*

# Sanjuanak pareta, lepo eta poltsikoan

Aurtengo jaiak iragartzeko kartel handiak, poltsikoko egitarauak, zapiak eta leloa erabili ditu Udalak

UBANE MADERA | ARRASATE

Badira aste batzuk sanjuanetako kartelek koloreztatzen dutela herriko taberna, saltoki, pareta eta, oro har, puntu gehientsuenak. Justu, horixe izan da Udal Gobernuaren aurtengo erabakietako bat: aspaldiko partez, jaietako kartel iragarlea egin eta herrian ipintzea. "Badira urteak ez zela halakorik egiten. Kartel irabazlea egitarauko azalean bakarrik erabili izan da. Aurtengoa, berriz, handia ere atera dugu", kontatu dute Udaletik. Hain justu, 200 halako banatu dituzte dendari eta bestelako enpresen artean.

Eta berrietasun gehiago ere badira aurtengoa: poltsikoko egitarauak, zapiak, pegatinak eta leloa ere atera dituzte.

## Zapia, leloa eta pegatinak

Zapiari dagokionez, Arrasateko kolorea (morea) du oinarri eta *Sanjuanetan zsu* leloa esaldi. Gaur, egubakoitza, jarriko dute salgai.

Leloari dagokionez, esandako moduan *San Juanetan zsu!* esaldia aukeratu dute. Jaietan herritarrek (*zuka*) duten garrantzia, parte-hartzearen beharra eta sanjuanen irudi den *sua* azpimarratu nahi izan dute esaldi horrekin. Eta pegatinak ere aterako dituzte lelo berarekin.



Sanjuanetako kartel iragarlea. | ARRASATEKO UDALA

## Egitaraua, poltsikoan

Eta bukatzeko, poltsikoko egitarauari dagokionez, "jendeak aldean eramateko askoz erosagoa" dela

pentsatuta, halako 10.000 inguru banatu dituzte, etxez etxe. "Beti-ko egitaraua ere banatu dugu, baina", adierazi dute.

LUCAS FERNANDEZ | JAIETAKO KARTEL EGILEA

## "Erabilitako teknika antzinako Egiptokoa da"

Toledotik etorri zaigu aurtengoa sanjuanetako kartel irabazlea, Lucas Fernandez (Talavera de la Reina, 1977) delineaizalearen eskutik. Urrun samarretik etorri arren, baina, Fernandezek ondo asko ezagutzen ditu inguruak, eta hura ere ezaguna da inguruan.

### Bestelako lehiaketatan ibilitakoa ere bazara, ezta?

2008-2009an hasi nintzen parte hartzen eta harrezkero nahiko aurkezten ditut inguru hartan.

### Eta emaitza onak ere eskuratu izan dituzu...

Bai. Iaz Bilbokoan finalista geratu nintzen, Eibarko Inauterietako irabazi nuen eta 2010eko Donostiako Aste Nagusiko kartela nirea izan zen.

### Zela iritsi da Toledoko bat hemengo kartelak diseinatzeraz?

Emaztea Ermukoa da, eta ilusioa egiten dit hango lehiaketetan aurkezteak, hari eta haren familiari ilusioa egiten dielako. Horrez gain, EAE eta Nafarroa dira kartel lehiaketa gehien deitzen dutenak.

### Inspirazioa zelan eskuratzen duzu jaiak ezagutu barik?

Bada, ondo informatu beharra dago, eta, batez ere, jaiaren nabarmentzen duten hori irudikatzen modurik originalena bilatzen ahalgindu behar da. Arrasatekoa kartulinez egiten den filigranen teknikarekin egin dut. Nik banekien sua elementu garrantzitsua zela, eta dantzarien gainean informazioa



Lucas Fernandez. | ALBERTO TORRES

bilatu nuen, jantziak, koloreak, tonuak...

### Eskuz eginda dago?

Bai; badut arkitekto lagun bat, Laura Farelo, eskulanetan iaioa dena, eta hark lagundu dit. Nik ideia aurkeztu eta hark materiala

prestatu zidan: kartulina tirak batzen dira orratz batekin eta formak sortzen dira. Kartulina zapaldu eta marrazkia egiten

da, eta gero hari argazkia atera eta ordenagailuan sartzen da. Ordenagailuan egin nuen bakarra testua gehitzea izan zen. Oso teknika antzinakoa da kartulinen hori, antzinako Egipto garaikoa.

### Arrasatekoaren ostean, beste asmorik badaukazu?

Zaragozatik abisatu didate bigarren saria irabazi dudala; eta beste bi sari garrantzitsu. Bat aurrerazake: Donostiako aurtengo kartela ere nirea izango da; oso -oso pozik nago.

### "Donostiako aurtengo kartela ere nirea da; oso pozik nago"



autoen garbiketa

Jauregibarria 10 (Sarrera Erguin kaletik)  
ARRASATE  
943 84 99 88 / 673 30 43 74  
www.ponpa.info


## Zure autoa beti garbi!

- ◆ Garbiketa integrala.
- ◆ Larruaren tratamenduak.

Gora, San Juanak!

- ◆ Pinturaren deskontaminazioa.
- ◆ Fokuen eta karrozerien leunketa.

Astelehenetik ostiralera      Zapatuetan  
08:30 - 13:00 / 15:00 - 19:30      08:30 - 13:30



HORTZ KLINIKA  
UARKAPE


Nicolas Bermejo doktorea

*Odontologia orokorra*  
*Endodontzia*  
*Inplantologia*  
*Protesiak*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

# Carrefour

## GORBEIA



Ekainaren 23ra arte



Carrefour Discount  
Esne osoa, erdigaingabetua edo gaingabetua 1l

0,49 €

Behi-xerra primerakoa  
Kiloa

7,20 €



Oilasko-bularkia  
Kiloa

4,99 €



Legatz freskoa  
Kiloa

5,90 €

Sandia beltza  
Kiloa

0,55 €



# DIZATOZ LOAN\*

Carrefour

\*50€ baino gehiagoko erosketa eginda, Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu. Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.

Uztailaren 31ra arte

Carrefour   
GORBEIA

ARRASATE

ARETXABALETA

ESKORITATZA

carrefour.es



Herriko gazteek Uarkapen jasotzen dute makala, eta handik eroaten dute plazara. | JULIO CALLEJA



Inazio Azkarragaurizarrek bigarrenez egingo du alkatearen dantza. | IMANOL SORIANO

# San Juan bezperan makala, errementari-dantza eta sua

Aurten ere urteroko ohiturak jarraituz hasiko dituzte arrasatearrek jaiak

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Arrasateko jaietan udaletxe inguruan gertatuko den guztiaren testigu izango dena Udalak Elorekin duen lursail baten jaioren duela 50 urte inguru. 21-22 metro ditu, inklinazio aldetik ahalik eta zuzenena izango da

eta jaiak hasi aurreko egunean moztu eta aterako dute orain arte bere bizileku izan denetik.

Sanjuanetan falta ezin den makalaz ari gara. Urteroko eta aspaldiko ohitura da San Juan egunaren bezperako arratsaldean plazan makala jasotzea. 80ko

hamarkada erdi ingurutik hona, herriko gazteak arduratzen dira enborra plazara eroan eta altxatzeaz. Arrasateko gazteek, baina, lehenengo aldian Aretxabaletakoen laguntza behar izan zuten, Jorge Zubizarreta eta Alberto Etxeberria arduratu ziren-eta arlo teknikoaz.

Makala jasotzeko polea sistema duela 20 urte inguru asmatu zuen Udaleko aparejadore izandako Manolo Añibarrok, eta gaur egun gazteek Añibarro bera eta Jose Luis Etxeberria *Porru* izaten dituzte aholkulari makala jasotzeko zereginetan.

**Sua eta alkatearen dantza**

Makala jaso eta handik ordu batzuetara, errementari-dantzaren doinuek hartuko dituzte Arrasateko kaleak. Hala, Lore Gazteak eta Arrostitz taldeetako dantzariak kalejiran joango dira plazara, eta Portaloian ingurutxoak egiteko geratuko dira.

Plazara heldutakoan, ingurutxoaz eta polkaz gain, dantzaren atal esperoenetakoa etorriko da: alkatearen dantza, hain zuzen ere. Kukubiltxo taldeak egin eta ia lehen aldiz erabili zuten dragoiak sua piztutakoan egingo du dantza Inazio Azkarragaurizarrek, mila herritarren begiradapean. Errementari-dantza amaitutakoan, hala gura duenak suaren gainetik salto egiteko aukera izango du. Betiko ohiturak ez direlako galdu behar...

Ondo pasau San Juanak!

4X4 ESKATZEN DIOZUNEAN.

www.citroen.es



CITROËNek nahiago du TOTAL

CITROËN C4 AIRCROSS  
18.800 €-TIK AURRERA\*

Citroën C4 Aircross autoaren exijentzia maila eta abenturarako daukazu gogo bat datoz. Herri erdialdera osteratxoa egin nahi baduzu, aurrera. Herri erdialdetik ihes egin nahi baduzu, hortxe aukera. Eta egunen baten zeruertzen mugak ezagutu nahi badituzu, aurrean jartzen zaizun guztia zeharkatuz, hori ere egin dezakezu. Bi gupil eragile izatetik laura pasatzeak edo, are gehiago, Lock modura pasatzeak aukera ematen dizu gidatzeko modu berri bat eta norabide berri bat probatzeko egunero.



Kaptura ezazu bidi hori eta goza ezazu spotaz primizian.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 IGORPENA (g/km):  
CITROËN C4 AIRCROSS: 4,6 – 5,9/119-147

\* Prezio gomendatua Citroën C4 Aircross 1.6i Stop&Start 2WD Attraction autoarentzat (zergak, garraioa, eskaintza eta Renove plana barne), Banque PSA Finance bidez gutxienezko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako, trukean beste auto bat utzita (3 hilabetez autoaren jabea izanda) eta garantzia komertzialaren bi urteko luzapena kontratatzen dutenentzat (EssentialDrive 2+2 u 80.000 km kontratua, aurretik gertatzen dena), hilabetea amaitu arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Ikusten den modelo: Citroën C4 Aircross Hdi 150 6v Stop&Start 4WD Exclusive, ekipamendu aukerarekin. Eskaintza ez da bateragarria. www.citroen.es webgunean baldintzak kontsultatu.

# Laster hemen bizi ahal izango zara

**2 LOGELA**

**198.000€\***

**3 LOGELA**

**240.000€\***

\* Gehi BEZ.



Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza.



2013an zure etxebizitza eskuratuko duzu.



Ordainketa planifikatzeko denborarekin.

Gora,  
San Juanak!



INFORMAZIOA ETA SALMENTA

943 71 22 59 [www.sukia.com](http://www.sukia.com)



PROMOZIOAREN FINANTZAKETA  
ETA ADAL EMATEA

kutxa

UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN

sukia

GEDI

# Dragoi-janean, euskal giroa eta jokoak gauerdira arte

'Euskaraz jo ta fuego' da aurtengo dragoi-janak duen leloa

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Dragoi-jana San Juan jaietako egitarauan ondo errotutako ekintza da. "Partaide leialak ditu eta ekintza dagoenetan estimatzen dute. Beraz, aurreko urteetako ildo beretik joango da jaiak. Afari mundiala eta euskal giroa gauerdira arte San Juan egunean", azaldu digu Itxaro Artola AEDko kideak. Egunean bertan, arratsaldetik gauera arte hogeit bat lagunek lanean jardungo dute. AEDko eta Erdu-AEK-ko kideekin batera, Ttak! AEDko gazte talde berriko kideak ere izango dira.

Urtero bezala, 400 txuleta erreko dituzte. "Kopuru horrekin seguru lan egiten dugu, neurria hartu diogu. Azkeneko urteetan jendea txartel barik geratu da, baina, oraingoz, ez dugu igoko kopurua. Zaila da 400 txuletatik gora ordubetearen erretzea, ia ezinezkoa, eta horrek ekarriko luke batzuek oso berandu afaldu behar izatea. Gero, plazan ere, 400dik gora lagunentzako azpiegitura jartzeak plaza osoa okupatzea eskatuko luke, eta horrek asko baldintzatuko lituzke afaria girotzeko antolatzen ditugun ekintzak", dio.

*Euskaraz jo ta fuego* da leloa, dragoi-jana herri afari hutsa baino gehiago delako; jai giro eus-



Iazko dragoi-janean ateratako erretratua, Herriko Plazan. | GOIENA

kaldunean gozatzeko ekintza delako. Azkeneko bi urteetan bezala, Dragoi Tribiala izango da ikuskizun nagusia. Horrez gain, trikitalariekin kantuan egiteko aukerarik ere ez da falta

izango. "200 txuletatik gora ekarriko ditugu. Txuleta bakoitzak kilo erdi izango du. Gainera, erretzaile ia profesionalak ditugu antolatzaile taldean. Lauzpa-bost lagun ariko dira su eta gar-

artean eta izerdi-patsetan", gaineratu digu Artolak.

Txartelak AEDn, Iratin, Montan eta Kajoin. Saldu ez direnak afariaren aurretik (19:00), plazan erosi ahal izango dira.

## DATUAK

# 400

TXARTEL

Aurten ere 400 txartel jarriko dira salgai. Izan ere, zaila da 400 txuletatik gora ordubetearen erretzea eta denengana iristea.

# 200

KILO TXULETA

Murugaingo dragoi-haztegiko txuleta dastatzeko aukera izango da; txuleta bakoitzak kilo erdi izango du.

## Esertzeko argibideak

Aurten mahaiak zinta gorritz inguratuta egongo dira eta inor ezingo da eseri antolatzaileek non eseri behar duten esan arte. Azkeneko urteetan jendeak ohitura hartu du afaltzeko ordua baino askoz lehenago mahaitan esertzeko; horrek arazoa sortu zuen iaz: tarteetan hutsuneak utzi zituzten, eta, dirudienek, askok arazoak izan zituzten lagunekin batera esertzeko. Jendeak jarraian eseri beharko du, aulki hutsak tartean utzi barik, antolatzaileei kasu eginda.



- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, lorezaintza

Ondo pasa jaixetan!

Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88  
mondragon\_cespa@cespa.es



## ARGI-PLASTIK

### Leihoen fabrikazioa



jai zoriontsuak guztioi!

PVC  
ALUMINIOA  
ERREZEL HORMAK  
RPT ALUMINIOA  
AROTEGI MISTOA



*Uda ganean dugu, baina aurretik*  
**Amagarako talde guztiak San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue**



**Amagara**

Erdiko kalea 54 behea  
 ARRASATE  
 Tel.: 943 79 09 09

**Aurpegi eta  
 gorputz estetikan  
 adituak**



Aurpegi gaztetzea laserrarekin  
 •  
 Terapia mediko-estetikoak  
 •  
 Begien, bekainen eta ezpainen  
 mikropigmentazioa;...

Gorputz tratamenduak  
 •  
 Fangoterapia  
 •  
 Terapia mediko-estetikoak  
 •  
 Laser depilazioa (azal ilunendako)  
 •  
 Depilazio elektrikoa

**Etorri eta ezagutu  
 gure eskaintzak.**

PSE 228 / 10.

## Zure diseinua gauzatzen dugu.

■ Serie laburrak

■ Prototipoak

■ Kontrol tresnak



Serie laburren fabrikazioa erronka handia da enpresa askorentzat. Ekide, ordea, espezialista da serie laburretan.

Gure elkar-ingeniaritza zerbitzuak, bezeroen lantaldeekin batera lan eginda, prozesuak eta materialak optimizatzea posible egiten du emaitzarik hoberenak eskainiz.

12 teknologiatik gora integratzen dugu eta prototipoak eta kontrolerako tresnak ere fabrikatzen ditugu. Honela, sektore ugariako enpresen beharrei erantzuten diegu.

Ondo Ibili



San Juanetan!



Uarkape pilotalekuan egingo dute aurten ere koadrilen bazkaria, triki-poteoarekin motorrak berotu eta gero. | GOIENA

## Koadrilen bazkaria 23an

Eskaintza zabaldu arren, San Juan bezperako ohiko koadrilen bazkariak ez du hutsik egingo, eta, itxura guztien arabera, arrakastatsua izango da, gainera: lehen 400 txartelak egun bakarrean saldu zituzten; eta 200 gehiago, beste bitan.

17 euroekin bazkaria (makarroiak, piper beteak, solomoa, goxua eta edaria) eta Nafarroako konkistaren gaineko kamiseta izango dituzte bertaratuko diren 600 lagunek. Kamisetak jasotzeko: txartelarekin, gaur, gaztetxean.

# Merke, kantuz eta koadrilan bazkaldu eta afaltzeko moduak

'Zeuk iñ zeuk jan' izango da aurtengo berrikuntza nagusietako bat

### GOIATZ ARANA | ARRASATE

Txartela hemendik eta txartela handik, astindu ederra eman ohi diogu patrikari jaietan eta, hori saihesteko helburuarekin, herri bazkaria era ekonomikoagoan egiteko modua aurkitu dute arrasatearrek; ideia horrekin, eta jendearen parte-hartzea bultzatzeko asmoarekin.

Txistulari eta gaitariak proposatu zuten ideia eta *Zeuk iñ zeuk jan* izena ipini diote ekimeneri. "Orain arte, txartela ordaindu, mahaian eseri eta besteek prestatutakoa jan izan dugu, baina horri buelta eman gura izan diogu. Norberak prestatu dezala bazkaria, koadrila giroan, elkarren arteko pikea sortuz..." dio Kepa

Urteaga Kultura eta Jaietako zinegotziak.

Hilaren 25ean, Maisu Aranon izango da bazkaria, 14:30ean, eta han bertan egingo dituzte prestateta lanak ere, 12:00etatik aurrera; SUDC elkarte arduratuko da azpiegitura gertatzeaz: gasa, kazuelak, zartaginak... Udalak sagardo kupela jarriko du parte

-hartzailentzat eta azken horien esku egongo da musika, karaokea izango baita bazkalostea arintzeko. "Polita litzateke etxean nahiz elkarteetan bazkaldu ohi dutenak kalean elkartzea; eta aukera aproposa izango da baita ere Eguzki Laruren bueltan eguna umeekin kalean emango duten familientzako ere.

### Kantu afaria 22an

Ildo beretik, beste berrikuntza bat ere izango da aurtengo jaietan: kantu afaria, hilaren 22an, 21:00etan, Jose Letona plazan (Goizalde aurrean). Pianoa, biola, gitarra, txistua, soinua eta ahotsa uzartzen dituen talde txiki bat oholtza gainera igo eta euskal kantutegiko piezak joko ditu. Ez da talde profesionala eta eurekin kantuan egitera ahalik eta jende gehien animatzea izango du helburu. Lana errazte aldera, kantu liburuak banatuko dizkiete plazatorra hurbiltzen direnei.

Eta afaria? Antolatzaileek mahaia eta aulkiak ipiniko dituzte, gura dutenek afaldu edo zerbait hartu dezaten, patxada ederrean, kantuan egiten duten bitartean. Parte hartzeko aski da kantarako gogoia izatea; ez dago ez izena eman beharrik, ezta ezer ordaindu beharrik ere.

**Hemen**  
ascensores • igogailuak  
debagoiena

**ONDO PASA  
SAN JUANAK!**

**Gauzak argi**

Arrazoi horregatik, 500 komunitate baino gehiago gurekin daude.

**24 ORDUKO  
benetako zerbitzua**

## Gure TARIFAK

ARRISKU  
OROTARIKOA

OINARRIZKOA

24 orduko erantzuna erreskate eta abisuetan. Aste bukaerak eta jaiegunak barne, Tarifaren gainean errekar gurik izan barik.	✓	✓
Hileroko ikustatzea, Industriak jarritako arauen arabera.	✓	✓
Eskulana barne interbentzio guztietan.	✓	✓
Urtebeteko kontratuak; automatikoki berritzen dira urtero.	✓	✓
Prezioak KPIren arabera erregularizatuta.	✓	✓
Erantzunkizun zibileko aseguruak.	✓	✓
Apurtutako edo hondatutako pieza <b>GUZTIEN</b> aldaketa, kostu barik.	✓	

115€ tatic  
aurrera

90€ tatic  
aurrera

285 Postakutxa

ARRASATE • Tel.: 943 04 40 01 GASTEIZ • Tel.: 945 24 18 45

www.ascensoreshemen.com debagoiena@ascensoreshemen.com





*Ca* 

# Kanpanzar obate

— harrobiak —

*Ondo ibili San Juanetan!*

## ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

### KANPANZAR HARROBIA S.A.

Meatz-Erreka auzoa 21  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 77 10 83  
Faxa: 943 77 00 25

### KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.

Garagartza auzoa 52  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 71 24 03  
Faxa: 943 77 02 51

*Paraje eder baten kokatua*

*Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina  
Bazkaria hasteko beste modu berezi bat*



- ♦ Menu bereziak aukeran: 18 €
- ♦ Karta

**Arteaga**

Landetxea

Arteaga baserria  
Garagartza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel.: 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82

# ONDO PASA JAIK!



Eguzki Laru aurreko urteko San Juan jaietan umetxoekin jolas egiten. | GOIENA



Porrotx 2010eko San Juan jaietan Monterron parkean. | GOIENA

# Ekintza ugari Umeen eta Gaztetxoen Festa Egunean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak laugarrenez etorriko dira

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE

San Juan jaietako egun bat herriko umeei eta gazteei zuzendutakoa izaten da, urtero legez. Hori ekainaren 25a, astelehena, izango da. Izan ere, Umeen eta Gaztetxoen Festa Eguna ospatuko da Arrasaten.

Egun horretarako ekintza asko antolatu dituzte Arrasateko Udalak, Txatxilipurdi elkarteak eta Arrasateko txosnaguneak. Aurten, urtero izaten diren ekintzak antolatzeaz gainera, ekintza berriak ere gehi-

**Q**  
QUALITY

*Sanjuanetan, ondo pasa!*  
...eta  
*uda honetan*

**matrikula eginez gero, iPad bat eramango duzu!**

Sistema konbinatuko ikastaroetan

Ikasle helduentzat

Uztailaren 15era arte

**Aktiba zaituzte** MONDRAGON LINGUArekin  
ingeleza, euskara, frantsesa, alemana...

**Ikastaroak atzerrian**

**Trinkoak**

Ekainean, uztailean eta irailean... ez duzu ordu mugarik izango.

**Udaleku irekiak**

Haurrek jolasean eta ondo pasatzen duten bitartean ingeleza ikasteko aukera dute. Horretaz gain, gurasoentzako zerbitzua da, uztailean euren seme-alabek ekintza batean esku hartzen dute eta.

[www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)

▶ ARRASATE Araba etorbidea, 4. Tel. 943 71 20 55

▶ OÑATI Motxon, 7. Tel. 943 71 60 00



txoentzako jolasak eta tailerrak egongo dira Kondekua zelaian.

Gaueko berritasuna, aldiz, zezensuzkoaren irteera izango da. Izan ere, zezensuzkoa irtengo da 22:30ean, eta erdiko kaleetan zehar ibiliko da.

#### **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

Euskal Herriko pailazo ezagunak Arrasaten izango dira berriro ere San Juan jaietan. Dagoeneko laugarren urtea da jaietan Arrasatera etortzen direna. Aurreko urtean ezin izan ziren Haurren eta Gaztetxoek Festa Egunean izan, beste konpromiso batzuk zituztelako. Dena den, aurten ere Monterronen emanaldia eskainiko dute arratsaldeko zazpietan. Eta emanaldi hori amaitzen denean, Eguzki Laruri agurra egingo diote Monterronera bertaratzen diren herritarrek.

#### **Eguna amaitzeko**

Umeen eta Gaztetxoek Festa Eguna amaitzeko, azken urteetan ohitura den legez, Seber Altube plazan ikuskizuna ikusteko aukera egongo da. Bada, aurten, Ganso & Cia dira gonbidatuak, eta haiek *Mediopelo* ikuskizuna eskainiko dute, arratsaldeko zortzietan hasita.

Dena den, eguna ez da ekintza horrekin amaituko. Izan ere, gauerako hainbat kontzertu antolatuko dituzte. Txosnetan, esate baterako, Betagarri, Egurra eta Kitto eta Drop talde arrasatearrek kontzertua eskainiko dute, gaueko hamaiketean hasita. Ordu berean, gainera, su artifizial ikusgarriak ikusteko aukera egongo da Santa Barbaratik, Astondoa pirotekniaren eskutik.

Su artifizialak amaitzen direnean, Herriko Plazan dantzaldia hasiko da Luhartz taldearen eskutik.

tu dituzte egitarauan, herriko gazte eta umeek egunaz goza dezaten.

#### **Berritasunak**

Urtero gertatzen den moduan, ekintza berriak egoten dira egun horretan. Aurten, besteak beste, Eguzki Laruri ongietorria 10:30etan egin beharrean eguerdiko hamabietan izango da, Biteri plazan. Gainera, Eguzki Laruri ongietorria egin ostean karaokea hasiko da plaza horretan bertan.

Aurtengo beste berrikuntza bat haurgunearen eta gaztegunearen gainekoa izango da. Izan ere, beste urte batzuetan, Biterin egon izan den haurgunea eta Zaldibarko gaztegunea 13:30ak arte egon izan dira. Aurten, ostera, 30 minutu gehitu diote jardura horri, eta, horren ondorioz, 14:00ak arte egongo da bertan jolas egiteko aukera.

Arratsaldeko hitzorduetan ere berritasunak egongo dira. Izan ere, 17:00etatik 18:00etara, herriko umeentzako eta gazte-

## Zer da San Juan jaietatik onena?



#### **ALAITZ ETXEBARRIA**

6 URTE

"Niri San Juan jaietatik gehien gustatzen zaidana San Juan egunean egiten den dragoi-jana da. Bertan oso ondo pasatzen dut. Horrez gain, barrakak ere asko gustatzen zaizkit".



#### **JOSU OROBENGOA**

5 URTE

"Niri San Juan jaietatik ia guztia gustatzen zait: San Juan egunean egiten den dragoi-jana, barrakak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Umeen Egunean, danborrada...".



#### **JOSU AIERBE**

6 URTE

"Nik, San Juan jaietan egoten diren gauza guztietatik, barrakak eta danborrada aukeratuko nituzke. Barraketan oso ondo pasatzen dut eta danborrada ikustea ere asko gustatzen zait".



#### **ANE RINCON**

5 URTE

"Niri errementari-dantza gustatzen zait gehien San Juan jaietatik. Horrez gain, Eguzki Laru ere asko gustatzen zait, eta baita pailazoak ere. Umeen Egunean ere oso ondo pasatzen dut".



#### **LIDE AZKARATE**

6 URTE

"Errementari-dantza gustatzen zait gehien. Baina umeen danborrada ere gustatzen zait; gainera, aurten, lehenengoz hartu dut parte. Dragoi-janean ere oso ondo pasatzen dut".



# IKER

Bainu altzariak

*Ondo pasatu  
San Juan jaietan!*

#### **BAINU ERAKUSKETA**

Zarugalde 52

ARRASATE

Tel./Faxa: 943 79 99 42

# Egitarau oparoa txosnagunean

Txosnetako giroa indartzeko ekintza ugari antolatu dituzte, iazko lanari jarraipena emateko asmoz

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Iazko lanari jarraipena emateko asmoz, Arrasateko San Juan jaietako Txosna batzordeak txosnagunea indartzeko hainbat ekimen antolatu ditu. Txosna batzordeko kideen esanetan: "San Juanetan txosnagunean giroa indartzeko aukera dagoe la uste dugu, eta, horregatik, ekitaldi gehiago eta hirugarren txosna jartzea erabaki dugu". Hirugarren txosna hori 20:00etatik 00:00etara irekiko dute eta bertan afariak eskainiko dituzte. 2012ko Txosna batzordea beste urte batzuetan baino herriko eragile gehiagok osatzen dute; guztira, bederatzi kultur eta kirol elkarte eta bestelako eragilek osatzen dute aurtengo Txosna batzordea.

Antolatzaileek, herriko musika taldeei bultzada emateko asmoz, kontzertu guztietan Arrasateko talde bat sartu dute, eta, guztira, hiru izango dira: Los Cretinos, Garraxi eta Drop! Era berean, aurtengo jaietan Udal Gobernuaren laguntza azpimarratu nahi dute; izan ere, txosnetan egingo diren kontzertuetako

taldeak ekartzeko Udalaren laguntza izan dute.

Aurtengo San Juan bezpera zapatuan denez, Txosna batzordeak, herritarrek eta kanpotarrak erakartzeko asmoz, ekainaren 22an, egubakoitza, herriko jaiei hasiera eramateko erabakia hartu du. Txosnen irekiera arratsaldeko seietan izango da, eta, orduete geroago, 19:00etan, lehenengo ekitaldia izango da: Seber Altube plazan hasita, *Ez gaz danok* lelopean manifestazioa egingo dute eta gauean hiru kontzertu izango dira: Los Cretinos, Itziarren Semeak eta Bongo Botrako. Azken horiek Kataluniatik datoz, runba, ska eta reggae doinuekin, eta, besteak beste, *Y chipirón*, *todos los días sale el sol...* abesti famatuarekin.

**Herriko 9 kultur eta kirol elkarte eta eragilek osatzen dute Txosna batzordea**

**Ekainak 23, egun handia**

Nahiz eta egubakoitza herritarrek gogoz hartu, San Juan bezperan etxean ez geratzeko eguna antolatu dute. 12:00etan, Arrasateko eskubalo taldea aurtengo denboraldian egindako lan onarengatik –ia mailaz igotzea lortu dute– txupinazoa botatzeaz arduratuko da. Ekitaldi horrekin txosnaguneak jaiei hasiera ofiziala emango die, eta, horren ostean, erdiguneko tabernetan triki-poteoa egingo dute.

Triki-poteoarekin sabelean zuloa egin ostean, koadrilen herri bazkaria egingo dute Uarkape pilotalekuan. Aurtengo bazkariak izugarritzko erantzuna jaso du; izan ere, hasieran 400 txartel salgai jarri zituzten, eta, egun bakar batean saldu zirenez, beste 200 txartel jarri zituzten salgai. Beraz, 600 pertsona bilduko dira bazkarian.

Eta bapo bazkaldu ostean, 600 pertsonak Dragoialde txarangaren laguntzarekin makala hartu, eta, makalarekin poteoa egin ostean, 18:30 aldera, Herriko Plazan makala igoko dute. Gauean, berriz, DJ Rude Bankak



Egubakoitzean Bongo Botrako *Todos los días sale el sol* abestiaren sortzaileek emanaldia



laz Mondrako futbol taldeko neskek egin zuten pregoia. | JULIO CALLEJA

# JMA®

***belaunaldiz belaunaldi  
herriko sena landuz***

***gora arrasate,  
gora san juan***





egingo dute txosnagunean . | IBAI ACEVEDO WWW.BONGBOTRAKO.COM



Arrakasta handia izan zuen aurreko urteko Street Boulder txapelketak . | JULIO CALLEJA

emanaldia eskainiko du gaztetxean.

Domekan, San Juan egunean, goiz hasiko dituzte ekintzak: goizeko zortzietan *Esne beltza eta izeba mildrekin* entzierrorako prestatuko dira; hau da, txokolatea eta bizkotxo eskainiko dute *gaupaseroekin* batera indarrak hartu eta zezen-plazara joateko.

Zezenen ostean, txosnaguneak arratsaldea arte atsedean hartuko du. 18:30etatik aurrera, *Euskaraz Bizi* arratsaldea egingo dute: Ferrerías kaleko plazaxoan murla egingo dute eta *Euskaraz bizi nahi dogu, zuk zergatik ez?* lelopean triki-poteoa egingo dute. Gauean, berriz, Garraxi, Liskarra eta Desorden taldeak arituko dira gaztetxeko oholtza gainean.

#### Ekainak 25: Koadrilen Eguna

Ekainaren 25a, astelehena, Koadrilen Eguna da, eta ekitaldiz jositako egitaraua antolatu dute. 14:30ean, Biteri kalean, *Krisiaren aurkako bazkari autogestionatua*. *Zeuk iñ, zeuk jan* bazkaria egingo dute. Bertan, herriko koadrilek eurek egindako bazkaria izango dute, eta, horretarako, 12:00etatik aurrera, SUDC elkarteko kideen laguntza izango dute: elkarteko

#### Aurten hiru txosna egongo dira: bi edariek eta beste bat ogitartekoekin

kideek sua, lapikoak eta zartakinak jarriko dituzte. Beraz, koadrilek janaria eraman eta prestatu beharko dute, eta gero jan. Antolatzaileek aurrez izena emateko eskaera egin dute, udal langileek koadrila bakoitzeko mahai bat jartzeko eta SUDC elkarteko koadrila guztientzako sukaldatzeko materiala eramateko.

Bazkaldu ostean, giro bertzeko, karaokea egingo dute, eta ondoren, aurreko urtean harrera bikaina izan zuen Street Boulder txapelketa. Bertan, herriko eskaladazaleak erdiguneko zenbait monumentu eta etxetako fatxadak igotzen saiatuko dira.

17:30ean, txosnagunean, Txatxilipurdiko kideen laguntzarekin gazteentzako jolasak egingo dituz-

te. Izan ere, 19:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia izango da Monterronen, eta etxeko txikienak Euskal Herriko pailazo arrakastatsuenen emanaldiaren zain egongo dira, eta ume zein gurasoek itxaronaldi atsegina izan dezaten, Txosna batzordeak ekitaldi hori antolatzeko apustua egin du. Emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago, Txatxilipurdiko eta txosnetako kideak ume eta gurasoekin batera Monterron parkera joango dira.

Gauean, berriz, Drop!, Egurra ta Kitto eta Betagarri taldeen emanaldia izango da. Ekitaldi horrekin, Txosna batzordeak amaiera emango die jaietarako antolatu dituen ekitaldiei.

## EGITARAUA

### EKAINAK 22, EGUBAKOITZA

18:00 Txosnen irekiera.

19:00 Seberren hasita *Ez gaz danok* manifestazioa.

23:00 Bezperako Rock Festival: Los Cretinos, Itziarren Semeak eta Bongo Botrako.

### EKAINAK 23, ZAPATUA

12:00 Eskubaloi taldekoekin txupinazoa eta pregoia.

12:30 Txosnetan hasita triki-poteoa.

14:30 Koadrilen bazkaria.

17:00 Drogoialde txarangak girotuta Makalarekin poteoa.

18:30 Makalaren igoera Herriko Plazan.

01:00 DJ Rude Banka gaztetxean.

### EKAINAK 24, DOMEKA

08:00 *Esne beltza eta izeba mildrekin* txokolate-jana

18:30 *Euskaraz bizi* arratsaldea: murala egin eta *Euskaraz bizi nahi dogu, zuk zergatik ez?* lelopean triki-poteoa

22:00 Garraxi, Liskarra eta Desorden gaztetxean.

### EKAINAK 25, ASTELEHENA

12:00 Koadrilen bazkaria prestaketa Kastañero plazan.

14:30 *Zeuk iñ, zeuk jan* koadrilen bazkaria

16:00 Karaokea.

17:00 Herriko kaleetan Street Boulder txapelketa.

17:30 Txatxilipurdirekin umeentzako jolasak.

23:00 Azkena Dok/n Festival: Drop!, Egurra ta Kitto eta Betagarri.

# UMIE

Garibai 6 ARRASATE  
Tel.: 943 79 97 86

Ondo pasa San Juanetan!

Levi's  
KIDSWEAR

IKKS  
JUNIOR

CHIPIE  
KIDS

catimini



Jarrai gaitzazu  
Facebooken:  
UME ARRASATE



%30erainoko  
DESKONTUA



Emakumezkoak herriko kaleetan. | IMANOL SORIANO



Gizonezkoen konpainia iazko danborradan. | IMANOL SORIANO

# Biteri plazatik irtengo da nagusien danborrada

San Juan bezperan, 23:00etan, izango da danborrada Nestor Maidaganen zuzendaritzapean

## ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

San Juan bezperan egingo dute, ohiturari jarraituz, nagusien danborrada. Aurten, baina, aldaketa txiki bat izango du: irteera Biteri plazan izango da, 23:00etan. "Jende asko kexatu da esanez berandu iristen garela plazara; modu honetan, irteera herrigunera ekarrita, aukera izango dute danborrada ikusteko", azaldu du Juan Luis Arkauz danborradako antolatzaileak. Hala ere, azaldu digu parte-hartzaileak 22:30ean Biteri plazan egongo direla. Han danborradako pieza guztiak joko dituzte eta ondoren herriko kaleetan murgilduko dira. 12:00etara-ko iritsiko dira plazara.

Iaz 50 urte egin zuen danborradak; hala, aurtengoa 51. aldia izango du. "Ea beste 50 urte egingen ditugun", dio Arkauzek.

## Asmoak bertan behera

SUDC elkartearen asmoa izan da aurtengo danborradara Donostiatik konpainia berezi bat ekartzea: esko-petekin eta kanoiekin tiroak jaurtitzen dituztenak. "Euren proposamena geneukan, baina aurrekontua Udalera pasa genuen eta ezetza esan ziguten. Beste urte baterako utzi dugu proposamena", dio. "Pena hartu dut, bai, oso ikuskizun polita eskaintzen dutelako, baina ezin izan da. Ea, bada, beste urte baten ekartzen ditugun", gaineratu du.

## Zazpi konpainia

Aurten iaz baino konpainia bat gutxiago irtengo da danborradan, gaztetxeko konpainiak ez irtetea erabaki du. "Zazpi konpainia irtengo gara, 200 bat lagun", dio Arkauzek.

Beste berrikuntza bat izango da danborrada irekitzen joaten diren zaldiak ez direla irtengo: "Herri barruan bakarrik izango denez, uste dugu zaldi barik hobeto izango dela". Hala, Arrasateko bandera, ikurrina eta SUDCeko bandera eramaten dituzten neskak baserritar jantzita joango dira aurten. Zuzendari lanetan, azkeneko urteetan bezala, Nestor Maidaganek jardungo du. Gainera, aurten ere Araiako musika bandak lagunduko ditu Arrasateko musikariak. Eguraldiak laguntzea bakarrik falta da!

## Konpainia bat gutxiago irtengo da aurtengo danborradan

GARAIA  
JATETXEA



## Eguneko Menua Taldeen Bazkariak

Ondo pasau San Juanak!

Goiru Kalea 1. Arrasate. 943 71 02 28

garaia.ostalaritza@ext.grupogureak.com • www.grupogureak.com



Calburu

Calburu altzarte

GOZOTEGIA - OKINDEGIA - KAFETEGIA

ARRASATE  
OLARTE, 12 - 943 79 81 56

ARETXABALETAKO  
DURANA, 2 - 943 79 07 88

ANTZUOLA  
KALEBARREN, 18 - 943 76 62 94

Ondo pasa San Juanetan!

# Entzierroak herriko kaleetan zehar, egunero-egunero

Entzierroak eta errektadoreak izango dira 24an, 25ean eta 26an

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Urtero bezala, badatoz udarekin batera San Juan jaiak Arrasatera, eta baita entzierroak ere. Udari ongiatorria emateko aitzakia aproposa dira Arrasateko jaiak. Denetariko ekitaldiak daude aurreikusita, eta, urtero legez, aurten ere entzierroez disfrutatzeko aukera izango dute arrasatearrek. Adituek sarritan adierazi ohi dutenez, Debagoiengan betidanik izan da zaletasun handia zezenen inguruan. Eta badirudi gaur egun ere horrela dela. Izan ere, jende askok parte hartzen du entzierroetan eta ikusmin handia sortzen da herritarren artean. Horrenbestez, zezenzaleek aukera bikaina izango dute aurtengo San Juan jaietan ere.

Lehenengo entzierroa ekainaren 24an, domekan, izango da. Zezenak Orozkoko Manzarbeitia ganadutegitik etorriko dira; eta esan beharra dago 350 kilo pisazera ere hel daitezkeela zezenak. Entzierroa 09:00etan hasiko da eta ibilbidea urteroko bera izango dela adierazi dute antolatzaileek. Hain zuzen ere, Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Laubide kaleetatik igaroko ostean, zezen-plazan bukatuko dute entzierroa parte-hartzaileek. Eta entzierroa bukatzerakoan,



Laubiden dagoen zezenplazara iristeko azken metroak. | JOSETXO ARANTZABAL

zezen-plazan bertan, zaleentzako bigantxak aterako dituzte. Ondorengo egunetarako ere badaude entzierroak aurreikusita: ekainaren 25erako eta 26rako. Iñigo

Almorta ganaduzaleak adierazi duenez, "oso giro polita izaten da entzierroetan eta ondoren zezen-plazan. Publikoaren alde-tik oso erantzun ona izaten dute

honelako ekitaldiek, izugarritzko zaletasuna dago. Zezen-plazarako sarrerak agortu egiten dira". Horrenbestez, argi ibili beharko dute bertaratu nahi dutenek.

## Errektadore eskolak

San Juan egunean, ekainaren 24an, goizeko entzierroaz gain, errektadoreen Euskal Herriko txapelketa jokatu da, 19:30ean, zezen-plazan. Txapelketan hamabi errektadorek hartuko dute parte, eta Blas Cruz arrasatearra ere bertan izango da. Ondorengo egunetarako, ekainaren 25erako eta 26rako, gaztetxoentzako errektadore eskolak antolatu dituzte, 18:30ean, zezen-plazan. Euskal Herriko Errektadoreak taldeko kideak arituko dira gazteei irakasten. "Gazteek azkar ikasten dute eta animaliak errespetatzen ere irakasten diegu. Badirudi urte askotarako etorkizuna ziurtatuta dugula", dio Iñigo Almorta ganaduzaleak.

## Atzerritarrek ere parte

Antolatzaileek zezen-plazan sortzen den giro ona azpimarratu nahi izan dute. Denetariko jendea biltzen da bertan, "goizean goiz jaitzen direnak eta gaupasan datozenak. Hala ere, mozkorrek gero eta gutxiago dira, animatzen diren profila aldatu egin da", Almortzaren esanetan. Eta aipatzekoa da atzerritik datorren gero eta jende gehiago animatzen dela zezen-plazara sartu eta parte hartzen. "Adibidez, Arrasaten bada dominikar talde bat zezenen gainetik salto egitera ausartzen dena".

# San Juan jai zoriontsuak

San Juan eskaintza:

**%30** eko deskontua gorputz tratamenduetan

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**LIRAIN**  
ESTETIKA ZENTRUA





Bodologuak antzezlan, Elgetan egindako emanaldian. | JULIO CALLEJA



Trapu Zaharra antzerki taldekoen emanaldi bat. | MARTUTENE



Teatrino die Piedi antzerki taldekoen emanaldiko une bat. | GOIENA

# Domeka iluntzean kale ikuskizunak aukeran

Euskal Herriko eta kanpoko antzerki taldeek euren lanak erakutsiko dituzte Arrasateko kaleetan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Domekan kale antzerkiak gozatze-ko hiru hitzordu izango dira. Eta guztiendako aukera izango da, bai haurrentako, eta baita bagusiendako ere. Hala, domekan Teatrino die Piedi antzerki taldeak hasiko du kale-antzerki maratona.

**Italiako jatorriaz**

Teatrino die Piedi antzerki taldeak *Sonata a cuatro pies* antzezlan eskainiko du. Egia esateko, Laura Kibel artista italiarrak osatzen du talde hori. Ikuskizun horrek bisualki oso animazio berezia du, Kibelek bere gorputzeko atalak

erabiltzen dituelako txotxongiloei bizia emateko: eskuak, hankak, belaunak... Eta dekorazioak ere berak propio sortutakoak dira. Hala, atzerritik badator ere, umeez ez dute antzezlan ulertzeko arazorik izango, ez du-eta barbarik egiten.

**Trapu zaharra, Seberren**

Kale antzerkiarekin jarraituz, Trapu Zaharra taldekoek emanaldia egingo dute Seber Altuben, 20:00etan. Talde hori duela 30 urte sortu zuten, eurek dioten moduan, "handinahi handirik gabe, eguneroko bizitza aurrera atera ahal izateko eta egindako *ekintzekin* dibertitzeko asmoz". Asmo berekin jarraituko dute; hau da, kale antzerkiko gertutasunaz ikusleak entretenitzea. Besteak beste, *Aberiak*, *El Pisi-to* eta *Camping renove* lanak egin izan dituzte urte hauetan guztietan, eta seguru Seberren batzen

direnek tarte ederra igaroko dutela.

**'Bodologuak' Monterronen**

Eta barrezka jarraitzeko Seberretik Monterronera (23:00) Mikel Pagadik, Egoitz Lasak eta Nagore Aranburuk egiten duten *Bodologuak* lanaz gozatzea: euskalduna izatearen burukominak, Elizaren mundu zoragarria, elkarte gastronomikoak, euskaldunon oporrak, opari eta detaileak, etxeko animalien arropak, euskaldunok eta teknologia... Denetarik gaiak, eta denetan ere, umorea, gurea, euskalduna.

# Zorionak, Arrasate!

San Juanetan  
euskara  
ezpainenetan

aralar

www.aralar.net



**C** aroztegia  
arrascal

## ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA




### ZERGATIK GU EZAGUTU?

- 1 Denak ez garelako berdinak, diseinu pertsonalizatuak.
- 2 Nork bere gustuak dituelako, kolore gama handia.
- 3 Zenbat aldiz zabaltzen ditugu kaxoiak eta ateak? Horregatik, kalitatezko burdineriak
- 4 Etxe batean gauza asko daudelako gordetzeko, lekua ondo aprobetxatuta.

**SUKALDEAK  
BAINUAK  
ARMAIRUAK**

## ONDO PASA SAN JUANAK

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • [scarrasc\\_1@infonegocio.com](mailto:scarrasc_1@infonegocio.com)



**mm**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

aurretik doan unibertsitatea


Berrikuntza eta ikerkuntza oinarri dituen unibertsitate gaztea gara. Lan munduarekin zuzeneko eta etengabeko hartu emanean gaude, gizartearen beharrei erantzuteko prest.

*Bertako kulturaren sustraiturik, etorkizuna eraikiz.*

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

San Juanak  
2012  
Arrasate

3atoz!  
...gozatu gurean!



Amets • Bengoa • Branka • Itzala • Kimetz  
Lorategi • Okoretégi • Rumba • Txoko II

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aramaio.** Aukera ona. Gantza-gan etxe bakarra salgai. Egoera onean. 8.000 metro koadroko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta-arbolekin. 300.000 euro. 636 94 81 31

**Aretxabaleta.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela eta bi bainugela. 11 urte dauzka. Egoera oso onean. 228.000 euro negoziagarri. 696 55 53 67

**Arrasate.** Etxebizitza salgai edo alokagai. Duplexa, erdialdean. Hiru logela, ikasgela, egongela, sukaldaria eta komun. 110 metro koadro. Igogailu gabe. Hozkailu eta plater garbigailu berriak. Leihoak berriztuak 150.000 euro saltzeko eta 600 euro errentan. 665 72 66 58

**Mobil homea iratxen.** Nafarroan. Lizarratik 2 kilometro. Oso gutxierabilla. 3 logela: bat bikotearentzat eta beste biak bi oherekin bakoitza. Sofa-ohera ere bai. 6-8 pertsonarentzat. Lorategia eta portxea. 44.000 euro negoziagarri. Interesatuei argazkiak bidaliko nizkieke. 686 77 04 97 edo jm.urrataxi@hotmail.com

## 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan. Igogailuarekin. Berriztua. 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Jantzia. 636 73 54 94

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan Santa Krutz kalean. Bilogelakoa. Hilera 600 euro. 649 31 32 25

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean, unibertsitate ondoan. Hiru pertsonendako modukoak. 699 498 789 (Juan) edo 943 79 49 34

**Deba.** Etxebizitza ematen da errentan Hondartza kalean. Lehen ilaran. Uztail zein abuzturako. Hiru logela, egongela, jangela, sukaldaria eta komun. Kalerainoko igogailuarekin. 943 70 13 94 edo 609 44 95 91

**Gasteiz.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate aurrean. Berria, argitsua, handia (104 metro gehi terraza), bi logela eta bi bainugela. 676 16 86 61

**Jaca.** 65 metro koadroko apartamentua ematen da errentan uztail eta abuzturako. Bi logela eta egongelarekin. Erdi-gunean. Dena kanpoaldera begira. Komunitate gunea, nagusi zein umeendako igerilekuekin, sauna, jacuzzi eta bi squash zelarekin. Garajearekin. Guztiz jantzia eta hornitua. 609 47 86 91

**Torrevieja.** Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonendako lekua. Bilogela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

## 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. 667 34 89 40

## 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Pisua osatzeko pertsona baten bila gabilta. Uztailetik aurrera. Kontratuarekin. 657 72 51 65

**Elgoibar.** Logela daukat errentan emateko. 699 60 91 90

## 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Orozkon (Bizkaia) dudukan baserria eta pinudiak trukakatu nituzke Arrasateko etxebizitza bategatik. 2006an berritua, Gorbeia inguruan. Bilbotik 25 minutura. 678 72 75 72

**Trukea.** Saloun (Pineda) dudukan etxebizitza trukakatu nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. 943 79 45 74 edo 606 76 11 37

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Arrasate.** Zerrajerka kalean 15 metro koadroko gareje itxia salgai. Solairuartea dauka. 24.000 euro. 666 53 95 39

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargaraien. Gauzak gordetzeko apalategiarekin eta urritiko agintedun atarekin. 608 77 64 27 edo 671 36 12 96

## 3. LOKALAK

## 304. ERRENTAN HARTU

**Lokala errentan hartu.** Gutxienez 60 metro karratu inguruko lokal bat alokatuko genuke Bergaran garaje eta biltegi bezala erabiltzeko. Deitu 685 72 51 58 telefonora.

## 305. BESTELAKOAK

## DEBAGOIENA

Autokarabanak eta karabanak gordetzeko lokala daukat. 607448951 (Mikel)

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko emakumea behar da, goizez lan egiteko, 7:30etatik 13:30era. 695 70 35 25 edo 943 03 75 96

## OÑATI

Estetizista behar dugu. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 689 67 33 68

## Aretxabaleta

Esperientziadun pertsona behar dugu taberna martxan jartzeko. 943 53 38 27

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska, prest haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 688 88 39 57

**Arrasate.** Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko prest (garbiketa, plantxa, sukaldaritza, portalak...) 10 euro ordua. Erreferentzi onak. (Ana). 943 79 04 69

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska euskalduna, arduratsua, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eli. 645 00 75 24

**Arrasate.** Bertako emakumea lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu, etxeko garbiketak eta abar. Deitu 662 25 99 64 telefonora eta Juana Martinezengatik galdetu.

**Bergara edo Arrasate.** Emakumea prest etxe zein atarietako garbiketa lanak egin edo lisatze lanetarako. Deitu 671 80 18 29 telefono zenbakira.

**Bergara edo Arrasate.** Gizon-zakaria prest adineko pertsonak zaindu edo lorezaintza lanetarako. 617 02 54 72

**Bergara.** Neska euskalduna, goiz eta arratsaldez umeak zaindu edota eskolara eramateko prest. 676 69 56 20

**Bergara.** Neska gazte euskalduna gertu udan umeak zaintzeko. 617 80 87 85

**Bergara.** Umeak zaintzen edo nagusiak laguntzen zein garbitasun lan egiteko nuke. Esperientziaduna. Deitu 610 34 97 88 telefonora.

**Debagoiena.** 54 urteko emakumea gertu umeak zaintzeko, etxe, atari zein tabernak garbitzeko, edo jantzi lan egiteko. Esperientziaduna. 647 10 58 72

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, geriatria tituluduna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak atentitzeko prest baita ospitalean gauak pasatzeko ere. Erreferentziak. 664 63 54 55

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, geriatria tituluduna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak eta haurrak atentitzeko prest. 646 05 58 88

**Debagoiena.** Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketetan, etxean bizi izaten edo bestela. 699 09 46 26

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketetan, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko. Orduka zein egun osoz. Deitu 672 70 71 25 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako: etxean bizi izaten, egunez edo orduka. Deitu 620 65 44 98 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Bait garbitasun lanetarako ere. Ordu-tegi malgua. Eskarmentuduna. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu etxe, bulego, lokal zein elkarrekin garbitzeko. 676 24 89 24

**Debagoiena.** Gauetan edo asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu 699 60 91 90 telefonora.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua lanerako prest. Deitu zenbaki honetara: 677 62 22 21

**Debagoiena.** Lanaldi osoz, arratsaldez, zein orduka, garbiketa lanak egin, pertsona nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako emakumea prest. 630 99 11 85

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak. Deitu 699 07 99 69 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein pasean laguntzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest. Deitu 666 36 56 62 telefonora.

**Debagoiena.** Neska etxeko lanak egiteko, umeak zein helduak zaintzeko gertu. Auxiliar tituluararekin. Deitu 655 96 18 22 telefonora.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu ume zein nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo ospitalean gauak egiteko. Esperientzia eta informez dazkat. Autoa eta gidatzeko baimena ere bai. Deitu 671 35 22 60 telefonora

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko. Geriatria titulua. 662 26 71 41

**Debagoiena.** Neska gertu interna, orduka zein gauetan lan egiteko, nagusiak zaintzen. Atariak garbitu, lisatu eta abarretan ere bai. 610 68 81 58

**Debagoiena.** Neska gertu interna, orduka zein gauetan lan egiteko, nagusiak zaintzen. Atariak garbitu, lisatu eta abarretan ere bai. 689 95 12 83

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanetarako. Egunean zehar, gauak edota asteburuak. 618 14 71 34

**Debagoiena.** Neska goizez lan egiteko gertu. Etxean, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen. 697 20 00 86

**Debaioena.** Erizaintza laguntzaile tituludun bikotea, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bertan bizitzeko aukera. Deitu 697 35 62 49 telefonora.

**Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate.** Neska euskalduna, uztail edo abuztuan goiz eta arratsaldez umeak zaintzeko prest. 660 60 83 36 edo 943 71 40 45

**Garraioak.** Furgoneta daukat edozein motatako garraioak egiteko. 628 51 22 78

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Alemaneskolak.** Alemaneskolak jasotzeko prest nago, udako hila beteetan. 666 71 69 79

**Bergara.** DBH laugarren mailako ingeles eskolak emango dizkidan norbait behar dut, ingeles ondo menperatzen duena. Irene. 679 31 62 72

## 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen dira. Uztailaren, orduka zein intentsiboak. Maila guztiak. Enpresarako formazioa eta Cambridge edo HE0eko azterketak prestatzeko ere bai. 618 91 32 89

**Oñati.** Irakasle eta psikopedagogoa eskola partikularra ematen ditut: klase personalizatuak (euskara indartzeak, ulermen arazoak, eta abar), bakarka edo talde txikietan. Kontsultaz eza konpromisorik gabe. 685 76 83 16 edo 943 78 07 49

**Ordenagailu eskolak.** Ordenagailua ondo erabiltzen ikasi nahi duzula? Lasai, internet, web orriak diseinatu, programazioa, Microsoft, inteligentzia artifiziala eta abar. Merke. Deitu 679 74 00 61 telefonora.

## 503. BESTELAKOAK

**Doako informatika laguntza** eskaintzen dut langabezia dauden pertsona edota familia ugariendako. Edozein arazo, galdera edo aholku behar baldin baduzu informatika arloan, nire laguntza dohainik eskaintzen dizut. laguntzen@gmail.com

## 7. ANIMALIAK

## 704. BESTELAKOAK

**Bi txakur galduta Angiozarran.** Setter arrazako bi txakur galduta dira Angiozarko lurretan. Lagun (gaztea, urtebetekoa, zuria orban marroiekin) eta For (hiru urtekoa, zuria) izenei erantzuten diete. Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. Aldez aurretik eskerrak. 655 73 10 54 edo 943 76 59 32

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Almirante trajea.** Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 150 €. 618 00 08 28

**Bizikleta.** Mendiz RS4 bizikleta salgai. Karbonozkoa, txuria eta gorria. 51 neurrikoa. Shimano Ultegra kambioduna. Fulcrum Racing gurpilekin. 2010eko eta egoera oso onean. Faktura dauket. 606 28 81 19

**BMX Monty.** Trialsinera bizikleta salgai. Egoera oso onean. Deitu 617 21 89 74 telefono zenbakira.

**Bugaboo patinetea salgai.** Bugaboo etxeko kotxei egokitzeko zaien patinetea. Egoera onean. 30 euro. Deitu 943 76 21 31 telefonora.

**Kayaka.** 3D Perception modelo. Txalekoa, txubaskeroa, arrauna eta abar. 800 euro. 690 81 64 39

**Lehorgailua.** Hiru kiloko lehorgailua salgai. Ia berria. 659 34 31 43

**Mostradoreak.** Dendako bi mostradore salgai. Ia berriak. 696 84 19 51

**Stokke Sleepi.** Mini eta sehaska, salgai. Zuria. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 350 euro. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean. 648 20 37 75

**Xbox 360.** Xbox 360 salgai. Orain dela bi urte erositua, baina erabili gabe. 250 GB. Urtebeteko bermearrekin. 175 euro. 943 79 39 35

**Xurgagailua.** (aspiradora). Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilia. 659 62 02 49

## 802. EROSI

**Bugaboo Donkey aulki bikoitza.** Bugaboo Donkey aulki bikoitza, egoera onekoa, erosiko genuke. 635 70 05 14

**Lursaila erosiko nuke.** Erosiko nuke Bergara. Oñati edo Eskoriatza artean, erleak ipintzeko, hektarea 1 eta 4 artekoa. 626 01 19 07

## 804. HARTU

**Liburuak.** Arizmediko LH 6. mailakoko liburuak hartuko nituzke. Emateko badituzu deitu 605 46 19 26 telefonora.

## 806. GALDU

**Betaurreko graduatuak.** Betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 31n, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorrian. Mesedez aurkitu badituzue jarri kontaktuan nirekin. Deitu 608 41 53 11 telefono zenbakira.

**Motxilak galdu.** Maitzaren 11n umeen 2 motxila galdu genituen. Bat urdina eta beste kamuflaje (naranja kolorekoa). Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara: 615 79 13 21

## LAN ESKAINTZA PUBLIKOA OBRA ETA ZERBITZUEN BRIGADAKO PEOIA BI HILABETEKONTRATUA

Antzuolako Udalak Obra eta Zerbitzuen brigadako peoia kontratatu behar du, ezohiko eta urgentziako aldi baterako beharrei aurre egiteko.

## Eginkizunak:

- Mantentze eta konponketa lanak egitea udal eraikin, ondasun, instalazio eta bulegoetan
- Azpiegituren prestatetan lagundu jai, kirol eta kultur ekintzetan
- Jaietako antolakuntza, kale garbiketa, jakinarazpen lan eta larrialdi egoeretan laguntzea.

**Kontratuaren iraupen estimatua:** Bi hilabete

## Baldintzak:

- 16 urte beteak izatea.
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO-EGB), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH-ESO).
- B-1 gidabaimena edukitzea.
- Euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai izatea. Maila ziurtatzeko 1. Hizkuntza Eskakizuna (PL-1) aurkeztu ahal izango da edo azterketa egunean euskara proba egin daiteke.

## Eskabideak aurkezteko epea:

2012ko ekainaren 25ean, astelehena (08:00-14:00), udaletxeko bulegoetan.

## Azterketa eguna:

2012ko ekainaren 27an, asteazkena (10:00), Udaletxean.



Antzuolako Udala

Antzuolan, 2012ko ekainaren 20an Inmaculada Beristain Alkatea

ASTEAGOIENAN



GOIENA

Kirola ardatz nagusi 'Tertulia' saioan

Aste honetako tertulia saioa Xabi Urtzelaren eskutik etorriko da eta kirolari eskainiko diogu; kirola, osasuna eta errendimenduari hain zuzen ere. Kirolaren alor ezberdinei buruz jardungo dute gonbidatuak eta gai ezberdinak izango dira mintzagai.

'Tertulia' Eguaztenean, 22:01



IMANOL SORIANO

Sanjuanetako irudi eta unerik onenak

Aurtengo Arrasateko sanjuan jaiei buruz arituko gara *Magazinea* saioan. Jaietako protagonistei egindako elkarrizketak, irudi erakargarrienak eta asteburuan izandako ekitaldi nagusien errepaso egingo dugu. Jaietan murgilduko gara.

'Magazinea' Astelehena, 20:17

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 22

- 12:20 Magazinea
- 13:05 Zorion Agurrak
- 13:10 Berbetan
- 13:37 Onein
- 13:59 Beranduegi.tv
- 14:19 Planik bai?
- 14:39 Zorion Agurrak
- 14:44 Berriak
- 15:04 Eguraldia
- 15:09 Planik bai?
- 15:19 Bizitegia
- 15:49 Berbaz
- 16:57 Berriak
- 17:17 Eguraldia
- 17:22 Planik bai?
- 17:42 28.Klip
- 18:06 Harira
- 18:36 Ekogune
- 19:06 Beranduegi.tv
- 19:25 Berbetan
- 19:52 Zorion Agurrak
- 19:57 Berriak
- 20:17 Eguraldia
- 20:22 Planik bai?
- 20:42 Harira
- 21:12 Berriak
- 21:32 Eguraldia
- 21:37 AsteON
- 22:07 Berriak
- 22:27 Eguraldia
- 22:30 Planik bai?
- 22:40 Tertulia
- 23:40 AsteON.

ZAPATUA 23

- 10:00 Ipupomamua
- 10:26 Zorion agurrak
- 10:31 28. Klip
- 10:55 Planik bai?
- 11:05 AsteON
- 11:40 Berbetan:AndoneBidaguren
- 12:16 Bizitegia
- 12:46 Ikusmira
- 13:09 Onein: Pitxoia
- 13:32 Berriak
- 13:47 Magazinea
- 14:47 Tertulia
- 15:47 Harira
- 16:17 Planik bai?
- 16:27 Zorion agurrak
- 16:32 Berriak
- 16:47 Onein: Arroz beltza
- 17:09 Ekogune
- 17:39 GCC: Sustariez blai
- 18:05 Walker: Albiztur
- 18:29 Zorion agurrak
- 18:34 Ikusmira
- 18:57 Berbaz
- 20:05 Beranduegi.tv
- 20:20 Magazinea
- 21:20 Planik bai?
- 21:30 Erreportajea
- 22:10 Harira
- 22:40 AsteON
- 23:15 Planik bai?
- 23:25 Tertulia
- 00:25 Magazinea

DOMEKA 24

- 10:00 Hamaika.bit
- 10:32 Ipupomamua
- 11:02 Zorion agurrak
- 11:07 Onein: Arroz beltza
- 11:29 Magazinea
- 12:29 Bizitegia
- 12:59 Berriak
- 13:14 Onein: Mami mousse-a
- 13:46 Walker: Albiztur
- 14:10 Tertulia
- 15:10 Zorion agurrak
- 15:15 Berriak
- 15:30 AsteON
- 16:05 Ipupomamua
- 16:35 Erreportajea
- 17:15 Berriak
- 17:30 Magazinea
- 18:30 Harira
- 19:00 Beranduegi.tv
- 19:15 Magazinea
- 20:15 Ekogune
- 20:45 Berbetan
- 21:21 Zorion agurrak
- 21:26 Ikusmira
- 21:51 Magazinea
- 22:26 Erreportajea
- 22:53 Berriak
- 23:08 Bizitegia
- 23:38 Beranduegi.tv
- 23:56 Magazinea
- 00:56 Tertulia

ASTELEHENA 25

- 12:30 Magazinea
- 13:30 Zorion agurrak
- 13:35 Onein: Pitxoia
- 13:58 AsteON
- 14:38 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Ikusten: Gizarte zerbitzuak
- 15:56 Zorion agurrak
- 16:01 Ikusmira
- 16:24 Nere herrie: Leitza
- 16:40 Zorion agurrak
- 16:45 Berriak
- 17:05 Eguraldia
- 17:10 Ikusten: Gizarte zerbitzuak
- 17:56 Onein: Hostopil beteak
- 18:24 Berbaz
- 19:24 AsteON
- 19:54 Berriak
- 20:14 Eguraldia
- 20:17 Magazinea
- 21:02 Berriak
- 21:27 Eguraldia
- 21:32 Harmailatik
- 22:17 Magazinea
- 23:02 Harmailatik
- 23:47 Berriak
- 00:12 Eguraldia

MARTITZENA 26

- 12:30 Magazinea
- 13:15 Zorion agurrak
- 13:20 Harmailatik
- 14:05 AsteON
- 14:40 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Harmailatik
- 15:55 Onein: Pitxoia
- 16:17 Walker: Albiztur
- 16:41 Zorion agurrak
- 16:46 Berriak
- 17:11 Eguraldia
- 17:14 Bizitegia
- 17:44 Harmailatik
- 18:24 Berbetan
- 19:00 Hamaika.bit
- 19:30 Nere herrie: Leitza
- 19:46 Zorion agurrak
- 19:51 Berriak
- 20:11 Eguraldia
- 20:14 Magazinea
- 20:59 Zorion agurrak
- 21:04 Berriak
- 21:24 Eguraldia
- 21:29 Harira
- 21:59 AsteON
- 22:29 Magazinea
- 23:14 Erreportajea
- 23:54 Berriak
- 00:19 Eguraldia.

EGUAZTENA 27

- 12:15 Magazinea
- 13:00 Zorion agurrak
- 13:05 Harira
- 13:40 Beranduegi.tv
- 13:55 Harmailatik
- 14:41 Zorion agurrak
- 14:46 Berriak
- 15:06 Eguraldia
- 15:11 Nere herrie: Leitza
- 15:27 Onein: Arroz beltza
- 15:49 Erreportajea
- 16:29 Zorion agurrak
- 16:34 Ikusten
- 16:44 Berriak
- 17:04 Eguraldia
- 17:07 Harmailatik
- 17:52 Ekogune
- 18:22 Walker: Albiztur
- 18:46 Beranduegi.tv
- 19:08 Harira
- 19:43 Zorion agurrak
- 19:47 Berriak
- 20:07 Eguraldia
- 20:12 Magazinea
- 20:50 Lehiaketa
- 20:58 Berriak
- 21:18 Eguraldia
- 21:21 Magazinea
- 22:01 Tertulia
- 23:01 Berriak
- 23:26 Eguraldia
- 23:26 Harira.

EGUENA 28

- 12:25 Magazinea
- 13:10 Zorion agurrak
- 13:15 Bizitegia
- 13:45 Tertulia
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Hamaika.bit
- 15:42 Esatea libre
- 17:22 Berriak
- 17:55 Eguraldia
- 18:00 Tertulia
- 19:00 Onein: Arroz beltza
- 19:25 Planik bai?
- 19:45 Zorion agurrak
- 19:50 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 20:55 Planik bai?
- 21:15 Berriak
- 21:40 Eguraldia
- 21:43 Hamaika.bit
- 22:15 Erreportajea
- 22:55 Planik bai?
- 23:15 Magazinea
- 00:00 Berriak
- 00:25 Eguraldia
- 00:30 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

Denboraldiko 'Igo autobusera!' azken saioa

Sanjuan jaiak badatoz eta hauekin batera *Igo autobusera!* saioari bukaera emango diogu. Gaur izango da denboraldiko azken emanaldia eta astelehenean, *Uda Giroan* saioa estreinatuko dugu. Udazkenean itzuliko da *Igo autobusera!*; bitartean, saio berriak disfrutatu.

Sanjuan jaiei buruz jakin beharreko guztiak 107.7an

Datorren astelehen eta martitzeneko saioek, 10:30-11:30 bitartean, sanjuan jaietan murgilduko gaituzte. Kanean gertatzen denaren lekuko zuzenak izango gara Arrasate Irratian. Eta eguaztenean, Jon Garai, kultura teknikaria izango dugu gurean, sanjuan jaien balorazioa egiteko.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 23	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Domeka, 24	CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Astelehena, 25	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 26	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Eguaztena, 27	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguena, 28	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 29	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30

BERGARA

Zapatua, 23	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 24	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 25	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 26	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 27	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Eguena, 28	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 29	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 23	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 24	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 25	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 26	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 27	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 28	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 29	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA / ESKORIATZA

Zapatua, 23	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Domeka, 24	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Astelehena, 25	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Martitzena, 26	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguaztena, 27	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguena, 28	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 29	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28

Farmazien eskuko telefonotarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

HILETA

Pablo Idigoras Zuazua



2012ko ekainaren 20an hil zen, 70 urte zituela.

Anaiak: Txomin, Jose Mari eta bere emazte Juli. Ilobak: Jon Ander, Arantzazu eta bere senar Pedro. Eta gainerako sendidek dei egiten dizuete:

Haren aldeko hileta elizkizunera bihar zapatua, ekainak 23, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juanito Olañeta Markiegi



Uberako Marki Nausi baserrian hil zen 2011ko ekainaren 21ean, 80 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 24an 10:30ean, Uberako San Paulo elizan izango da.

Zubitxa kalean jaio eta Marki Nausira aldatu; baserrian esku ona eta fabrikari ere estimatu.

Gizon ona eta irribartsua, laguntzako beti gertu; gure ondotik joan da baina Juanito ezin da ahaztu.

Eskerrik asko, aldeztu aurretik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratzu gero, 168 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

URTEURRENA

Iker Uribetxeberria Azurmendi



1978-04-16 / 2005-06-23

Zazpigarren urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 23an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## HILDAKOAK

**Jose Zanguitu Ugalde.** Zarautzen, maiatzaren 9an. 92 urte.

**Miren Iraola Villar.** Oñatin, ekainaren 15ean. 91 urte.

**Carmen Zaloña Leanizbarrutia.** Aretxabaletan, ekainaren 17an. 73 urte.

**Marina Padilla Boveda.** Aramaion, ekainaren 17an. 94 urte.

**Alfonso Bueno Zaballos.** Oñatin, ekainaren 19an. 89 urte.

**Florencia Plazaola Gantxegi.** Bergaran, ekainaren 20an. 90 urte.

**Antonia Uribarren Egidazu.** Arrasaten, ekainaren 13an. 86 urte.

**Florencio Armaolea Iburguengoitia.** Arrasaten, ekainaren 15ean. 79 urte.



## Juli eta Antonio

Juli Alonso eta Antonio Gomez Aretxabaletako udaletxean ezkondu dira ekainaren 23an. Eztei-bidaian joango dira ondoren, Punta Canara. Zorionak, bikoteari, familiakoen partetik.



## Amaia eta Iban

"Amaia Oregi arrasatearraren eta Iban Arriola markinañarraren ekainaren 16ko ezkontzan egun zoragarria pasatu genuen. Zorionak eta ondo ibili Vietnam aldean! Orain musu ematea libre da, e? Eskerrik asko!". Amaia lagunak.



## Iñaki eta Leire

Iñaki Lizarraga eta Leire Cortes joan den zapatuan, ekainaren 16an, ezkondu ziren. Oso egun ederra pasatu zuten familia eta lagunekin batera. Denon partetik, zoriontsu izan, bikote!



## David eta Jayet

David eta Jayet ekainaren 23an ezkonduko dira. Zorionak eta ondo pasa ezazuela egun berezi hau, familiaren eta lagunaren partetik.



## Aroa eta Josu

Aroa Agirrezabal eta Josu Gonzalez. Ekainaren 23an ezkontuko dira. Zorionak, bikote! Zoragarri pasatu eguna eta zoriontsuak izan. Musu handi bat bioi, familiaren eta lagun guztien partetik.




## Xabier eta Miren

Xabier Egidazu eta Miren Arriola ekainaren 23an ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Zorionak eta egun zoragarria pasa dezazuela, familiaren partetik.



## Shere eta Iban

Shere Moreno eta Iban Da Silva. Duela bi urte ezkondu ziren. "Zorionak, aitatxo eta amatxo! Espero dut urte askoan zoriontsu izatea. Patxo handi bat, Kenarren eta etxekoaren partetik!".



## Juanjo eta Vanesa

Juanjo Garcia eta Vanesa Martinez ekainaren 23an ezkonduko dira San Isidro elizan. Bazkaria Zelai-Zabal jatetxean izango da. Ondo pasatu eguna, familiakoen partetik!

## ESKER ONA

## Marina Padilla Boveda



2012ko ekainaren 17an hil zen, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko meza, domekan, ekainaren 24an, 11:00etan, Aramaioko Gantzaga auzoan izango da.

Aramaion, 2012ko ekainaren 22an.

## ESKER ONA

## Carmen Zaloña Leanizbarrutia



Javier Iturberen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2012ko ekainaren 17an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2012ko ekainaren 22an.

## ESKER ONA

## Miren Iraola Villar



Joxe Kortabariaren alarguna

Oñatin hil zen 2012ko ekainaren 15ean, 91 urte zituela.

Lerro hauen bidez Mirenen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Oñatin, 2012ko ekainaren 22an.

## OROIGARRIA

## Marina Padilla Boveda



Igone Larrañaga lankidearen ama

2012ko ekainaren 17an hil zen, 94 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastolako langileak.  
Leintz bailaran, 2012ko ekainaren 22an.

## MEZA

## Jose Zanguitu Ugalde



Miren Olabariaren alarguna

Zarautzen hil zen 2012ko maiatzaren 9an, 92 urte zituela.

Haren aldeko meza domekan, ekainaren 24an, 12:00etan, Osintxuko elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## Babeslea:

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**BERGARA Solstizio festa**

Solstizio gau berezia ospatuko dute bihar Bergaran. Urteroko San Juan sua bai, baina bestelako kultur ekintzak ere egingo dira. Beart elkartearekin elkarlanean antolatatu du biharkoa Bergarako herri mugimenduak eta aurten, gainera, beste batzuen artean, artelan zaharrak erreko dituzte.

Bihar, Herriko plazan, 22:30ean.



GOIENA



GOIENA

**PATXIMATXIN Skate festa**

Skate-zaleendako aukera ederra! Arrasateko kiroldegiko skate parkean Patximatxin festa egingo da bihar. Egun osoan zehar egingo dira kirol horrekin lotutako askotariko ekintzak; txapelketak izango dira nagusi, baita kontzertuak ere.

Bihar, Arrasateko kiroldegian, 12:00etatik aurrera.

**MUSIKA****OÑATI Gora Gora Kids taldea**

Gora Gora Kids taldeak kontzertua eskainiko du Oñatiko Antton tabernan gaur. *Horror Songs* EPA aurkeztuko dute bertan: izuaren, abenturazko zinearen eta espazioko istorioen inguruko lau abesti batzen dituen diskoa da. Garagea, rock-and-rolla, surfa, eta dibertsioa nahasten dituena.

Gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:00etan.

**ESKORIATZA Musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua**

Eskoriatzako musika eskolak ikasturte amaierako kontzertua egingo du gaur. Musika eskolako hainbat taldek hartuko du parte kontzertuan.

Ekinaren 22a, egubakoitza, plazan 18:30ean.

**BERGARA Garate eta Azkaiter Pelox Tartufon**

Garate eta Azkaiter Pelox and The Road Band taldeen kontzertuez gozatzeko aukera eskainiko du gaur Bergarako Tartufok. Sanjuanak direla-eta egingo da kontzertua bertan. Sarrera doakoa izango da.

Gaur, egubakoitza, Tartufon, 23:00etan.

**ARRASATE Bongo Botrako, Los Cretinos eta Itziarren Semeak**

Hiru urte daramatza Tarragonan sortutako Bongo Botrako taldeak kontzertuak ematen. Iaz argitaratu zuten euren lehendabiziko diskoa: *Todos los días sale el sol*. Disko horretako *Ei Chipirón!* abestiarekin izugarritzko arrakasta lortu du taldeak, gainera. Runba, reggae, ska, eta punk parranda deritzen estiloak fusionatzen ditu lehendabiziko lan horrek. Eurekin batera, Los Cretinos eta Itziarren Semeak taldeak ariko dira.

Gaur, egubakoitza, Monterron parkean, 22:00etan.

**BERGARA Txapa Irratiko kontzertuak**

Ikasturteari bukaera emateko aitzakiaz Txapa irrati libreak hainbat ekintza antolatu ditu; hala, Nuevo Catecismo Catolico, Lobo Electrico, Safety Pins eta Screamin Targets taldeek kontzertua eskainiko dute bihar Bergarako gaztetxean.

Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 22  
EKAINA 29**OÑATI Ganbara Txiki abesbatzaren ikasturte bukaerako ekitaldia**

Ikasturtea bukatzeaz dago Ganbara Kantu Eskolako taldeentzat ere. Urtero bezala, kurtsoa bukatzeko kontzertu berezia eskainiko dute. Azken hiruhilekoan landutako abestiak aurkeztuko dituzte tailerretako hurrek, Ganbara Txikitxoak eta Ganbara Txiki Abesbatzakoek.

Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

**ELGETA Musika ikasleen emanaldia**

Lorea Larrañagaren ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute etzi, Espaloian. Hor erakutsiko dute ikasturtean zehar ikasitakoa.

Etzi, domeka, Espaloia kafe antzokian, 12:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ESKORIATZA Edadetuendako merienda**

Herriko zaharrek hitzordua daukate gaur Eskoriatzan. Hango erretiratuek antolatuta, merienda ederra egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Jubilatuen etxean, 17:30ean

**ESKORIATZA San Juan sua**

Eskoriatzan ere, San Juan bezperaren bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte biharko: hala, 13:00etan gimnasia erritmiko erakustaldia egingo da pilotalekuan. 18:00etan herriko plazan elkartu eta txorimaloaren bila joango dira datorren urterako lore-sendorra prestatzeko. 19:00etan buruhandiak aterako dira.

22:30ean piztuko dute sua herriko plazan. Ondoren, erromeria ere egingo da.

Bihar, zapatua, herriko plazan 22:30ean.

**OÑATI San Juan sua**

Oñatin herriko plazan egingo da San Juan sua. Azken urteotan Olaitturriko aparkalekuan egingo da; aurten, baina, aspaldiko partez herriko plazan egingo da. Sua bakarrik ez, haren inguruan jaiak ere piztuko baita. Oñatiko trikitilariak musika ipiniko dute, Oñatz dantza taldeak, berriak, dantza egingo du.

Bihar, zapatua, Oñatiko plazan 22:30ean.

**ARETXABALETA San Juan sua**

Aretxabaletan ere sanjuanak ondo sustraitutako jaiak dira. Hori horrela, urtero bezala, egitarau

sendoa antolatu dute aurten ere. 18:00etan Leizarra musika eskolakok emanaldia egingo dute. Ondoren, buruhandiak eta erraldoiak aterako dira Aretxabaleta txistularien laguntzarekin. 21:00etan erromeria egingo da, Laket taldearen eskutik. 22:20an, San Juan bezperako kalejira irten go da eta jarraian, Leizarra musika eskolako dantzariak sanjuanetako zortzikoa egingo dute.

Bihar, zapatua, 18:00etatik aurrera.

**ELGETA San Juan sua**

Elgetan ere egingo da San Juan sua. Zerura begira pasatuko dute elgetarrek iluntzea; izan ere, orduan piztuko dute San Juan sua.

Bihar, zapatua, Bolatokian, iluntzean.

**GATZAGA San Juan sua**

21:00etan elkartuko dira gatzagarrak San Migel plazan. Ordu horretan erreko dituzte sardinak; ondoren, 22:00etan, San Juan sua piztuko dute.

**ARETXABALETA 'Tantaz tanta erreka gara' eguna**

Urbaltz tabernak *Tantaz tanta erreka gara* eguna antolatu du

presoen alde. 13:00etan hasita iluntzera arte hainbat ekintza egingo dira herrian; hasteko triki-poteoa, 14:00etan presoen eskubideen aldeko kalejira eta ondoren bazkaria. Miren Amuriza eta Urko Egaña bertsolariak ere arituko dira, eta 17:00etatik aurrera kontzertuak ere egingo dira.

Bihar, zapatua, 13:00etatik aurrera.

**OÑATI Misio taldearen afari solidarioa**

Oñatiko pastoral barrutiko misio taldeak afari solidarioa egingo du gaur. Menua betikoa izango da. Xumea, baina modu berean ederra; jateko patata tortilla letxugarekin eta edateko ura eta sagardoa. Batzen den dirua Maliko elikadura programarako izango da.

Gaur, egubakoitza, Bidaurretako fraideen lokalean 20:30ean.

**ELGETA Ikasturte amaierako bazkaria eskolan**

Ikasturte amaierak askorako ematen du eta honako honetan, Elgetako eskolakok bazkaria antolatu dute. Modu horretan, festa giroan esango diote agur ikasturteari. Irakasle zein ikasle izango dira bazkari horretan.

Gaur, egubakoitza, Herri eskolan, 12:30ean.

**UMEAK****ELGETA Gazteleku zerbitzua**

Gaur ere Elgetako gazteleku zabalik egingo da. 11 urtetik gorako gazteek, beraz, badute gaur hitzordua!

Gaur, egubakoitza, 18:00etatik aurrera.

**ERAKUSKETAK****BERGARA Hirigune historikoa koloretan**

19:00etan emango diote hasiera, Bergaran, komertzio hutsak kolorez janzteko asmoz sortu duten egitasmoari. Herriko artistek erakuslehoetarako lanak egin dituzte, eta bihar kenduko diete banan-banan artelanei estalkia. 19:00etan hasiko da dena. Ordu horretan herriko plazan elkartuko baitira zinegotzi, Udaleko teknikari, artista eta lokalen jabeak argazkia egiteko. Argaz-



GOIENA

**ARRASATE San Juan jaiak**

San Juan jaien barruan, gaur Monterronen, Bongo Botrako, Itziarren Semeak eta Los Cretinos (irudian) taldeen kontzertua egingo dute plazan 21:00etan eta ostean, San Juan sua. Horren ondoren aterako da nagusien danborrada. Domekan, Arrasate Musikalek kontzertua egingo du 13:00etan, Monterronen.

Asteburu osoan zehar, Arrasaten.



GOIENA

### ANTZUOLA Kalebarrengo eta Uzarragako jaiak

Antzuolako Kalebarren eta Uzarraga auzoetan ere jaiak ospatu dituzte asteburuan. Kalebarrenen, esaterako, gaur, umeen danborrada egingo dute eta bihar asto karrera klasikoa. Uzarragan, bihar, San Juan sua egingo dute. Asteburuan, Antzuolan.

kiaren ondoren lokalez lokal eta kalez kale, artelanei estalkia kenduko diete. Horrela egingo dute 22:00ak bitartean. Ordu horretan Munibe plazan artelan bakoitzaren sorkuntza prozesuaren gaineko ikus-entzuzkoa eskainiko dute. Ondoren, 22:30ean, herriko plazan San Juan sua piztuko dute. Bihar, zapatua, San Martin plazan, 19:00etatik aurrera.

## IRTEERA

### ELGETA Intxortako gerra-gunera bisita gidatua

Intxortako gerra-gunera bisita gidatua egingo da domeka honetan ere. Memoria historikoaren euskal interpretazio zentroan hasiko dute bisita eta handik lubakietara joango dira. Etzi, domeka, Espaloitik, 10:00etan.

## BESTELAKOAK

### ELGETA Ezker Abertzalearen herri batzarra

Ezker Abertzaleak *Sortu sortzen* deiaren barruan herri batzarra deitu du gaur arratsalderako. Gaur, egubakoitza, Elgetako udaletxean, 19:30ean.

### ELGETA Athleticzaleen txitxi-burruntzia

Athleticzaleek hitzordua dute bihar Elgetako Bolatokian. Parte hartu gura duzuenok gaur duzue izena emateko azken eguna. Bihar, zapatua, Bolatokian, 14:00etan.

### OÑATI Udaleketako umeen gurasoendako bilera

Udaleku irekietan lehen aldiz parte hartuko duten umeen gurasoendako bilera deitu dute datorren martitzenerako. Informazio orokorra emateko eta zalantzak argitzeko bilera izango da hori. Ekainaren 26a, martitzena, ETEOn, 18:30ean.

## ZINEMA

### OÑATI 'Mujer contra mujer' filma

Gay eta Lesbianen Egunaren harira Andraitx emakume taldeak eta Udaleko Berdintasun batzor-

deak antolatuta *Mujer contra mujer* filma eskainiko dute martitzenean. Emakumeen arteko hiru maitasun istorio dira. Ekainak 26, martitzena, Zinema aretoan, 19:00etan.

### OÑATI 'Gazta zati bat' filma

Joan den eguazteneko emanaldiak izan zuen arrakasta ikusita eta herritar asko filma ikusi barik gelditu zirela kontuan hartuta, datorren eguaztenean berriz ere eskainiko dute Jon Maiak zuzendu duen *Gazta zati bat* dokumentala, kultur etxeko zinema aretoan.

Ekainak 27, eguaztena, Zinema aretoan 19:00etan.

### ARRASATE 'Los chicos están bien'

Udaleko Sexologia Zerbitzuak antolatutako sexologia jardunaldiak datorren eguaztenean amaituko dira, *Los chicos están bien* filmaren emanaldiarekin. Ekainak 27, eguaztena, 19:00etan.

## IKASTAROAK

### ELGETA Tutorea KZgunean

Hilabetero bi bider etortzen da tutorea Elgetako KZgunera ikastaroak ematera eta oraingo astelehenean egingo du ekaineko bigarren bisita. Ekainaren 25a, astelehena, Kultura etxeko KZgunean 09:00etan.

## KIROLA

### ELGETA Euskadiko rally txapelketa

Durangelde Racing taldeak antolatuta Euskadiko txapelketarako puntuagarria den Bizkaiko Behatokiko rallya jokatu da zapatuan, hilak 23. Erlojuaren kontra neurtzeko bost zati izango ditu lasterketak. Goizean bi zati egingo dituzte lasterkariak, baina Bizkaia aldean ibiliko dira. Arratsaldean gerturatuko dira autoak Elgetara. 75 auto espero dira lasterketan. Antolatzaileek Asentzioko zatia gomendatu diete ikusleei. Autoak kanpoan aparkatzeko eskatu dute, zaborra ondo kudeatzeko, apurketa-rik ez egiteko, eta lasterketa ikusteko leku segurua aukeratzeko Bihar, zapatua Durango-Elgeta, 08:00etan.

## ZINEMA

### GASTEIZ

#### GURIDI

#### Tengo ganas de ti

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

#### Las nieves del kilimanjaro

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

#### MSI: Maxima seguridad

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

#### Sombras tenebrosas

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:20.

#### Men in black III

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

#### La suerte en tus manos

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

#### El profesor Lazhar

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30. Domeketan: 20:15, 22:30. Astelehenera: 18:00, 20:15, 22:30.

#### Blancanieves y la leyenda del cazador

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

### FLORIDA

#### Ellas

Egubakoitzetik eguaztena: 18:00, 20:15, 22:30. Eguenetan: 18:00, 22:30.

#### Los cachorros y el código de Marco Polo

Egubakoitzetik eguenera: 17:30. Zapatumetik eguenera: 12:00.

#### Intocable

Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:30.

#### Marvel, los vengadores

Egubakoitzetik eguenera: 17:30. Zapatumetik eguenera: 12:00.

#### ¿Y si vivimos todos juntos?

Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:30.

#### Moonrise Kingdom

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

#### Don gato y su pandilla

Egubakoitzetik eguenera: 17:30. Zapatumetik eguenera: 12:00.

#### Iceberg

Egubakoitzetik astelehenera: 20:00, 22:30. Martitzenetan: 22:30. Eguazten eta eguaztena: 20:00, 22:30.

### Hysteria

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

#### Las chicas de la sexta planta

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

#### Los Muppets

Zapatumetik eguenera: 12:00.

#### Retrospectiva Ana Diez

Zapatumetik eguenera: 20:00.

### BOULEVARD

#### Tengo ganas de ti

Egunero: 18:30, 21:00. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 23:30. Zapatu eta domeketan: 16:00.

#### Project X

Egunero: 18:00, 20:00, 22:00. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:00. Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

#### Blancanieves y la leyenda del cazador

Egunero: 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 22:30. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:00. Zapatu eta domeketan, baita: 16:30.

#### Men in black III

Egunero: 18:00, 20:15, 22:30. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:45.

### 3D - Men in black III

Egunero: 21:30. Zapatu eta domeketan, baita: 23:30.

#### Sacame del paraíso

Egunero: 19:45, 21:45. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 23:45.

#### Sombras tenebrosas

Egunero: 20:15, 22:30. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:45.

#### Acto de valor

Egunero: 20:20, 22:35. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:50.

#### Hysteria

Egunero: 17:45. Zapatu eta domeketan, baita: 15:45.

#### Marvel, Los vengadores

Egunero: 17:30.

#### Cuando te encuentre

Egubakoitzetik eta zapatutan: 16:10.

#### Intocable

Egunero: 18:10.

#### 3D - Marvel los vengadores

Zapatu eta domeketan: 15:30.

#### Los juegos del hambre

Egunero: 18:30.

#### Lorax

Zapatu eta domeketan: 16:00.

### GORBEIA

#### Tengo ganas de ti

Egunero: 17:30, 19:30, 20:00, 22:00, 22:30.

Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:30. Zapatu eta domeketan, baita: 17:00.

#### Don gato y su pandilla

Egunero: 18:00. Zapatu eta domeketan, baita: 16:10.

#### Opera Met - Don Giovanni

Egunero: 20:30.

#### Maxima seguridad

Egunero: 18:00, 20:00, 22:00. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:00.

#### Acto de valor

Eguenetan izan ezik, egunero: 19:30, 21:45. Egubakoitzetik eta zapatuta, baita: 00:00.

#### Sacame del paraíso

Egunero: 18:10, 20:20. Zapatu eta domeketan, baita: 16:00.

#### Blancanieves y la leyenda del cazador

Egunero: 17:40, 19:00, 20:10, 21:30, 22:40. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:00. Zapatu eta domeketan, baita: 16:30.

### Men in black III

Egunero: 18:15, 20:30, 22:45. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:55.

#### 3D - Men in black III

Egunero: 21:30. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 23:45. Zapatu eta domeketan, baita: 16:15.

#### Sombras Tenebrosas

Egunero: 19:50, 22:10. Egubakoitzetik eta zapatutan: 00:30.

#### La sombra de los otros

Egunero: 22:30. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:45.

#### Intocable

Egunero: 20:10, 22:20. Egubakoitzetik eta zapatutan, baita: 00:30.

#### Los cachorros

Egunero: 17:30. Zapatu eta domeketan, baita: 15:30.

#### Lorax

Egunero: 18:20. Zapatu eta domeketan, baita: 16:30.

#### Los vengadores

Egunero: 18:20.

#### 3D - Los vengadores

Zapatu eta domeketan: 15:30.

#### Soul Surfer

Zapatu eta domeketan: 16:00.

## KRITIKA



### MOONRISE KINGDOM ★★★★★

Zuzendaria: Wes Anderson.

Herrialdea: Estatu Batuak.

Urtea: 2012.

Aktoreak: Bruce Willis, Edward Norton, Bill Murray, Frances McDormand.

Iraupena: 94 minutu.

## Amodioak bultzatutako abentura xelebrea

**M**oonrise Kingdom oso film berezia da. Ez dago erdibiderik; edo sartzen zara Wes Andersonek sortu duen istorioan eta gustatu egiten zaizu edo justu kontrako gertatzen zaizu; alegia, filma batere ez gustatzea. Ez da ohiko film luze bat. Agertzen diren pertsonaiak eta horien jokatzeko modua ere ez dira ohikoak; haurrek kasu askotan helduen jokabideak dituzte, eta alderantziz ere bai; heldu asko umeen gorputz baten sartuta daudela ematen du. Zuzendariak errealismotik ihes egiten du, fantasiarekin eta ipuinekin zerikusia duen amodio istorio bat azaltzeko. Moonrise Kingdom-ek ematen dio ukitu absurdo bat ere; pertsonaiak

oso bitxiak dira; ez, aldiz barregarriak: euren alde aldrebesa agertzen den arren, helduz zaiguna da horien bakardadea eta duten alde sentikorra. Boy scouten kanpamenduan dagoen mutiko batek eta bere gurasoekin eta anaiekin bizi den neskatila batek ihesaldi bat antolatzen dute. Ez dira gustura bizi, besteengandik aldentzeko sentitzen dira eta bien artean harreman sekretua sortuko da. Horien bila irtingo dira kanpamenduko arduradunak, umeen lagunak, neskatilaren gurasoak eta gizarte-laguntzakoak. Horrela bizitzaren arlo desberdinak azaltzen dira: helduek sentitzen duten frustrazio edo etsipena,

haurrak helduen paperean sartzean egin edo sentitzen dutena eta liburuetan ikusi dituzten abenturak jarraitu nahian... Esan bezala, nagusien eta umeen portaerak nahasten dira iniazioiko istorio honetan. Wes Andersonen filmean modernitatea eta klasikotasuna agertzen dira: filmaren alde eroak, gertatzen den planifikazioak edota erabiltzen den ironiak desberdintzen dute filma zinema klasikoetik, baina, hala eta guztiz ere, sumatzen da Frank Borzagen, John Forden edota abenturazko eta western egileen eragina. Filma originala eta bitxia da, eta, aldi berean, badu betiko zinematik ere.

ANTONIO ZABALA



# goiena

2012-06-22


BUKATZEKO

## Gorputzeko gihar bakoitza agerian

- ▶ Luis Fernandezek Euskadiko fitness txapelketan parte hartu zuen orain dela bi aste Gernikan
- ▶ Aretxabaletarra duela bi urte hasi zen horrelako txapelketetan parte hartzeko bereziki entrenatzen

**ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA**  
Betidanik gustatu izan zaio kirola egitea, eta orain dela bi urte kulturismoan murgiltzea erabaki zuen Luis Fernandez aretxabaletarra. Ordutik hona lau txapelketetan parte hartu du; azkena, duela bi aste Gernikan jokatu zen Euskadiko fitness txapelketan. Aretxabaletarra pozik dago joan den urtetik hona egin duen aurrerapenarekin: "Joan den urtean probatze aldera eman nuen izena txapelketa baten, eta asko gustatu zitzaidan. Oraindik asko daukat hobetzeko, baina sumatu dut joan den urtetik hona dezente aurreratu dudala".


**Pisua hartu eta gantza galdu**  
Fernandezek dio esfortzu eta konstantzia handia eskatzen duen kirola dela fitnessa. Urteko entrenamendua bi zatitan banatzen da: "Entrenamenduak irailean hasten dira, eta lehenengo zatian pisua hartzea da helburua, gantzaren eta muskuluaren bitartez. Bigarren zatian, berriz, giharrak mantenduz gantza eta pisua jaisatea izaten da helburua". Elikadura zaintzea ezinbestekoa da: "Alferrik da asko entrenatzea elikadura zaintzen ez bada. Oso oso garrantzitsua da".



Luis Fernandez, azkeneko txapelketan. | FULLGAS SPORT NUTRITION

**Azken orduko trikimailuak**  
Urte osoko entrenamendua garrantzitsua den arren, txapelketa egunaren aurreko astea eta egunak bereziki garrantzitsuak izaten dira: "Txapelketaren eguneko giharrak modu horretan ikusteko azken momentuko trikimailutxoak ditugu. Esaterako, aste horretan oso likido gutxi hartzen

dugu, eta, modu horretan, azala giharretara itsasten da eta hobeto markatzen dira giharrak. Horrez gain, fokuen berotasunak eta ematen diguten koloreak ere asko laguntzen dute".



**Jendea galdezka**  
Joan den urtean ez horrenbeste, baina Aretxabaletan hasi zaio jendea bere zaletasunaren gainean galdezka: "Telebistan eman dute txapelketa aurten, eta jendeak ikusi egin nau. Askok ez zuten nire zaletasunaren berri".

Pozik dago egindako denboraldiarekin, eta hurrengoan pentsatzen ari da; baikor, gainera: "Joan den urtetik hona hobetu badut, hobetzen jarrai dezaket, eta hori da nire borroka".

ten dira: "Txapelketaren eguneko giharrak modu horretan ikusteko azken momentuko trikimailutxoak ditugu. Esaterako, aste horretan oso likido gutxi hartzen

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



### Isiltasunaren atzaparkada

**G**errako garrak Oñatin. Abenduan atera genuen liburua. Oñatiarren ibilerak jasotzeko. Alde batekoak zein besteak. Isildutako kontuak. Gerrak dakarren sufrimendua. Sekula berriro gerta ez dadin. Ia bi urteko lana izan zen. Ate joka joan ginen hara eta hona. Liburukote mardula osatu genuen. Baina datu inportantea falta zela jakin dut: Madrilen oñatiar bat fusilatu zutela. Komunistek fusilatu ere.

Gerraren hasieran gertatu zen. Madrilen bizi zen gizon hori. Bere osaba baten bidez joan zen hara, lanera. Hantxe ezkondu zen. Bi ume zituzten. Osaba hori eskumakoa zen, eta politikan zegoen sartuta. Haren bila joan ziren. Baina alde egin zen ordurako. "No están, pero su sobrino vive ahí", esan zien porteroak. Eta baten faltan bestea atera zuten etxetik. Arrastaka. Hiltzeko.

Maritxu Etxebarria hiru urte zituen aita fusilatu zutenean. Aitak Modesto Etxebarria Pagadigorria zuen izena. Eta nire aitajaunaren anaia bakarra zen. Gure aitari horregatik jarri zioten Modesto izena. Maritxuk berak kontatu dit, Puerto Ricotik etorrira. Kanpoan bila ibili, eta ez nuen etxean gertatutakoa ezagutzen!

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

R.P.S. Nº 148/10 LLG.

**konbinatu**

graduatuak  
+  
eguzkitako graduatuak

**97€**

Eskaintza hau baliazarria izango da 2012/08/30era arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.